

**BERTSOLARI
TXAPELKETA
NAGUSIA
1993**

Antolatzailea
BERTSOLARI ELKARTEA
Babesle Nagusia
Gipuzkoa-Donostia KUTXA
Bertso aukeraketa
Trino Azkoitia eta Rufino iraola
Bertso transkribaketa
Aitziber Altuna
Transkribapen zuzenketak
Rufino Iraola
Azala: Iñaki Bilbao
Argazkiak: Aitor Gonzalez de Kintana
Doinuen izendapena: Juanito Dorronsoro
Puntuazioen informatizazioa: Fermin Olaskoaga

ESKERRONEZ

Euskal Herriko Bertsolari Elkarteak eskerroneko izan nahi luke, hain garrantzizkoa suertatu den Txapelketa Nagusia burutu zedin lankide izan dituen guzti-guztiekin. Egiten dan guztiaren balioa dirutan neurtzera ohitu nahi gaituen gizarte honetan, guztiz garrantzizkotzat dugu bertsolaritzaren eta oro bat euskalgintzaren inguruan, borondatezko lanaren balio neurtezina.

Bertsolaritzaren inguruan behin eta berriz argi gelditu izan dan bezala, txapelketa honen zigilurik esanguratsuena borondatezko lanak jarri izan dio. Zerbait kobratu izan dutenek ere, sinbolikoa gehiago izan da beste ezer baino. Hor dauzkagu bertsolariek bizkarreratu duten zama, gai jartzaileen lan oparo bezain astunari aurre egin dion taldea, inoren ahotan egotea askoz onura gehiago gabeko epai-mahaikideen lana, antolakuntza taldearen buruhauste eta ahaleginak gauzak behar bezala bideratzeko, saioak burutu diren herrietako hainbat bertsozale, antolakuntza lanetan murgildurik eta beste hainbat zerbitzutan lan egin duten guztien laguntza ezin bestekoa... Trukean, eskuratu diren emaitzak eskuratu dira.

Eskertu nahi ditugu baitere, saioak burutu diren: Leitza, Gernika, Lausio, Hendaia, Zumarraga, Eibar, Bilbo eta Donostiako Udal eta Euskera Zerbitzuak, eskeini izan diguten laguntza gatik.

Mila esker guzti-guztiei.

**Bertsolari Elkartearen
Arduradun Taldea**

TXAPELKETAREN EZAUGARRIAK

TXAPELKETA NAGUSIAK

- 1.- 1935 - 01 - 20, Euskaltzaleak eta Eusko Gaztedi Elkarteek antolaturik, Donostiako Poxpolin antzokian jokatu zen. **Basarrik** eskuratu zuen txapela.
- 2.- 1936 - 01 - 19, Euskaltzaleak eta Eusko Gaztedi Elkarteek antolaturik, Donostiako Victoria Eugenia antzokian jokatu zen. **Txirritak** eskuratu zuen txapela.
- 3.- 1960 - 12 - 18, Euskaltzaindiak antolaturik, finaleko ekitaldia, Donostiako Victoria Eugenia antzokian jokatu zen eta **Basarrik** jantzi zuen txapela.
- 4.- 1962 - 12 - 30, Euskaltzaindiak antolaturik, Donostiako Astoria antzokian jokatu zen eta **Uztapidek** etxeratu zuen txapela.
- 5.- 1965 - 01 - 1, Euskaltzaindiak antolaturik, Donostiako Anoeta pilotalekuan burutu zen finaleko ekitaldia, **Uztapide** bigarren aldiz txapeldun izendatuz.
- 6.- 1967 - 06 - 11, Euskaltzaindiak antolaturik, Donostiako Anoeta pilotalekuan eman zitzaion txapelketari amaiera, hirugarren azdiz **Uztapideren** buruan txapela jantziaz.
- 7.- 1980 - 01 - 6, Euskaltzaindiak antolaturik, Donostiako Balda pilotalekuan burutu zen finaleko ekitaldia eta Amuriza izan zen oraingoan txapeldun.
- 8.- 1982 - 12 - 20, Euskaltzaindiak antolaturik, Donostiako Balda pilotalekua izan zen finaleko ekitaldiaren topagune eta **Amuriza** izan zen bigarrenenez txapela eskuratu zuena.
- 9.- 1986 - 03 - 23, Bertsolari Elkarteak antolaturik, Donostiako Anoeta belodromoan burutu zen **Sebastian Lizasok** txapela eskuratu zueneko finaleko saioa.
- 10.- 1989 - 12 - 17, Bertsolari Elkarteak antolaturik, Donostiako Anoeta belodromoan burutu zen finaleko saioa eta **Jon Lopategi** izan zen txapela eskuratu zuena.
- 11.- 1993 - 12 - 19, Bertsolari Elkarteak antolaturik, Donostiako Anoeta belodromoan eman zitzaion txapelketari amaiera eta **Andoni Egafña** izan zen txapela jantzi zuena.

TXAPELKETA NAGUSIA 93

Txapelketa honen antolakuntzarako, Bertsolari Elkarteko Zuzendaritza Batzordeak honako talde hau izendatu zuen:

Joxe Ramon Arbe
Laxaro Azkune
Joxe M^a Lejardi
Patxi Larretxea
Joxe M^a Altuna
Jexux Murua
Juanjo Uria
Koldo Tapia

Bederatzigarren partaidea Iñaki Alberdi zen, baina 1993ko Abuztuan zendu zen.

GAI JARTZAILE TALDEA

Gipuzkoko Taldea

Sabino San Sebastian
M^a Asun Oteiza
Joxepa Madariaga
Juan J. Mitxelena
Pello Urretabizkaia
Meltxor Legorburu
Laxaro Azkune
Manuel Olano
Nikolas Zeberio

Bizkaiko Taldea

Joxe R. Arbe
Jose L. Bazterretxea
Bernardo Mandaluniz
Ibon Iza
Iñigo Olabarri
Karlos Ibarzabal
Iñaki Sarriugarte

Nafarroako Taldea

Manu Gomez
Lontxo Aburuza
Aingeru Epaltza
Mikel Taberna

Gaien azken hautaketa taldea

Laxaro Azkune
Bernardo Mandaluniz
Manu Gomez
Jose R. Arbe
Manuel Olano
Nikolas Zeberio

EPAI-MAHAIA

Antton Kazabon
Felix Irazustabarrena
Anton M^a Aldekoa-Otalora
Mixel Itzaina
Luis Baraiazarra
Markel Arizmendi
Joseba Santxo

Ordezkoak

Trino Azkoitia
Rufino Iraola
Jean Pierre Etxegoin

Idazkariak

Joxe M^a Altuna
Iñaki Agirresarobe

Informatika lanetan

Fermin Olaskoaga

AURKEZLEAK

Laxaro Azkune
Bernardo Mandaluniz

LIBURUA / KASETA

Bertso haukeraketan

Rufino Iraola
Trino Azkoitia

Transkribatzailea

Aitziber Altuna

DOINUEN SARIA ETA IZENDAPENA

Juanito Dorronsoro

SINTONIAREN ARREGLOAK ETA GRABAKETA

Iñaki Salvador

DIETAK ETA SARIAK

Azken-laurdenetan: 35.000 pta. bertsolari eta saioko

Final-aurreetan: 90.000 pta bertsolariko

Finala: Txapeldunak 500.000 pta, Txapeldun ordeak: 300.000 pta eta gainerakoak 150.000 pta.

Ordainketa guztiak, P.F.G.Z.ri dagokion %15ko kenketarekin eginak izan dira.

PROZEDURA

Antolakuntza taldea osatu zenean, lehendabiziko lana, bertsolariak txapelketan bete beharreko arautegia lantzea izan zen. Arautegiak barne hartzen zituen: txapelketako taldeen osaketa eta kanporaketa prozesu guztia, izen emateko epea (Apirilaren 26tik Maiatzaren 12ra), saioen egutegia, burutu beharreko lana, ordezkapen sistema, puntuazio berdinen kasua, epai-mahai kideak,...

Epai-mahaiak bere aldetik, Txapelketa hasi aurretik bertsolari guztien esku jarri zuen epailetza lana burutzeko erabiliko zituen erizpideak.

IKUS-ENTZULEAK SAIOMETAN

Azken-laurdenetan

Sarrera salmenta: orokorrak + bazkideak.....	4.848
Gaztetxoak.....	304
Gonbidapen txartelak.....	203
Lan-zerbitzuetako txartelak.....	90

Final-aurreak

Sarrera salmenta: orokorrak + bazkideak.....	3.213
Gaztetxoak.....	113
Gonbidapen txartelak.....	219
Lan-zerbitzuetako txartelak.....	120

Finala

Sarrera salmenta: orokorrak + bazkideak.....	8.782
Gaztetxoak.....	180
Lan-zerbitzuak + gonbidapenak.....	853

Finaleko partehartzaileen lurraldekotasuna (Sarrera salmenten arabera egina)

- Arabatik	84	% 0,96
- Bizkaitik	1.473	% 16,77
- Nafarroatik	249	% 2,84
- Iparraldetik	104	% 1,18
- Gipuzkoatik	6.872	% 78,25

TXAPELKETAKO PARTEHARTZAILEAK

Herrialdetako txapelketetan parte hartu izan duten bertsulerien zerrenda, eta negritaz, Euskal Herri mailakoan parte hartzeko eskubidea lortu zutenak:

Araba / Bizkaia

1.- Ajuria Txabi	Lekeitio
2.- Ajuria Irineo	Muxika
3.- Areitio Juan Mari	Iurreta
4.- Arriaga Jabier <Txiplas>	Errigoitia
5.- Aurrekoetxea Iñaki	Bilbo
6.- Azula Mirari	Lekeitio
7.- Elexpuru Aitor	Markina-Xemein
8.- Elortza Igor	Durango
9.- Enbeita Zigor	Abornikano
10.- Enbeita Abel (2)	Abornikano
11.- Enbeita Jon	Gernika
12.- Gojenola Iñigo (3)	Berriatua
13.- Gonzalez de Durana Rikardo	Oreitia
14.- Ibarra Iratxe	Markina-Xemein
15.- Intxausti Kepa	Igorre
16.- Iturriaga Unai	Durango
17.- Itza Ibon	Igorre
18.- Kastaños Dani	Gasteiz
19.- Larrañaga Gregorio <Mañukorta>	Larruskain
20.- Lopategi Aritz	Gernika
21.- Olabarri Iñigo	Igorre
22.- Omagojeaskoa Jon M.	Gernika
23.- Ormaetxea Unai	Zornotza
24.- Respaldiza Juanjo	Orozko
25.- Serapio Lopez	Ziorraga
26.- Urdangarin Mikel	Zornotza

Gipuzkoa

27.- Agirre Bittor (3)	Legazpia
28.- Aizpurua Karlos	Oiartzun
29.- Aizpurua Felix	Zumaia
30.- Arrieta Agustin <Ibergun>	Azkoitia
31.- Arrizabalaga Jabier <Ziarda>	Elgibar
32.- Azpillaga Bernardo	Errezil
33.- Begiristain Inaxio	Ataun
34.- Egaña Andoni	Zarautz
35.- Eizmendi Juan J.<Loidisaletxe>	Errezil
36.- Eizmendi Jon	Hernani
37.- Elortza Joxe Ramon	Ormaiztegi
38.- Etxabe Xabier <Armendia>	Aia
39.- Etxezarreta Pedro	Segura
40.- Etxebeste Aitor	Oiartzun
41.- Gesalaga Joxe A. <Zaldubi>	Zarautz
42.- Gerriko Juan Ramon	Idiazabal
43.- Igarzabal Eusebio	Gabiria
44.- Iribar Jexux <Olalde>	Zumaia
45.- Izagirre Xanti <Attola-berri>	Azkoitia
46.- Izeta Joxe Mari	Usurbil
47.- Izeta Nikolas	Usurbil
48.- Jauregi Jesus M ^a <Altzo-Txiki>	Zaldibia
49.- Kortaberria Jexux <Kaxeta>	Antzuola
50.- Lasarte Eusebio	Orio
51.- Lertxundi Joxe Mari	Aia
52.- Lizaso Sebastian	Azpeitia
53.- Loidi Arantzazu	Aretxabaleta
54.- Loiola Juan	Mendaro
55.- Lopetegi Jexux	Azpeitia
56.- Lopez Juan Mari	Oiartzun
57.- Maia Jon	Zumaia
58.- Mendizabal Mikel	Itsasondo
59.- Munduate Joxe	Ataun
60.- Murua Iñaki	Gabiria
61.- Narbaiza Juan Mari	Eibar
62.- Narbarte Xabier	Lazkao
63.- Olaizola Manuel <Uztapide II>	Zestua
64.- Otamendi Luis	Zarautz
65.- Peñagarikano Angel M^a	Anoeta
66.- Perez Xabier <Euzkitze>	Azkoitia
67.- Rezabal Martin <Olaso>	Aia
68.- Salegi Joxe A. <Lizarreta>	Lastur
69.- Sarasua Jon (1)	Aretxabaleta
70.- Sarasua Aitor (3)	Aretxabaleta
71.- Sasiain Joxe Antonio	Bidegoien
72.- Sorozabal Jokin	Andoain
73.- Telleria Millan	Albiztur
74.- Urdangarin Jose Luis	Hernani
75.- Usarraga Juanjo	Hernani
76.- Zabala Xantin <Lexo>	Irun

77.- Zeberio Xabier	Ordizia
78.- Zelaia Iñaki	Hernani
79.- Zelaia Koldo	Bidegoien
80.- Zendoia Nikolas	Zarautz

Iparraldea / Nafarroa

81.- Aire Mixel <Xalbador>	Urepel
82.- Amorena Txomin	Zugarramurdi
83.- Argiñarena Joxe Fermin	Errazkin
84.- Argiñarena Joxe Miel	Errazkin
85.- Arzallus Jexux (3)	Hendaia
86.- Arozena Estitxu	Lesaka
87.- Arozena Manolo	Lesaka
88.- Atxotegi Urko (1)	Urruña
89.- Elizagoien Bittor	Arraiotz
90.- Etxeberria Luis	Arantza
91.- Ezponda Txomin	Jatsu
92.- Fernandez Estitxu	Lesaka
93.- Gomez Manu	Iruñea
94.- Harinordoki Jean L.<Laka>	Baigorri
95.- Mendiburu Jean Pier	Heleta
96.- Mihura Fermin	Sara
97.- Olaetxea Iñigo	Lesaka
98.- Olano Antonio	Arano
99.- Silveira Xabier	Lesaka
100.-Telletxea Aitor	Arantza
101.-Telletxea Amaia	Arantza

(1) Euskal Herri mailakoan aukera izan eta parte hartu ez zuena

(2) Euskal Herri mailakoan ordezkotza aukerari uko egin ziona

(3) Euskal Herri mailakoan aurrekoen faltan ordezkotzan sartu zirenak

(4) 89ko txapelketan finalista izan eta Euskal Herri mailakoan parte hartzeko eskubidea izanagatik, parte hartu ez zutenak: Jon Lopategi eta Imanol Lazkano.

SAIOAK ETA HERRIAK

AZKEN-LAUDENETAKO SAIOAK

(azpimarratuak sailkatzen dira)

Saio Guztiak igande eta jai eguneko arratsaldean jokatu ziren

LEITZA, Urriak 31

Joxe R. Elortza, Iñigo Gojenola, **Unai Iturriaga**, Joxe M^a Lertxundi, **Juan M^a Lopez**, Jean Pier Mendiburu, **Angel M^a Peñagarikano**, **Jokin Sorozabal**

GERNIKA, Azaroak 1

Bittor Agirre, Mixel Aire <Xalbador>, Juan M^a Areitio, **Manolo Arozena**, **Jon Enbeita**, **Iñaki Murua**, Juanjo Respaldiza, Joxe Angel Salegi <Lizarreta>

LAUDIO, Azaroak 7

Andoni Egaña, Bittor Elizagoien, Jon Maia, **Mikel Mendizabal**, Joxe Munduate, Jon Mikel Omagojeaskoa, Joxe Luis Urdangarin, **Xabier Zeberio**

HENDAIA, Azaroak 14

Irineo Ajuriagojeaskoa <Ajuria>, **Jexux Arzallus**, **Igor Elortza**, Jexux Iribar <Olalde>, Gregorio Larrañaga <Mañukorta>, **Sebastian Lizaso**, **Aitor Sarasua**, Amaia Telletxea

ZUMARRAGA, Azaroak 21

Estitxu Arozena, Juan Joxe Eizmendi <Loidisaletxe II>, Kepa Intxausti, **Aritz Lopategi**, **Xabier Perez <Euzkitze>**, Martin Rezabal <Olaso>, Juan Antonio Sasiain, Millan Telleria.

FINAL-AURREAK

EIBARREN goizez / **BILBON arratsaldean**
(Abenduak 5) (Abenduak 8)

J.Arzallus, **J.Enbeita**, **Euzkitze**, **S.Lizaso**, Juan M^a Lopez, M.Mendizabal, **J. Sorozabal**, X. Zeberio.

EIBARREN arratsaldean / **BILBON goizez**
(Abenduak 5) (Abenduak 8)

M. Arozena, **A. Egaña**, I. Elortza, **U. Iturriaga**, **A. Lopategi**, I. Murua, **A. M^a Peñagarikano**, A. Sarasua.

FINALA

ABENDUAK 19 Donostiako Belodromoan

A. Egaña (txapeldun), Euzkitze, S. Lizaso, U.Iturriaga, J. Sorozabal, J. Enbeita, A.M^a Peñagarikano, A. Lopategi

Bertsolariak	Azken-laurdena	fin-aurr goiza	fin-aurr arratsal	finala
A. Egaña	743,5	666,5	671	1399
Euzkitze	732,5	615,5	631	1330
S. Lizaso	744,5	658	652	1317,5
U. Iturriaga	712,5	634,5	616	1314,5
J. Sorozabal	715,5	635,5	635	1301
J. Enbeita	695	633	611,5	1273,5
A. M ^a Peñagarikano	718	640	630	1255,5
A. Lopategi	681	613,5	632,5	1218,5
I. Elortza	689,5	637	603	
I. Murua	760	640	598	
M. Mendizabal	685,5	608	628,5	
A. Sarasua	694,5	640	603,5	
J. Arzallus	691	580,5	592	
X Zeberio	660,5	561,5	588	
M. Arozena	656	562	573,5	
J. M ^a Lopez	650	552	537,5	
Respaldiza J.J.	649,5			
Loidisaletxe II	649			
A. Telletxea	646			
J. Munduate	643,5			
J.R. Elortza	642			
Olalde	641			
J.P. Mendiburu	638,5			
M. Telleria	638,5			
J.M ^a Lertxundi	636			
J.L. Urdangarin	636			
I. Gojenola	632			
B. Elizagoien	632			
I. Ajuria	632			
J.M ^a Areitio	631,5			
J. Maia	630,5			
Olaso	625,5			
E. Arozena	620			
Lizarreta	615			
K. Intxausti	613			
J.M. Omagojeaskoa	512			
B. Agirre	610,5			
Mañukorta	605,5			
J.A. Sasiain	602,5			
Xalbador II	578			

BERTSOLARIEK BURUTUTAKO LANA

Azken-laurdenetan (15na bertso)

8ko nagusian 3na bertso ofiziotan,. 8ko txikian 3na bertso ofiziotan. Puntua eman da 2na bertso 8ko txikian. Bukaerako Errima/hitza eman da bertso bana 8ko nagusian. 10ko txikian 3na bertso ofiziotan. Kartzelako lana: 3na bertso, doinu eta neurri librean, aukeran emandako bi gaitatik bati buruz.

Final-aurreak (26na bertso)

Goizez: 8ko nagusian 3na bertso ofiziotan. 10ko txikian 3na bertso ofiziotan. 8ko txikian edo nagusian (bertsolarien aukera izango da neurria) 4na bertso gai bati buruz elkarrizketan. Kartzelako lana: 3na bertso, doinu eta neurri librean, bi gai aukeran eman eta bati buruz.

Arratsaldez: 8ko txikian 4na bertso ofiziotan. Bakarka: bukaerako Errima/hitza eman da bertso bana 8ko nagusian; lehen puntua jarrita 2na bertso 8ko txikian eta gai bati buruz 3na bertso. Kartzelako lana: ofiziotan 3na bertso 10ko txikian edo nagusian (bertsolarien aukera izango da neurria).

Finala (26na bertso)

Goizez: 8ko nagusian 4na bertso ofiziotan. Bakarka: lau oinak eman da 8ko txikian bertso bana; lehen puntua eman da 8ko txikian bertso bana eta gaia/hitza eman da, 9ko txikian bertso bana. "Haizak hi mutil mainontzi" doinuan 3na bertso ofizioan. Gaia eman da 3na bertso doinu eta neurri librean.

Arratsaldez: 10ko txikian edo nagusian (bertsolarien aukeran) 3na bertso elkarrizketan gai bati buruz. 8ko txikian 4na bertso ofizioan. "Iparragirreraren doinuan" 3na bertso ofizioan. Kartzelako lana: 3na bertso, doinu eta neurri librean, bi gai aukeran eman eta bati buruz.

PUNTUAZIOEI BURUZKO OHARRA: Liburu honetako bertsoen ondoren argitara ematen diren puntuak, kasu guztietan, epai-mahikoen ordena honi dagozkio ezkerretik eskumara:1- Antton M^a Aldekoa-Otalora, 2- Markel Arizmendi, 3- Luis Baraiazarra, 4- Felix Irazustabarrena, 5- Mixel Itzaina (Final Aurreetan Jean Pierre Etxegoin), 6- Antton Kazabon eta 7- Joseba Santxo.

AMAIKA DITXO EDER...

HORMA GAINEKOAK

Hamaika ditxo eder aurkituko du Txapelketa Nagusiko bertso-osin honetan murgiltzen denak. Alabaina, piszinara itsumustuan salto egin eta txarrik gerta ez dakigun, horma gainetik, piskanen-piskanen, hasten gara giroan sartzen: aurrena eskuarekin ura probatu, gero hankamuturrarekin ikutu... Era berean, liburu honen putzuak ezustean harrapa ez zaitzan, irakurle, murgildu aurretik "horma gainekoa" zeremoniatik hastea hobe.

01.- Materialea inprimategirako gaitu bazen, aldeztu aurretik hautaketa zegoen egin beharra, ez baita posible (komeni ere?) bertso guztiak argitaratzea. Trino Azkoitia adiskide zaharra izan dut bidelagun egiteko honetan. Parada aparta izan dugu aukera-aukerako distantziatik bertsoak dastatzeko: epaimahaiak eskatzen duen bezainbateko zorroztasun premiarik gabe, bai entzule arruntak behar duen baina arreta handixeagoz. Beste kontu bat da distantzia horri behar ainako etekina ateratzen jakin dugun ala ez.

Saiatu, saiatu gara. Bertsoen kalitatea edo maila erabili dugu neurri eta irizpide nagusitzat. Horrek ez du esan nahi, inolaz ere, kanpoan bertso onik geratu ez denik, izan ere saio osoak ekarri ditugu hona eta erraz gerta litekeena da, hagitz bertso txarrik ez sartzearen, saio bereko txit onen bat sailetik at geratzea. Baita lagunaren bertso maila kaxkarraren kulpaz bakarren baten bertso onak ez sartzea ere. Hori bai: finaleko saioa, oso-osorik, barrurako da.

02.- Hautaturiko bertsoak transkribatu egin behar ziren gero; zintatik liburura pasa, alegia. Aitziber Altuna egin zuen lan hori eta Elkartek hala eskaturik, neure gain eta neure esku egon da azken orrazketa eta idatz-arauak ezartzea. Egia esan, bapateko bertsoak paperean zeharaldatzea komeni ote den dudan egon naiz zenbait momentutan, ez baita uste bezain lantegi erraza. Haatik, betidanik egin dela pentsatzeak lasaitzen ninduen, piska bat baino gehiaxeago ere.

Zailtasun eta ezusteko asko sortzen dira eta nahi baino maizago, gainera, aukera. Bertsoaren joskera, joskura eta intentzio aldetik, pentsa litekeen baino anbiguotasun ugariago azaltzen da frankotan, eta interpretaritza egin beharra ez da biziki gustagarria, beti ez behintzat.

03.- Fonetika arazoak ere hor daude, nolaz ez?, bizi-bizi eta gorri-gorri. Lehendik finkaturiko gauza asko daukagu, baina Euskaltzaindiak emandako gomendio berriak ere aintzakotzat hartu nahi izan ditugu. Bestalde, ahalegindu gara eta zintzoen errespetatzen.

Orohar, bertsolariak esaten duen bezalaxe transkribatu dugu. Esan eta idatzi berdin egiten diren kasuetan ez dago problemarik: "ein", "bate", "zun", eta abar idatziko ditugu. Badira, ordea, Euskaltzaindiaren aginduz era batera idatzi eta beste modu batera ahoskatu beharrekoak: " ez ziren" - "etziren"; "ez nuke" - "enuke". Kasu hauetan "ez ziren" eta "ez nuke" idatzi dugu.

"Bait" partikulak, azkeneko gomendioen arabera, aditzari erantsita joan behar du, eta aldaketa fonetikoak, ahoz nahiz idatziz, markatu egin behar dira. Adibidez, "baiata" esan eta idatzi behar da berez. Bertsolari batek, ordea, "baida", "baidu" eta abar txitean pitean erabiliko dizkigu. Kasu hauetan bertsolariak esanda bezala transkribatu dugu. Beraz, batzuetan "baita" eta beste batzuetan "baida" azalduko da; hori bai: beti aditzari atxikirik.

"Etorriz gero"/"etorri ezker" da beste puntuetako bat. Kasu honetan, bertsolariak esaten duen bezala dago jarri beharra, bion artean silaba baten aldea baitago eta neurriak behar du lehentasuna. Baina "joanez gero" eta "joan ezker" neurrian berdinak dira. "Joanez gero" ere, esan "joan ezker" esan behar dela jakinik, kasu honetan beti idatzi dugu. Era berean, bertsolariak "etortze ezker" ahoskatu duenean, neurri kontuan eraginik ez duenez, "etortzez gero" ipini dugu.

Tartean "H" daraman hitza diptongo bezala nahiz hiato moduan ahoska litke: "nahi", silaba bakarrean; ala "na-hi", bitan. Kasu hauetan "h" ezarri egin dugu; orain arte ere horrela egin izan da.

Azkenik, bi bokal berdin (gogo?) elkarren ondoan doazenean, aukera osoa dago silaba bakar batean ebaki ala bi egin. Kasu hauetan ere osorik idatzi dugu hitza: "nuken" ez, "nukeen" baizik.

04.- "Amaika ditzo eder..." jarri diogu izen burua, Udarregiren hura gogoratu, eta, benetan, ditxo eta lore eder asko izan da aurtengo txapelketan. Besteak beste, gogoangarria da finalak izandako maila altua, batez ere txapeldunak eskainitako saio bikaina. Arrakasta handia izan du txapelketak, bai, eta hori aldeztu aurretiko lanaren fruitu izan ohi da hein handian. Antolakuntza orokorrean ibili den taldeak pulamentuz bete du bere egitekoa. Gai jartzeari dagokionez, ezin esan ahalako lana egin dute horretan jardun dutenek, berrikuntza eta gusti. Adibidez, azken errima emate hori arrakastatsu suertatu da; eta bakarkako lanetarako bi gai emateak ere, denak bat ez datozen arren, sortu du interesa. Bertsolariak elkarriketara

behartzearena izan da bestea. Batzuetan bertsolariak joko horri muzin egin badiote ere, ez dago gaizki pentsatua. Epaimahaiarena honelaxe laburbilduko nuke: hasieran eginiko prestaketa lana, tartean autokritikarako burutu dituen bilerak eta, batez ere, finalean emandako batasun irudi positiboa.

05.- Azkenik, gomendio bat baizik ez zait geratzen: bertso hauekin gozatu nahi baduzue, zenbait kasutan bederen, astiro-astiro eta pentsatuz irakurri, estilo oso diferenteak dastatzeko paradarekin batera, izkutu samarreko perla ederrik aurkituko duzue eta. Debate premia aipatu da. Ni ere baietzean nago; eta horra nik bigarrea, hirugarrena edota ez dakit zenbagarren harria bota; baina lasai, ez dut eskua ezkutako asmorik eta.

Rufino Iraola

AZKEN-LAUDENETAKO
1. SAIOA

LEITZA

1993 - 10 - 31

Peñagarikano

Hasierako agurra

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Nafarroako mendi gainetan

Leitza aldera etorri eta
gertatu zaidan kasoa:
neuk bota behar txapelketako
lehenbiziko bertsoa!
"Urduri nago" esanez ez det
botako bertso zozoa.
Klasifikatu egin nahi nuke
ez det izan nahi faltsoa.(bis)

Peñagarikano

Rima/Hitza: **JULIO**

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Hara nun diran mendi maiteak

Bakar batzuek ikusten ditut
orain serio-serio,
nunbait hau berba haundia da ta
jaunak, zer erremedio!
Hau kantatuta orain jendeak
tankera emango al dio...
Chabeli asko maite det, baina
ez bere aita Julio.(bis)

8 - 7,5 - 8 - 7,5 - 7,5 - 8,5 - 9 = 56

J.M^a.Lopez

Rima/Hitza: **HESIA**

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Hara nun diran mendi maiteak

Euskal Herriko egoera hau
ez al daukagu nahasia?
Askatasuna guk euskaldunak
daukagu irabazia.
Lehendikan ere makila zer dan
ongi degu ikasia;
denon artean hautsi dezagun
jartzen diguten hesia (bis)

7 - 8 - 7,5 - 7 - 8 - 8,5 - 6,5 = 52,5

Lertxundi

Doinua: Xarmangarria

Puntua Induraintzat zaila
datorkion tourra.

Lertxundi Berak'e hartu emen du
eundoko bildurra.
Horren aurrean baldin
jotzen badu lurra,
hurrengon egingo du
betiko agurra.

6 - 6,5 - 5,5 - 6,5 - 5,5 - 7 - 6,5 = 43,5

GARTZELAKO LANA

1. GAIA: Lapurra zara ofizioz. Gaur emakume dotore bati poltsa ostu diozu. Une honetan txoko batean poltsa miatzen ari zara.

2. GAIA: Herri txiki bateko jai batzordekoa zaitugu. Urtero bezala, lan mordo bat egin duzu aurtengo jaiak aurrera ateratzeko ere. Jaiak bukatu dira eta etxera zoaz bakarrik.

U. Iturriaga

GAIA: lehenengoa

Neurria: berezia

Doinua: Leiho ertzetik entzun dezaket

Kal ean zehar ikusi eta
esan dut: "Hauxe da presa!
Emakume horrek eman behar dit
hilabeteko babesa".
Lana azkarra izan bada ere
ez zen ez bate erreza,
baina bete da amesa;
berak pena hartu beza.(bis)
Miatzen hasi ta gutxienez
lau tanpoi ta hiru konpresa;
itxura onak bazeuzkan, baina
bere poltsa ezereza.(bis)

Gure andrea hantxe zijoan,
hortik, dotore-dotore:
larruzko gona eta txamarran
bazituen hiru doble.
Pentsatzen nuen: "horren barruan
zerbait beharko du gorde";
baina saiatuta ere
naiz ezerezaren jabe.(bis)
Sekula santan ez naiz izan ta
orain ere berriz pobre;
gaztainak saltzen zegon atsoai
ostuta askozaz hobe.(bis)

Harro joan naiz ta bularrean
nere haiztoan kolpea.
Laster aurkitu dut paparrean
jertseak zeukan topea.
Eskatu diot zeukan guztia,
eskatu diot dotea;
eta haren ematea
joan zait nahiko merkea.(bis)

Kostatu egin zait, kostatu ere,
bebingo batez ikastea
gauza bat dala itxura eta
beste bat dala izatea.(bis)

23,5 - 23,5 - 25 - 24 - 23,5 - 23 - 26,5 = 168,5

U. Iturriaga

Bukaerako agurra

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Nafarroako mendi gainetan

Usoen kaka lehenengo eta
gero "*La Gaceta*" zala;
gaurkoan behintzat joan da nahiko
failo-zerrenda zabala.
Gure Elortzak jestikulatu
ta esango lukeen bezala:
"Agur guztioi, ta epaimahaiak
nahi duna egin dezala".

AZKEN-LAUDENAK 2. SAIOA

GERNIKA

1993 - 11 - 1

Lizarreta

Hasierako agurra

Neurria: 10eko nag.

Doinua: Mutil koxkor bat itsuarreko

Marmarka ikusi det gaur jendea
Lizarretai begira ta,
nere kolore beltz-urdin hauek
nerbionak dirala ta.
Ondarrutikan barrena nator
nerbioak hainbat lata;
kilometroko ehunda hogei bat
buelta egongo dira ta,
autotxoketan ibili ohi naiz
kurba gutxigo pasata.(bis)

B. Agirre - Murua

GAIA: Agirre futboleko entrenatzailea dugu eta Murua futbolaria. Garai batean futbolaria honen premiarik ez eta Agirrek, libre utzi zenuen Murua. Gaur egun ordea bere premian zaude eta fitxatu egin nahi zenuke.

8ko nagusian ofiziotan

Doinua: Txoriak eta txoriburuak

B.Agirre

Lehenago nola jakinak geran
gu biok alkarren berri...
Nere ondoan lana egina
zaude zu lehen ere sarri.
Berriro ere nere taldera
nahi zinduzkat nik ekarri
ta galdera bat egiten dizut:
"nahi al zenduke etorri?"(bis)

Murua Bartzelonan gaur puntakoetan
oso preziatua nago;
zure ondotik ostikoz jota
bota ninduzun lehenago.
Erabat tonto jokatu ezker
ordaindu beharra dago.
Etorriko naiz, emaitzidazu
ehunda hoge miloi gehiago.(bis)

B. Agirre Tratu hori ezin leike egin
gaur inolaz ere kantari;
garesti xamar iruditzen zait
gaur zuk dadukazun plantan.
Hitzeingo degu biok guk lasai
gero diru kontu hortan:
liga etatzen badeu ez zageauko
zu miloi horien faltan. (bis)

Murua Ailper-ailperrik egiten dezu
aspergarrizko jarduna.
Aberastu naiz, ospetsu egin
Bartzelonaraino juna.
Postu bat daukat ta gainera Cruyf
egin det guztiz laguna.
Berrero aurten izan nahi nuke
Europako txapelduna.(bis)

B. Agirre Era horretan hitzegiteko
azala du oraindik;
nik utzi eta beste batena
juan zinaden korrikan;
gure etxean ere ez zundun
lana eginaren faltikan.
Diruagatik baldin bazatoz
ez det lapur beharrikan.(bis)

Murua Kirol honetan jadanik ez da
dirua ez dan besterik;
zure ondoan ez det izango
oso pozik jokatzetik.
Nahi ez badezu lehen merke zana
orain garesti hartzetik,
beste batean ez zazu egin
holako hankasartzetik.(bis)

AGIRRE: 15 - 18 - 16 - 15 - 17 - 17 - 15,5 = 113,5
MURUA: 21 - 20,5 - 20 - 20,5 - 19 - 21,5 - 22,5 = 145

Enbeita Seme, eman didazu
nahiko atsekabe;
zure aitari hoba
hitzegin suabe.
Lehenago egin banintz
kotxearen jabe,
zu geldituko zinan
motorikan gabe.(bis)

Respaldiza Bera berean dago
ekin eta ekin;
guzurra esan du ta
nik onartu ezin.
Aita, lehenbailehen hauxe
behar duzu jakin:
hau erosita dago
neure diruakin.(bis)

ENBEITA: 14 - 17,5 - 16,5 - 15 - 18 - 17 - 18 = 116

RESPALDIZA: 19 - 18,5 - 18 - 18 - 18,5 - 20,5 - 22 = 134,5

Areitio - B.Agirre

GAIA: Areitio, aitona; eta Agirre, biloba zarete. Biok
elkarrekin entzun duzue gaueko 8etako partea edo
albistegia. Bertan esan dutenez, hemen, berehala,
egundoko lurrikara omen dator. Aitona errosarioa
errezatzen hasi da. Biloba, beti bezala, beheko
tabernara doa.

8ko txikian ofiziotan
Doinua: Lurralde dena dabil

Areitio Notizi txarrak datoz
gure kalterako;
gaur hemen zelakua!,
esaera baterako.
Bizirik ez gerade
inor aterako;
prestatu beharra da
beste mundurako.

B. Agirre Laister degu mundua
 guretzat lur joa;
 alperrik da errezoa
 baita ere lujoa.
 Oin arte pasa degu
 bizitza majoa...
 Ni nere lagun zaharrak
 agurtzera noa.

Areitio Iloba hau ikusteak
 nola ez eman penik?
 Honek ez du pentsatzen *
 beste munduik danik.
 Gaizto samarra zera,
 lehendik antzemanik;
 notizi hau ez pentsa
 gaur gezurra danik.

B. Agirre Momentua heldu da
 oso serioa:
 hil beharra guk laister
 hau kalbarioa!
 Munduai egin behar
 orain adioa;
 aitona, zertako da
 errosarioa?

Areitio Errosarioaz zuk
 hainbeste zalantza,
 nahio dozu tragoa
 jolas eta dantza,
 baina etorri zaigu
 oso berri latza;
 nik beste mundurako
 daukat esperantza.

B. Agirre Beti izan gera
 geroko horrekin,
 zer etorkizun dagon
 nahiz inork ez jakin.
 Azken arnasa eman
 zagun alkarrekin;
 trago bat egitera
 etorri nerekin.

AREITIO: 13,5 - 16,5 - 16,5 - 14 - 15,5 - 16 - 16 = 108
AGIRRE: 18,5 - 19,5 - 18,5 - 18,5 - 17,5 - 20,5 - 22 = 135

M. Arozena

Buka.errima: **PARRANDA**

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Beste bateko inularretan

Ilunabarren aldegiten dut
"agur, emazte", esanda,
herririk-herri egin nahaiean
bertsoaren propaganda. *
Orain nerekin aspertu da ta
etorri da bere txanda;
gizona txintxo etxean dago
eta andreak parranda.(bis)

7 - 7,5 - 7,5 - 8 - 7,5 - 8 - 8 = 53,5

Lizarreta

Buka. errima: **ERROMES**

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Eguna pasa nekean eta

Fede santuan barruan nago
maitasunikan onenez;
adin gaztea eta gorputza
daukat oso sasoi onez.
Urten zehar egiten ditut
nik ez dakit zenbat promes!
Donostitikan Itziarrera
etorritzen naiz erromes.

6 - 6,5 - 6 - 6 - 5,5 - 7 - 6,5 = 43,5

Murua

Doinua: Xarmangarria zera

Puntua Juradua daukagu
 serio xamarra.

Murua Eskarrak asko dauden
 eta ez bakarra.
 Hoiek jartzen didate
 eundoko daldarra:
 ondo bereiz zazue
 ona eta txarra.

$8,5 - 8 - 7 - 7,5 - 8 - 8 - 7,5 = 54,5$

Xalbador II

Doinua: Xarmangarria zera

Puntua: Ez digu lorik kentzen
 auzoko negarrak...

Xalbador II Pozten direnak ere
 badira bakarrik.
 Ez ditzagun guk hortan
 nekatu indarrak
 eta ez gaiten izan
 horren lagun txarrak.

$6 - 6 - 5,5 - 6 - 6 - 6 - 6 = 41,5$

Areitio - Murua

GAIA: Baserri bateko ama-emeak. Areitio, ama; eta Murua,
 semea. Semeak, oporretan kalean, bere lehengusuen
 etxean pasa du hilabete. Hilabete hori pasa denean ama
 etorri da semearen bila baina honek ez du baserrira
 itzuli nahi.

10eko txikian ofiziotan
Doinua: Ai gure antzinako

Areitio Nola heldu liteke
 honako trantzera?(bis)
 Nere amets guztiak *
 ein dabe atzera.
 Sarri joan naiz semea
 pozik laztantzera...
 Maite zaitut ta erdu
 amaren etxera,
 bestela seme galdu
 bat izango zera.(bis)

Murua Ez naiz hemendik juango,
 hori lehenbizi;(bis)
 zenbat gauza daukaten
 hona esaten hasi:
 telebista liteke
 patxaran ikusi,
 sukaldea ez dago
 han bezain itxusi
 eta dutxa daukate
 ur bero eta guzi.(bis)

Areitio Seme honek eman dizkit
 sekulako lanak;(bis)
 kalean bizitzeko
 ditu bere planak.
 Bizitza ona ikusiz
 zelako afanak!
 Azkar ahaztuak ditu
 amaren laztanak.
 -Hori egiten du seme
 zintzoa ez danak-.(bis)

Murua Zintzo edo gaiztoa
 ez nago pentsatzen.(bis)
 Goizeko hamaikak arte
 ni ez naiz esnatzen;
 hamabiak artean
 ez degu lo hartzen
 ta hala ere inor
 ez da nekin sartzen;
 gainera ikasi det
 "Ducados" erretzen.(bis)

Areitio Oso ondo bizi dala
 Ducadoak errez...(bis)

Ama tristuraz eta
semea irriparrez;
mundu hontan horrela
gabiltz zoritxarrez.
Txorakeriak utzi
ta etorri mesedez;
ama laztana ez zazu
eduki negarrez. (bis)

Murua

Ama, barka zaidazu
gauza hau esatea:(bis)
gainera bilatu det
neska bat maitea:
pottola ta polita,
kartera betea.
Nahiz ta zabalik egon
baserriko atea,
kostako zaizu berriz
ni hara joatea.(bis)

AREITIO: 20 - 20,5 - 21 - 18,5 - 20 - 21,5 - 21,5 = 143

MURUA: 21 - 21,5 - 22 - 22,5 - 21 - 22,5 - 23,5 = 154

M. Arozena - J. Enbeita

GAIA: Zuek biok sarean eroritako bi arrain zarete. Arozena,
haundia zarelako, kajara bota zaituzte; eta zu,
Enbeita, neurririk ematen ez duzulako, berriro uretara.
Elkar agurtzen.

10eko txikian ofiziotan
Doinua: Espanian behera

M. Arozena

Erabakita dago
hemengo auzia,
nahiz eskapatzen egin
ahal dugun guzia.
Zu txikia zerade
ta ni berezia;
agurtutzeko hauxe
da une gazia;
behintzat zuk ez daukazu
nire desgrazia.(bis)

J. Enbeita

Barkatu, ene lagun,

hola esatea,
baina harrokeritan
zenbiltzan betea:
zeu zinan haundia ta
zeu zinan fuertea!
Baina gaur tokatu zait
aske izatea.
Txikiak ere noizbait
behar du suertea!(bis)

M. Arozena

Libre uzteak ez du
hor hainbat meritu,
hala ere pozez zaude
ta ez naiz harritu.
Oraindikan neurrian
ez zera aurkitu
eta sare bat nola
arraiak gainditu?
Gizonaren indarrak
hondatuko zaitu.(bis)

J. Enbeita

Gizonaren indarrak
dakar mila nahaste
eta arraiantzako
hainbat buruauste.
Edonoiz erortzeko,
nahiz ta hala ez uste,
nigan gerta liteke
zuregan hainbeste;
baina oraingoz behintzat
utzi naute aske.(bis)

M. Arozena

Biek arraiak gera
hori nabarmena...
Libre zeradelakotz
ez dut hartzen pena,
bainan ez pentsa eginda
daukazunik dena;
etorkizunen hartu
zuk itxaropena
eta ez hazitzeko
ein zak rejimena
(eta ez hazitzeko
egin rejimena).

J. Enbeita

Saretik egin duzu
hainbeste deadar;
badaezpadan banoa

igerian azkar,
alperrik baita hemen
egitea negar.
Gaur erori ez dena
jausi leike bihar,
eta bien tartean
bizi egin behar.(bis)

AROZENA: $19 - 18,5 - 18,5 - 19 - 19 - 19 - 21 = 134$

ENBEITA: $19,5 - 21 - 20,5 - 20,5 - 20 - 20,5 - 22,5 = 144,5$

GARTZELAKO LANA

1. GAIA: Langile bat zaitugu. Zure enpresak proposamen hauxe
luzatu dizu: Hemendik aurrera, astean egun bat
gutxiago lan egin, eta soldata ere horren arabera.

2. GAIA: Gurasoak kanpoan direla aprobetxatuz, neska-laguna
hartu eta etxera joan zara. Atea irekitzen hasi eta
giltzak falta.

Murua

GAIA: Bigarrena

Neurria: 10eko nag.

Doinua: Mutil koxkor bat itsuaurreko

Egun batean ezagutu ta
ia-ia egin andregai;
azkenerako nik nahi nuenai
behingoz esan zenion "bai".
Etorri naiz ta -etxeke giltza
non ote daukat? Galdu, ai!-
Ta neska lagun bihotzekoa
dago aldamenean zai.
-Maitasunaren giltza badaukat
eta egon zaitez lasai-.(bis)

Nahiz ta hotz egin lur zabalean
horrelako urtaroan,
zer ajola du bihotza bada
berotasun oparoan.

Atea itxirik ta besteik gabe
ez daukagu nora joan,
hala ta guztiz nik maite zaitut,
hori eduki gogoan:
neri berdin zait ohean egin
edota intxaurrondoan.(bis)

Liluratuta jarria nago,
horra neskatxa garbia!
Besterik ezer ez dut ikusten,
zure begien argia.
Intxaurrondoan egingo degu
maitasunaren habia:
orijinala, romantikoa...
Hori ere da egia!
Hola sekula ez degu ahaztuko
gure lehenengo aldia.(bis)

27 - 22,5 - 23 - 23 - 22 - 23,5 - 24 = 165

Areitio

Bukaerako agurra

Neurria: berezia

Doinua: Urruti nere menditik

Bertso batzuek alaiak
beste batzuek tristiak, (bis)
baina guztia estimatzen du
gure entzule amestiak:
-Agur, Gernika maitia;
agur, entzule guztiak-

AZKEN-LAUDENETAKO 3. SAIOA

LAUDIO

1993 - 11 - 7

X. Zeberio

Hasierako agurra

Neurria: 10eko nag.

Doinua: Mutil koxkor bat itsuaurreko

Astera nua bertso kantari
Laudion zirti ta zarta!
Paisajea ere ikusi degu,
goizez etorri gera ta:
badaude, jaunak, pipar soroak,
erremolatx ta patata;
bainan Araban eman digute
animaliaren planta:
azkenen, "Granjan" kantatutzea
besterik ez gendun falta!

Mendizabal - Munduate

GAIA: Zuek aita-semeak zarete. Mikel (aitak), pagarik gabe utzi duzu Joxe semea, nota txarrak atera dituelako. Gaur, semea, itxulapikoa puskatzen harrapatu duzu.

8ko nagusian ofiziotan

Doinua: Nafarroako mendi gainetan

Mendizabal

Estudiatzen alfer samarra
agertu zera nabarmen;
pagarik gabe utzia zaitut,
seme, gauz horren ondoren.
Inpotentziak, orain azkenik,
harra zer gauza dakarren!:
beste zigor bat eman behar dizut
eltxetxua haustearren (bis)

Munduate

Bi nota alu nahikoak dira
mutil jator bat nahasteko;
gogoa beti izandu det nik
eskolan ondo ikasteko.
Gaur arrazoiak mila baditut

diru-ontzia hausteko:
diru piskaten beharra daukat
zoritxar danak ahazteko.(bis)

Mendizabal Gaurtik aurrera zoritxar hori
ez da izango laburr;
zure ekintza iruditzen zait
zitala eta makurra;
eskolan zera alferra eta
etxean marka hori urra:
peligrosoa izan daiteke
etxe barruko lapurra.(bis)

Munduate Zorigaiztoak milaka ditut
aldegin gabe buruan
ta gazte batek egoera txarrak
izaten ditu munduan...
Baina zu orain ez zaitez hasi
gizon justuen moduan;
zuk ere, aita, nere garaian
berdin egingo zenduan.(bis)

Mendizabal Gure garaian ez zan dirurik
eta orain hola gaude.
Semea, entzun; eman behar dizut
zertxobaiten nobedade:
alde batetik pagarik gabe
eta gainera, bestalde,
hilabetean egongo zera
etxetik atera gabe.(bis)

Munduate Zu ez zerade horrelakoa;
mintzatu zaitez xuabe,
pagarik gabe gelditze hori
ez dalako nobedade.
Neroni ere nere barruan
aurkitzen naiz nahiko grabe,
ta okerrago egon behar naiz
zure laguntzarik gabe.(bis)

MENDIZABAL: 18,5 - 19 - 19,5 - 19,5 - 20 - 20 - 20,5 = 137

MUNDUATE: 18,5 - 19 - 18,5 - 18,5 - 18,5 - 19,5 - 19 = 131,5

Egaña - Mendizabal

GAIA: Andoni eta Mikel, biok parlamentariak zarete. Lege Biltzarrean, Andoni bere hitzaldia egiten ari da. Mikel, berriz, bere eskainuan lo seko dago.

8ko txikian ofiziotan
Doinua: Kantatzera nijoa

Egaña Lo zorroa zeneukan
 burura ioa.
 Lehen egunkaria zen
 zure bizioa;
 orain lo hartu dezu,
 lagun sozioa.
 Hau da egun daukagun
 oposizioa!(bis)

Mendizabal Butaka bat azpian,
 jarri naiz graduan;
 almuada bat falta zait
 oraintxe, onduan!
 Hitzaldi horrekin nago
 aspertu moduan,
 joan zan astean ere
 hoi bota zenduan.(bis)

Egaña Mintzaera aldetik
 ez nabil hain plako;
 diskurso honek badu
 majina bat kako;
 lehengo berdina dela
 argitu beharko,
 lehengo astean ere
 zu lo zeundelako.(bis)

Mendizabal Lehengo astean loa
 hartu zendun tope,
 nere hitzalditxo
 gendula bitarte;
 eta aste hontan nik

zuretzako kalte;
beraz aurkitzen gera
oraintxe enpate.(bis)

Egaña

Azaña baten gisan
ari naiz jo ta su;
zuri mintzatze hutsa
nahiko enbarazu.
Hankak zabaldu eta
zurrunkan zaude zu,
zeri ez dakizula
botatuko dezu.(bis)

Mendizabal

Ni zurrunka ari naiz
patxara ederrean,
zerrori're ez zaude
oso indarrean:
lo hartuko zenduke
modu azkarrean,
telebista kamara
ez balego aurrean.(bis)

EGAÑA: 21 - 21,5 - 20 - 21,5 - 21,5 - 22 - 22,5 =150

MENDIZABAL: 15,5 - 19,5 - 18 - 17,5 - 19,5 - 18,5 - 19,5 = 128

J. L. Urdangarin - X. Zeberio

Gaia: Jose Luis, lehendakaria zaitugu; eta Xabier, bere
sukaldaria. Joan deneko 10 egun hauetan, sukaldariak,
angulak jarri dizkizu bazkaltzeko, egunero.

8ko txikian ofiziotan
Doinua: Nere senarrarekin

J. L. Urdangarin

Egunero hor nabil
bazkarian eske,
ta sukaldaria're
hor dabil jo ta ke!
Egunero angulak,
hau posible ote?
Ta ekonomia gaizki
doala diote.(bis)

X. Zeberio Nik ez dizut jarritzen
otordu aldrebasa,
zu ondo mantentzea
da nere ametsa.
Egunero angulak
zenbat gazi-geza!
Zurekin asmatutzen
ez dago erreza.(bis)

J.L. Urdangarin Honek egin duena
hau da hau eztanda!
Azkenerako, tranpa
zirudina, ganga.
Bainan iritxia da
egiaren txanda:
"Gulak" ekartzen dizkit
angulak esanda.(bis)

X. Zeberio Iriki behar ditut
hiru-lau bat lata,
ia aldatutzen dan
zure tonto planta;
bestela jarriko'izut
lau porru patata,
egite'zunagatik
nahikua da ta
(nahikua da eta).

J.L. Urdangarin Kritika botea dit
oso modu alaiz,
bainan horrelakoak
entzunak ditut maiz;
ni're kolaboratzen
hasiko naiz garaiz:
mariskua janda're
konformatuko naiz.(bis)

X. Zeberio Mariskoa jan eta
ardo ona edan;
kajatzen da angulak
jarrita plateran.
Pipar gorri-gorri bat
badaukat aukeran,
ia parlamentuan
mobitutzen zeran.(bis)

URDANGARIN: 16,5 - 19 - 17 - 17,5 - 16 - 20 - 20,5 = 126,5
ZEBERIO: 19 - 20 - 17,5 - 18,5 - 20,5 - 21,5 - 20,5 = 137,5

Egaña

Rima/Hitza: **MUSUA**

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Santa Barbara zura bizitza II

Zarautz aldeko itsas ertzean
harrapatu nun uxua.
Nere ustetan teknika nuen
haundia bezin goxua,
ia itoan han utzi nuen
nere andregai gaixua;
hari ez zaio inoiz ahaztuko
nere lehenengo muxua.(bis)

8 - 7,5 - 7,5 - 8 - 7,5 - 7 - 7 = 52,5

X. Zeberio

Rima/Hitza: **JAINKOA**

Neurria:8ko nag.

Doinua: Santa Barbara zure bizitza II

Batzuk diote omen degula
gizon kategorikoa,
manejatutzen dula mundua
behekoa eta goikoa.
Zaharrak zioten: "bakarra degu
ta bera degu nahikoa".
Nik ez det bate sinisten eta,
alperrik zaude, Jainkoa.(bis)

6 - 7 - 6 - 6,5 - 7 - 7,5 - 7 = 47

Maia

Rima/Hitza: **IZARRA**

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Oihan beltzean zeinen eder den

Merkea dago negar malkoa
garestia irriparra;
buru makurra_k gaude askotan,
atakeak barra-barra.
Euskal Herriak_k urte eskotan
egin beharko indarra,
zeru beltzean ikusi arte
zorionaren izarra!

7,5 - 7,5 - 7 - 7,5 - 7 - 7 - 7,5 = 51

Egaña

Doinua: Xamangarria zera

Puntua: Laster dugu gainean
mende bat gehiago...

Egaña Gure hogeigarrengo
exkax hau akabo;
bainan nola gabiltzan
teknikan esklabo,
zer iritsiko zaigun
beldurtuta nago.

7,5 - 7 - 6,5 - 7,5 - 8 - 7 - 6,5 = 50

M. Mendizabal - Elizagoien

GAIA: Zuena ere kasua da! Zu, Mikel, 60 urterekin inoiz
baino gustorago bizi zara. Zu, Bittor, ostera, 20
urteko gaztea, bizitzeko ilusiorik gabe zaude

10eko txikian ofiziotan
Doinua: Espanian behera

Mendizabal Hirurogei badauzkat...
zenbat urte, pentsa!
eta diru aldetik
ez naiz aberatsa.
Ametsetan lo egin
ta gustora altxa:
pozik daramat goiza
ta pozik arratsa,
ilusioa baita
bizitzaren gatzeta.(bis)

Elizagoien Ni tristerik nago ta
zu zaudela alai;
alaitasunerako
ni ez nauzu gaur gai.
Ez gera bizitutzen
patxadan ta lasai,
langabezia ere
daukagunez nunahi;
hola sufritzekotan
ez nuke bizi nahi.(bis)

Mendizabal Bainan anima zaitez,
aizu lagun, hara!:
zure bizimodua
ez baita akaba,
mugitu zaitez pozik
honuntz eta hara;
zahartzea eskorentzat
hain gogorra bada,
zahartutako gaztea
okerragoa da.(bis)

Elizagoien Animoak ematen
nahiz zauden jarria,
mundutik joateko
badut egarria,
oso beltza baitaukat
nere etorria:
etsaien esku dago
gaur Euskal Herria.
Nola iretsiko dut
hain une larria?

Mendizabal Barruko ilusioa
da denaren giltza,
eta horren ihesi
alperrik zabilta.
Nik esperientzia dut
ta badut jakintza;
zuk ipini indarra,
hori da baldintza
biok goza dezagun
elkarren bizitza.(bis)

Elizagoien Nahiz ta bizitzeko nik
 banuen enpeino,
 hemen eman digute
 hainbeste engaino:
 gazte jendea sartu
 dute lurperaino;
 nere bihotz barruan
 badut hainbat laino...
 lurpean nahiago dut
 hola bizi baino. (bis)

MENDIZABAL: 20 - 20,5 - 21 - 21,5 - 21 - 20,5 - 20,5 = 145

ELIZAGOIEN: 18 - 20 - 17,5 - 20 - 20 - 21,5 - 21 = 138

Egaña - Munduate

GAIA: Zuek, Joxe eta Andoni, orain hamar urte elkarrekin
 euskara ikasten aritutako kideak zarete. Gaur, biok
 kalean topo egin duzue. Joxe, euskaraz mintzatu
 zatzaizkio, baina Andonik, aspaldi utzi zuela erantzun
 dizu.

10eko txikian ofiziotan
Doinua: Antton eta Maria

Munduate AEKren egoitzan
 bagenuen garra:
 euskeraz ikasi nahi
 irri eta parra.
 Iruditzen zitzaigun
 hizkuntza baldarra,
 orain hitzegiteko
 badaukat indarra;
 zuregatik hilko da
 Euskal Herri zaharra.(bis)

Egaña Nigatik bakarrik ez,
 ez izan kirtena!
 Euskaltegitik nintzen
 lotsati irtena;
 ohartu naiz euskeraz
 mintzatzeko zarena;
 sentipen bikoitza da
 barruan detena:
 batetik inbiria,
 bestetikan pena.(bis)

Munduate	<p>Erderaren inbiri bizi zera kasi, lehen'e mintza natzaio hainbeste eskasi... Euskeraren egoera ez zazu nahasi. Euskeraz hasi naiz ta zu erderaz hasi; hortako ez zenuan alperrik ikasi! (bis)</p>
Egaña	<p>Ikaste prozesua ez da atsegina, nik ere egin nuen nere ahalegina, ezinak gaintitu zun gogo eta grina. Euskeraz nik ez dakit zuk aina, jakina!, baina erabiltzen det dakidan pitina. (bis)</p>
Munduate	<p>Egoera daukagu erabat narratsa, gure hizkuntza zaharra behar degu altxa. Euskaldun zaharrei ere eman diet antza; mingain ahul hori behintzat behar dezu dantza, gure gain baitaukate heuren esperantza.(bis)</p>
Egaña	<p>Trebetasun handirik ez daukat mokoan, baina halare ez det sartuko kolkoan, herrian eraikuntza baitago jokoan; promesa bat dagizut, eduki gogoan: Euskeraz mintzatuko gera hurrengoan(bis)</p>

EGAÑA: 20,5 - 21 - 20,5 - 19,5 - 21 - 21 - 21 = 144,5
MUNDUATE: 18,5 - 18,5 - 17 - 18,5 - 16,5 - 18,5 - 19 =126,5

GARTZELAKO LANA

Gaiak: 1. Euskalerrian hainbat urte pasa ondoren, zeure herrira itzultzera zoazen goardia zibila zara. Burgosko mugan, agurra egitea erabaki duzu.

2. Urtetan aurrera zoaz. Ohean logurerik gabe zaudela, aspaldi batean uko egin zenion neskaren irudia datorkizu gogora.

Mendizabal

GAIA: lehenengoa

Neurria: berezia

Doinua: Euskalerrian nintzen

Euskal herrian nintzen
noizbait eroria,
guardia zibil bezela
nintzen etorria.
Gertuan eduki dut
hemen hilobia,
ta erretiratzera
orain noa ia;
ez da makala izan
nere historia:
egurra eman eta
jaso dut ogia.(bis)

Herriaren etsaitzat
zen gure langintza,
entzuna izan degu
eraso bortitza.
Nolabait bete degu
geneukan baldintza;
orain Burgosko mugan
doa nere hitza:
"azkenik salbatu dut
behinepein bizitza,
ta izan dut herrira
itzultzeko ditxa".(bis)

Mixeriatik nintzen
honuntza etorri
eta zuk zidazun, hor,
janaria jarri.
"Egurra" ta bizitza
elkarren lokarri;
orain erretirauta
bizitzan oinarri.
Nere azkeneko hitza
nahi dizut igorri:
"ondo portatu zera;
agur, Euskal Herri!"(bis)

21 - 19 - 21 - 20,5 - 21 - 20 - 20 = 142,5

Egaña

GAIA: Bigarrena

Neurria: 10eko nag.

Doinua: Santa Barbara zure bizitza II

Zergatik hola jokatu nuen
neuk egiten dut galdera,
neskatxa harek piztarazi zun
nere barruko kaldera;
orain burura imajinetan
sarritan katorkit bera;
gauza bat ondo ikasia dut
nexka haren arabera:
gehio ez dela inoiz itzultzen
behin galdutako aukera.(bis)

Gogoan daukat nola neskata
bizi omen zen Suizan;
harekin bapo ibiltzen nintzen
maitemindu baten gisan,
baina ezkondua omen zegoen da,
nik uztea komeni zan.
Era hontako lekzio on bat
ikasia dut bizitzan:
denaren gaindi neu izateko
balorerik ez nun izan.(bis)

Biok eskutik ibiltzen ginen
maiteminduen antzera,
baina jendeak ez zun onartzen
horrelako jokaera.
Zahartuta nago, baina oraindik
barrua daukat minbera;
azken egunez eraman nuen
Zarauzko itsas ertzera,
ta maitasuna ixkutatu zen
marearekin batera. (bis)

24 - 21,5 - 23 - 21 - 23 - 22 - 22,5 = 157

X. Zeberio

Bukaerako agurra

Neurria: Bereziak

Doinua: Esateko ez naiz lotsa

Guardia zibilak hau dio:
"La madre que me parió"...
Gaizki kantauta hemen askorik
ezin leikek io.
Orain, serio-serio,
besarkada bat Laudio.
Berriro alkar ikusi arte
ondo bizi ta adio.(bis)

J.L. Urdangarin

Bukaerako agurra

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Hormatxoriak negu gorrian

Laudio, Laudio,
juradu honek hau dio:
"Gaur hemen kantatu
ta txapelketai adio".
Oso urruti ez det ibili
bihotzeko atakia,

ia ahaztu zait nola izaten dan
ohiean lo egitia,
ordu erdiro izaten nuen
komonerako aitzakia,
nere amak esan ohi dun bezela:
"bukatu eta pakia". (bis)

AZKEN-LAUDENETAKO 4. SAIOA

HENDAIA

1993 - 11 - 14

S. Lizaso

Hasierako agurra

Neurria: 10eko nag.

Doinua: Bizia ez da nehoiz egoiten

Arratsaldeon esanaz nator
ohitura dedan klasean,
une honen zai egonda gero
horren denbora luzean;
saio polit bat egin nahi degu
entzulean babesean;
gure asmoa ez dadiela
gelditu ezerezean,
guk sufritzea alperrik baita
zuek gozatu ezean.(bis)

A. Sarasua - I. Ajuria

GAIA: Aitor, eskola batean Bertsolaritza irakasten ari zaren
bertsolaria zara. Gaur, Ireneo, Hezkuntza Saileko
ispektorea, etorri zaizu tituluaren eske.

8.ko nagusian ofiziotan

Doinua: Adixkidia andoaindikan

I. Ajuria

Arratsaldeon esanaz zuri
galde egitera noa;
bertsoak ondo erakustea,
hori da duzun asmoa;
horretarako zuk behar dozu
gaur benetako gradoa,
horrexagatik eskatzen dizut
badaukazun tituloa.

A.Sarasua

Ez dut esaten titulu hori
litzakenik gauza txarrik,
baina oraingoz ez dago eta
ez zazula eman gerriki;

zuen dirurik ez dugu, baina
gu ez gabiltza alperrik,
borondatea sobra denean
ez da titulu beharrik.

I. Ajuria Borondatea ontzat hartzen dut
baina egin nauzu kezkatu;
beste munduko gauzarik lagun
zuri ez dizut eskatu;
bertsolaritza maisuen mailan
behar dugu preparatu,
titulo gabe zauden ezkerro
behar dizut debekatu.

A.Sarasua Jaurlaritzaren eskakizuna
ez al da ridikulua?;
hauek haunditu egin nahi dute
gure kulturaren zuluak;
jendea prest egon zitakenikan
ez dute egin kalkulua,
nik behar dudana gauza bakarra
militante titulua.

I. Ajuria Pentsa egizu bertsolaritzan
alde, lagun, banagola,
legea bete nahi ez duenak
piztuten dauzta odola;
titulotxo bat hartu egizu
ondo izango zara hola,
ta kategori gehiagokoa
izango da bertso-eskola.

A.Sarasua Orain daukagun kategoria
ote dugu ba murrizta?,
gaztetik hasi ta zaharretara
denok gustora gabiltza,
ta zuek diruz saldu nahirikan
Euskal Herriko bizitza...
Zuen eskutan jartzen badugu
akabo bertsolaritza!

SARASUA: 20 - 19,5 - 18,5 - 20 - 19 - 21 - 21,5 = 139,5

AJURIA: 18 - 18,5 - 17,5 - 18 - 18,5 - 20 - 20,5 = 131

A. Telletxea - J. Arzallus

GAIA: Senar-emazteak zarete zuek. Amaia emaztea; eta Jexux, senarra. Etxean haltzari berriak sartu nahi dituzue. Emazteak lehengo ohea nahi du, eta senarrak ohe berria.

8ko nagusian ofiziotan

Doinua: Nafarroako mendi gainetan

A. Telletxea Etxe guztitan senar horiek
 egiten dira gailenak,
 eta berdinak izaten dira
 dudarik gabe gehienak.
 Ohea aldatu eta okertu
 dituzu zuk gauza denak,
 oheakin bat joan bait dira
 oroitzapenik onenak.(bis)

J. Arzallus Gur oroitzapen asko ditugu
 senar-emazte bizitzan,
 ta emazteak jokatu nahi du
 amona xahar baten gisan.
 Ohe berri bat nahi nuke nik,
 zergatik nahi dizut esan:
 hiltzen dijoan maitasun honek
 mudantza bat izan dezan.(bis)

A. Telletxea Zure iritziak ikusten ditut
 momentu hontan ilunak,
 ohe berriak emango ditu
 une osotan astunak.
 Barkatu baina ezin ahaztu
 hemen egin ditugunak:
 ohe honetan eman zun frutu
 lehenengo maitasunak.(bis)

J. Arzallus Ohe zaharreko maitasun hori
 daukat ederki gordea,
 ta eman duen fruitua ere
 izan da oso noblea,
 hala ere txanda bat behar dugu:
 ohe berri dotorea;
 ohe berrian probatu nahi dut
 nik "Arantzako" lorea.(bis)

A. Telletxea Pentsamentu hoiekin gaurkoan
aurkitzen zera zu flako,
eta zure nahia ez dut emango
gogorik ez dedalako.
Hainbeste maite dudan gauza hau
ez duzu zuk aterako;
nahi baduzu, berria zuretzat
eta zaharra neretzako.(bis)

J. Arzallus Gaizki sartu zait belarritara
emazteak esan duena;
ohetik ihes hasi nahi luke,
horrek ematen dit pena.
Haritzeko ohe bat nahi nuke,
ematen dizut ordena,
maitasun honek izango baitu
haritzak dun iraupena.(bis)

TELLETXEA: 18,5 - 19,5 - 19,5 - 19 - 20,5 - 20,5 - 20,5 = 138
ARZALLUS: 20 - 19,5 - 20 - 21 - 21,5 - 20,5 - 20 = 142,5

J. Arzallus - Olalde

Gaia: Zuen herrian udal hauteskundeak izan berri dira. Zu,
Jexux, senarra, hautagaien zerrendan zinen eta boto
bat bakarra jaso duzu, zeurea. Botoa ematera, Olalde,
emaztearekin joan zinen.

8ko txikian ofiziotan
Doinua: Kantatzera nijoa

J. Arzallus Kanpainan pasatua
dugu hilabete;
mitinak gaur ta bihar,
igande ta aste;
emaztean laguntzik
ez dadukat bate :
etxean bakarrikan
nahi nauzu alkate.(bis)

Olalde Hortarako behar du
hoinbeste jenio...

ta senarra ez dezu
batere balio,
zure botoarekin
ni ez nintzan fio;
etxian gutxi eta
herrian gutxio.(bis)

J. Arzallus Emaztean laguntza
zen beharrezkoa,
bainan ikusten denez
ez nau gogokoa.
Noiz krixtotikan duzu
hola gorrotoa?
Nori eman diozu
zuk zure botoa? (bis)

Olalde Ni're herriaren alde
amorratzen nago,
ta lana egiten det
gero ta gehiago,
zeini eman diotan
jakin nahirik dago...
Sekretua da eta
ez dizut esango.(bis)

J. Arzallus Gaur arte etxean neu
bainintzen nagusi,
baina ni alkatetzat
ez nau nahi ikusi;
poz bat badut niregan
frakaso ta guzi,
botorik ez baitio
eman Arzallusi.(bis)

Olalde Botoa ez emanik
hartu dezu mina,
baina nik aurretikan
nuen hau jakina.
Arzallus zerade zu,
garbi hitzegina;
apelliduz bai, baina
ez zera berdina.(bis)

ARZALLUS: 19 - 20,5 - 19 - 20 - 20 - 22 - 21,5 = 142

OLALDE: 18,5 - 19 - 18 - 18,5 - 18 - 20 - 20 = 132

A. Telletxea

Rima/Hitza: **IRRINTZIA**

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Hara nun diran

Hemen daukagun egoera hau
izaten da berezia:
batzutan nago animoekin
eta bestetan etsia;
zuek bezala guk ere hemen
behar degu pazientzia;
ta zuk, entzule, "aupa Amaia!"
egin zazu irrintzia.(bis)

7 - 7 - 6,5 - 6,5 - 7 - 7,5 - 7,5 = 49

S. Lizaso

Rima/Hitza: **DAMA**

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Naiz ta hiltzea derrigorraden

Bertsolariok gurekin degu
gizon golfoaren fama,
ta beste batzuk eramán behar
sarrítan guk degun zama;
alper-alperrik egitea da
tarteka bere esana...
Ni naizelako sufritzen dago
ni maitatzen nauen dama.(bis)

6,5 - 7 - 6,5 - 6,5 - 7 - 7 - 6 = 46,5

I. Elortza

Doinua: Xarmangarria zera

Puntua Nun da zure grazia,

zure umorea?

I. Elortza Batzutan izaten dut
 nik askoz hobea;
 nahiz ta hona ekarri
 dudan adorea,
 juezen aurrean ezin
 dut lortu ordea.

6,5 - 6 - 6,5 - 6 - 6 - 6,5 - 7 = 44,5

S. Lizaso

Doinua: Xamangarria zera

Puntua Lana txarra dala ta
 denok beraren zai...

S. Lizaso Zenbaitek urrutitik
 hartzen dio usai,
 ta alperrak ohi gera
 beti bere etsai;
 piska't ona da, baina
 gehiegi ez dut nahi.

7,5 - 8 - 7 - 7 - 7,5 - 7,5 - 7,5 = 52

S. Lizaso

Doinua: Xamangarria zera

Puntua Leitza, Gernika eta
 Laudio, Hendaia,

S. Lizaso Lau saiotan gerade
 bertsoetan saia;
 bukatzean aditu
 nork bere epaia...
 Hemen denok daukagu
 aurrera joan nahia.

8 - 7,5 - 6,5 - 8 - 7,5 - 7,5 - 7 = 52

Mañukorta - A. Sarasua

GAIA: Euskadiko Txirrindulari taldea osatu berria da. Zu, Mañu, bazkide zara, zeure dirulaguntza eman duzuna. Zu, Aitor, izen haundiko txirrindulari euskalduna eta lehengo taldean gelditzea erabaki duzuna.

10eko txikian ofiziotan
Doinua: Ai gure antzinako

Mañukorta Lehenagotik auzuak,
lehenago lagunak, (bis)
txirrinduakin sarri
gera biok junak;
zu goiko puntan zaude
gu berriz ilunak;
nahi ta bihotzetikan
izanak bigunak,
ez al dituzu maite
anai euskaldunak? (bis)

A. Sarasua Beraz osatu ezinik
ziklista kuadrila, (bis)
ni gabe talde hori
daukagu debila,
baina ne'kontzientziz
ni nago trankila,
bizimodua ezpaita
oraingoz fazila;
ni diru bila nabil
ez famaren bila. (bis)

Mañukorta Beraz diruarentzat
zuk daukazu maña; (bis)
azkar urtetzen dezu
noiznahi mendi gaina.
Zuretzako daukagu
euskadin premiña;
etorri honera ta
egin ahalegina,
dirua ere bada
zuretzako aina. (bis)

A. Sarasua Nik daukadan soldata
ezin da konpara, (bis)
hileko miloi erdi
baititut atara;
hargatik talde hori
bazterren dut laga,
baina euskalduna naiz
esango dut, hara:
"Bizikletan pedala
kalean euskara".(bis)

Mañukorta Zure gizatasuna
al dago diruan?
Hemendik kanpo arren,
zu ez zaitez juan;
hemen saiatu zaite
behar dan moduan:
"Buelta Euskadi" eta
"Frantziko Giruan",
euskaldunak onenak
baigera munduan.(bis)

A. Sarasua Baina Mañu, konforme
ez nago zurekin, (bis)
jokatu behar dugu
guk bihotzarekin;
bizikletan behar da
jarrai eta ekin!
Eta ahal dan bitarte
atera etekin;
Euskadi ez da altxatzen
Lejarretarekin.(bis)

MAÑUKORTA: 19 - 19,5 - 17,5 - 18,5 - 18 - 20,5 - 20 = 133
SARASUA: 19 - 19,5 - 18 - 18,5 - 18 - 19,5 - 18,5 = 131,

J. Arzallus - S. Lizaso

GAIA: Zuek, bi neska zarete. Sebastian, bortxatua izan zara.
Jexux, zure lagunari kontatu diozu gertatua. Honek
salaketa egiteko esaten dizu baina ez duzu nahi.

10eko txikian ofiziotan
Doinua: Espanian behera

J. Arzallus Lagun bezela biok
hainbeste harreman,
gaur arazo batekin
hasi gera teman.
Salatutzeko ere
zu zaude aukeran,
bortxatu baitzaituzte
pizti baten eran.
Munduak jakin behar du
zer gertatutzen dan.(bis)

S. Lizaso Zoritxarrean nago
nahigabez betea:
pizti batek bortxatu,
hau nere kaltea!
Betirako itxi zait
pozaren atea.
Berez gogorra bada
hori jasatea,
gogorrago ez al da
denak jakitea? (bis)

J. Arzallus Ez izan lotsatia,
ez izan epela,
pentsa zazu ni zure
laguna naizela.
Ez gutzen dut ongi
matxismo ustela,
ta salatu ezazu
behar dan bezela,
gauza bera gertatu
liteke bestela.(bis)

S. Lizaso Justiziak ez dauka
hainbeste bertute,
nahiz eta zerbait lortu
salaketan truke;
Zuk nahiz eta eduki
hainbat buruhauste,
zigortzen dituztenik
ez zazula uste,
bi egun pasa eta
libratzen dituzte. (bis)

J. Arzallus Zuk nere aholkuan
 jartzazu arreta,
 ez gera betirako
 bihotza erreta,
 gorde itxaropena
 ta jaso kopeta;
 egi zazu lehenbailehen
 zure salaketa,
 orain "Emakunde" ere
 badaukazute ta.(bis)

S. Lizaso Isilik egongo naiz
 nahiz ta hori jasan,
 nahiz eta bizitzako
 gauz horrek erasan.
 Zuri kontatu dizut
 lagun baten trazan,
 ez seinalatutzeko
 ni herriko plazan.
 Isilik gorde nahi dut,
 inori ez esan.(bis)

ARZALLUS: 19,5 - 21 - 20 - 20,5 - 21,5 - 21 - 21 = 144,5
LIZASO: 19,5 - 23 - 20,5 - 20,5 - 22,5 - 23 - 23,5 = 152,5

GARTZELAKO LANA

1. GAIA: Gerran zabilta. Egun osoan, arma eskuan duzula,
aurrean ez duzu etsaia besterik aurkitu. Lotarakoan
egunari errepasoa ematen ari zara.
2. GAIA: 70 urte bete berriak dituzu. Gimnasiko ikastaro
batean, izena ematea erabaki zenuen. Lehenengo
saioa bukatu da, poltsa hartu eta bazoaz etxera.

A. Sarasua

GAIA: lehenengoa

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Gazte denboran sasoa eta

Egun batean bandera bati
eman genionez hitza,
orain besteak akatzea da
guk darabilgun bizitza.
Arma hartutua egun guztian
elkarren kontra gabilta;
gaur askok estimatuko zuten
ni inoiz jaio ez banintza.

Minutu batez pentsatuzeko
gu ezin gara nekatu,
etsaia danai azken hitza ere
behar diogu ukatu,
herria edo zerbaiten alde
behar omen da burukatu...
Orain alperrik da esatea:
"etsaia arren barkatu".

Tiro artean gure mundua
ez ote dago eroa?
Bihotza daukat sutan jarria,
burua ere beroa.
Hau ote dugu guri munduak
eskeintzen digun giroa?
Nere buruai botako diot
bihar lehenengo tiroa.

21 - 22,5 - 21,5 - 20,5 - 21 - 21 - 23 = 150,5

I. Elortza

Bukaerako agurra

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Nafarroako mendi gainetan

Gaurko saio hau bukatu nahi dut
aitormen txiki batekin:
urduri eta dudan jarri naiz
kartzelako bi gaiekin.
Lasai ta pozik gera naiteke
gaur, inork nahi badu jakin,
ez nanizenean gerrara joan
gimnasiko poltsarekin.(bis)

AZKEN-LAUDENETAKO 5. SAIOA

ZUMARRAGA

1993 - 11 - 21

Euzkitze

Hasierako agurra

Neurria: 10eko nag.

Doinua: Bizia ez da nehoiz egoiten

Izarraizpetik Zumarragara
etorria naiz pentsatzen:
"erreka-zulo honetan noizpait
tren xahar maite bat izan zen"
Irudimenez ahalegindu naiz
tren horren barruan sartzen:
Eibartik pasa ta Bilbon barna
nere bidaia luzatzen;
ea hemendik belodromora
ez geran deskarrilatzen. (bis)

Loidi-Saletxe II - Sasiain

Gaia: Aiton-amonak izango zarete. Loidisaletxe, amona; eta Sasiain, aitona. Aitona bere bilobatxoarekin etxe aurreko parkera joan da. Halako batean Loidisaletxe, amona, azaldu da. Leihora irten eta hara non ikusten duen aitona txirristan behera, bilobaren ondoren.

8ko txikian ofiziotan

Doinua: Kantatzera nijoa

Loidi-Saletxe II Zer krixtotan zabilta
aurre eta atzera?
Larogei urte eta
umeen antzera!
Aitona burutikan
txoratu al zera?
Mina hartu baino lehen

etorri etxera! (bis)

Sasiain

Etxera ez nijoa,
isildu, mesedez!
Txirrista honek dauzka
ondoan bi babes,
eta hortikan behera
jeisten naiz txit errez.
Haurtxoa pozik dabil,
ni zergatikan ez? (bis)

Loidi-Saletxe II

Mingainetikan behintzat
ez dago makala,
baina gure aitona
hau ez da kabala.
Banekin esaerak
egiak zirala,
egi da ume jaioa
ume bihurtzen dala. (bis)

Sasiain

Ume jaio ta ume
bihurtuta gabilta,
baina zer zoriona!
Emate'izut hitza;
hauxe da berri ona,
hauxe da bizitza;
ojala inoiz gizon
egin ez banitza. (bis)

Loidi-Saletxe II

Betidanik ez zera
hortan izan izu,
orain'e jolasean
zu zedorri maixu;
zer egin behar dezun
orain badakizu.
Edo haizea gora
igo ote zaizu? (bis)

Sasiain

Nik zer egingo dedan
ez al da nabari?:
umeakin batera
txirrista ugari.
Amona ez jardun hemen
hau, hori ta hori;
berriz banoa eta,
eutsi txapelari. (bis)

LOIDISALETXE II: 18,5 - 19 - 19 - 20,5 - 18 - 19,5 - 20,5 = 135
SASIAIN: 18,5 - 20 - 19 - 20 - 18,5 - 21,5 - 22 = 139,5

Olaso - Euzkitze

GAIA: Zuek, Olaso, ama; eta Euzkitze, semea, izango zarete.
Amak ilea moztera bidali du 3.000 pta. emanda semea.
Hara non agertzen zaion buru erdian gandorra tente
duela eta gainerakoa zuri, hondo-hondotik moztuta!

8ko txikian ofiziotan
Doinua: Nere senarrarekin

Olaso Lotsetan aurkitzen da
gaisorikan ama,
errekuperatzea
badet nehiko lana.
Banekin nik semea
tonto antxa zana:
deskuiratuta joan da
ijitoangana. (bis)

Euzkitze Pelukeritan behintzat
badegu lekua.
Aldamenak moztea
ez al zan nahikua?
Majo aprobetxatu det
ahorraitakua!,
horrekin erosi det
belarritakua. (bis)

Olaso Nehikoa da fameli
guztia nahasteko.
Lantegi ederra orain
hori orrazteko.
Belarri bi hertzetan
hiru arrasteko,
neu nehikoa nintzaden
horrela mozteko. (bis)

Euzkitze Korte klasikoekin
aspertu naiz aurtan.
Ilea ez da buruan

bakarrik izaten;
nahi badezu hasiko
natzaizu esaten
gerriz beherakoekin
zer egin didaten. (bis)

Olaso Seme hitzegingo'izut
serio-serio:
ile-mozkera hori
egin du propio.
Honekin gaur ez zegon
ama oso pio,
ipurdia hainbat aldiz
ikusitako ez balio. (bis)

Euzkitze Berrero arrazoa
dexente kaxkarra.
Baneukan nunbaitetik
moztu nahia larra,
askotan izan baitet
aditu beharra...
Orain ni izango naiz
etxeke oilarra. (bis)

OLASO: 17,5 - 18,5 - 17,5 - 18 - 17,5 - 19 - 20 = 128

EUZKITZE: 18 - 20,5 - 19,5 - 19,5 - 20 - 20 - 21,5 = 139

E. Arozena - A. Lopategi

GAIA: Zuek, neska-mutilak zarete. Haritz, mutila,
bertsolaria da. Estitxu, bere neska-lagunak,
Txapelketa honetan, azken lau saioak entzun ditu eta
gaurko saioan parte ez hartzeko eskatu dizu.

8ko txikian ofiziotan
Doinua: Nere senarrarekin

E. Arozena Txapelketa bateko
hark esan zion "bai",
baina iritsi da ta
ni ez nago alai.
Ez joateko eskatu
diot lasai-lasai,
ridikuloa egiten

ez dut ikusi nahi. (bis)

A. Lopategi

Garai honetan biok
gabiltza erreta,
baina maitea jarri
ezazu arreta:
ez juateko nola
zatozkit eskeka,
txapela ia-ia
neurea da eta? (bis)

E. Arozena

Pelikula ugari
ikusi dituzu,
baina serio hartu
egin zazu, aizu.
Ultimatuma da hau,
egidazu kasu:
txapelketa edo ni,
aukera ezazu. (bis)

A. Lopategi

Txapelketa dala ta
ez zaude oso alai;
ni, berriz, gogoz nago
neure saioan zai.
Ez da hain grabea ta
egon zaite lasai;
nobio txapelduna
ez al zenduke nahi? (bis)

E. Arozena

Puntuaketa dago
(hor) bat az besteko,
ta zaila izan behar du
gora iristeko.
Nobio txapelduna
dut aukeratzeko,
nobioz aldatu behar dut
hola izateko. (bis)

A. Lopategi

Ez zait asko gustatu
oin zure kondukta,
haserretuko gara
honaino helduta.
Horrela, nahi baduzu
nigandik izkuta,
gero neskatzak "hola"
izango ditut ta. (bis)

AROZENA: 17,5 - 18,5 - 16 - 18 - 17,5 - 19 - 20 = 126,5

LOPATEGI: 19 - 19,5 - 19 - 18 - 19 - 19 - 20,5 = 134

Euzkitze

Errima/Hitza: **ABENTURA**

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Oi amodio berri kartsua

Hamaika amets egiten dugu
maitasunaren kontura,
zeu ere neska polit askoa
sortu zintuzten mundura.
Aske bizi nahi duzu, ordea,
ez duzu maite lotura...
ez litzaiguke gaizki etorriko
gau bateko abentura.

7,5 - 7 - 6,5 - 7 - 7,5 - 7 - 7 = 49,5

Euzkitze

Doinua: Xarmangarria zera

Puntua Erregeak egin du
kanpora bisita.

Euzkitze Kanpo aldekoa beti
diskurso polita:
-"gora palestinarrak!"-
prakak erantzita.
Hemengoaz hitz egin
hangoak utzita.

7 - 7,5 - 7 - 7 - 8 - 7,5 - 7,5 = 51,5

A. Lopategi

Doinua: Xarmangarria zera

Puntua Egina al daukazu
gauerako plana?

A. Lopategi Ezta ederregia
nire panorama:
hemen eginda gero

sekulako lana,
loaldi ederra da
egingo dudana.

7 - 6 - 6 - 6,5 - 6,5 - 7 - 7 = 46

Telleria

Doinua: Xarmangarria zera

Puntua Sartu nahi al zenduke
lehenengo bietan?

Telleria "Bai", ta hargatik nabil
ni komerietan.
Baina bai al dakizu
zer pentsatzen detan?...:
Asmo berdina dago
beste zazpietan.

7,5 - 7 - 7 - 7,5 - 7 - 7 - 7 = 50

Euzkitze - Sasiain

GAIA: Bi emakume zaituztegu, biok arrantzaleen emazteak.
Euzkitzek urte asko daramatzazu itsasora doan senarra
agurtzera etortzen. Sasiain, zuk, lehen aldia duzu eta
begiak malkoz busti zaikizu.

10eko txikian ofiziotan
Doinua: Espanian behera

Euzkitze Barruan badaukagu
nahigabe galanta,
ez dezakegu agur
alegrerik kanta.
Hemen geratzen zera
emazte xarmanta.
-Xuka itzazu malkoak
negarrak lagata,
ni aina zahartzerako
ohituko zera ta-. (bis)

Sasiain

Ohitu beharra daukat
hontara nolana,
begiak goitik behera
eginak dauzkat blai;
senarra itsasora
barku baten artzai,
ta denbora luzean
egon behar dut zai,
ogia jateko ez dut
hainbat sufritu nahi
(ogian truke ez dut
hainbat sufritu nahi).

Euzkitze

Negarrez hasi zera
nere aldamenean,
zer samin ote dago
zure barrenean!
Errepara ezazu
nere esanean:
nahiz sufritu urruti
doakidanean,
gehiago maitatzen dut
itzultzen danean. (bis)

Sasiain

Nik ere maiteko dut
aitortzen dut, hara,
beti baita gogorra
lanaren bolada,
ta langintza horrekin
dauka hainbat traba,
bainan gu ere pozik
izan behar gara,
maitasunan txalupa
itotzen ez bada. (bis)

Euzkitze

Begiez gain bihotza
tristuraz bustia,
urrun baitoakizu
senartxo eztia;
baina ez zaizu komeni
lur jotzen hastia,
pentsa zazu iluna
ez dela guztia,
ekaitzaren ondoren
dator eguzkia. (bis)

Sasiain

Ni berekin juango naiz
"adio" esanez,
luzaro bizi nahi dut
beraren laztanez.
Batasuna hartu gendun,
segi harremanez,
zertan negarrez egon
"han banitz" esanez,
eguzkian eguzkiz
bizi nahi nukeenez. (bis)

EUZKITZE: 21 - 22 - 20,5 - 22 - 22,5 - 22 - 21,5 = 151,5

SASIAIN: 15 - 16,5 - 15 - 16,5 - 16 - 17 - 17 = 113

GARTZELANO LANA

1. GAIA: Jadanik ez da amodiozko gutunik idazten. Zu, hamikatxo idatzia zara. Konta zure oroitzapenak.
2. GAIA: Hogei lagunen lana egingo duen makina erosi du zure nagusiak. Zu langilea, kamioia hartu eta bere bila bidali zaitu.

Euzkitze

GAIA: lehenegoa

Neurria: Berezia.

Doinua: Ligoi bizitza ez da esaten

Ligoi bizitza ez da izaten
beti bizitza txukuna;
iruditzen zait ez dela oso
ona nere etorkizuna.
Orain bi urte banuen norbait
nik bihotzez maite nuna...
Beti ezezko erantzuna, (bis)
beti ihesi, beti kanpoan
gogoan nuen kuttuna;

bi bertsoetan laburtuko dut
nere azkenengo gutuna. (bis)

Adizu neska, garai batean
nengoen itxaropenez,
azken boladan lurjota nago:
bai aurpegiz, bai barrenez.
Beti baiezko bat entzun nahirik
zure erantzuna beti: "Ez"
Hargatik nago negarrez. (bis)
Itxoiteak merezi duen
esan zaidazu, mesedez;
bizi osoa ezin dut pasa
zure baietzaren fedez. (bis)

Baietz entzun nahi, ezetz entzuten,
egoera aldrebesa;
nahiago nuke sentimentu hau
zeuk sentitu bazeneza.
Bere horretan utzi nahi zaitut,
ez da batere erreza;
ondo nagonik ez pentsa: (bis)
gaur egunean zu zara nire
ametsetako printzesa,
agian noizpait ni izango naiz
printzesa zure ametsa. (bis)

22 - 21 - 24,5 - 21,5 - 23 - 20,5 - 22,5 = 155

A. Lopategi

GAIA: bigarrena

Neurria: Berezia.

Doinua: Gai honek badu mamia

Teknika badijoanez
gero eta gorago,
lantegietako itxura
aldatzen da zeharo;
oraindik lehengo garaiak
ez badira igaro,
gaur egunean hor goaz
gero ta aurrerago;
makina hori lantegira

ekarri beharra dago,
nire postua ez badit
kentzen konforme nago.(bis)

Makina hori ekartzea
ez da izango broma;
nahiz eta atzerri aldetik
izan kristoren sona,
fabrikan egin behar digu
oso zulo sakona:
langileak bota eta
ekartzen bada hona,
makina horien menpe
jartzen bada gizona,
horrenbeste aurrerapen
ere ez dogu ona. (bis)

Nagusiak etekina
nahi baitio atara,
gosez geldituko dira
hainbat seme ta alaba;
lehen ere lan egiteko
bagendun nahiko traba,
orain makina horrekin
ai! zelako ikara.
Adelantuz mundu osoa
bete beharra bada,
laister gizaki guztiak
sobran egongo gara. (bis)

21 - 20 - 20,5 - 19,5 - 20,5 - 20 - 21 = 142,5

Sasiain

Bukaerako agurra

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Nafarroako mendi gainetan

Bukatu dira hemengo kontu,
berdin traba eta kako;
dena dakien makina ere
ez zen alperrikarako.
Gaur zortzigarren geldituko naiz,
berriz aitortu beharko;
beatzigarren e'naiz gelditu
Laxaro hasi ez dalako.(bis)

FINAL- AURREAK

EIBAR

1993 - 12 - 5

GOIZEKO SAIOA

J. Arzallus

Hasierako agurra

Neurria:10eko nag.

Doinua: Santa Barbara II

Hendaian sartu kotxean eta
bi arnasakin Eibarra.
Ezin antzeman nun hasi eta
nun bukatzen zen dardarra.
Pauso hau ere egun batean
zegoen eman beharra;
hauxen da orain buru barruan
dabilen kezka bakarra:
orain hegoak baditut baina
ez dut galdu nahi iparra.(bis)

X. Zeberio

Hasierako agurra

Neurria:10eko nag.

Doinua: Mutil koxkor bat

Goierritikan Eibarreraino
zuek pozteko asmotan...
Taberna bila ibili gera
zazpi bat kilometrotan;
batzuek daude itxita eta
beste batzuk erdi lotan.
Gosaldutzeko leku onikan
ez al dago herri hontan?
Uste al dute txiklelea janda
egiten dala bertsoan? (bis)

J. Enbeita - S. Lizaso

GAIA: Zuk, Sebastian Lizaso, zure lagun den Jon Enbeita kazetariarekin isilpean hitz egin duzu, baina zuk esana biharamoneko egunkarietan dator.

8ko nagusian ofiziotan
Doinua: Arratsaldeon lendabizitik

S.Lizaso Berehalaxe hausiko dira
guk ditugun harremanak,
ikusirikan, ene laguna,
zeurekin dituzun planak.
Azken batean berdin zerate
zuek kazetari danak...
lau haizetara zertan zabaldu
nik konfiantzan esanak? (bis)

J. Enbeita Nik sentitzen dut, ene laguna,
atsekabe hau emana;
nik ez nekien horrelakoa
zenik zuk zenuen plana.
Ez al dakizu nolakoa den
kazetari baten lana?...
Denentzat argi jartzea baita
ilunpetan dagon dana. (bis)

S. Lizaso Zeure burua justifikatzen
ez zaitez hemen nekatu.
Laguna zinen, (usten nuen), da
faltso bezela jokatu.
Nik sekretoak eskatu nizun,
zuk berehala ukatu;
gaurtik aurrera pentsatuko det
zeni eta zer kontatu. (bis)

J. Enbeita Beraz zuretzat beharko nuke
nik lanbidea eskegi,
ta sekretoak zuri entzuten
beti patxaren eseri.
Ilunpetako autu-mautuan
ezin duzu hola segi,
beti kritikan ibili gabe
eman behar da aurpegi. (bis)

S. Lizaso Nik jarri nizun baldintza zendun
isilik gordetzekoa;

agindu eta ez dezu bete,
hori da azpijokoa.
Lagunak ginen, horregatikan
nahigabez daukat kolkoa.
Zuk hitza sobre daukazu, baina
ez zerade hitzekoa.(bis)

J. Enbeita Hitza sobera zeuk bai daukazu
zure urrezko mokuan,
horrexegatik ikusten duzu
orain ondra arriskuan.
Beti zabilta zirika nahian
ilunpetako txokuan,
hizketan hasi beharra duzu
tokatzen zaizun lekuan.(bis)

ENBEITA: 18,5 - 19 - 20,5 - 19 - 24,5 - 20,5 - 20 = 142

LIZASO: 20,5 - 20 - 21 - 21,5 - 22,5 - 21,5 - 21 = 148

Euzkitze - Sorozabal

GAIA: Zu, Xabier Euzkitze, printzesa zaitugu; eta Jokin
Sorozabal, erregina. Printzesa, zure lagunek asteburu
luze honetan guateke batera konbidatu zaituzte. Zuk
joan nahi zenduke, baina zura ama erreginak ez dizu
baimenik ematen.

8ko nagusian ofiziotan
Doinua: Txoriak eta txoriburuak

Euzkitze Goren mailako bizimoduak
baditu hamaika gako.
Gonbidapena egin didate
festa eder baterako.
Nere lagunen inbiriz urtzen,
etxean egon beharko,
ta haiek nere inbiriz lan hau
zer den ez dakitelako.(bis)

Sorozabal Alde batera pentsatu nuen
zu hara joaten uztea;
baina gu beste klase bat gera,
hala da nere ustea;
ta hobe dezu gure artean
bizi alaba gaztea,

ez da komeni gure odola
beste batekin nahastea.(bis)

Euzkitze Odola nahastu edo ez nahastu
ez zait batere inporta,
mentalidade atzerakoiez
nazkaturikan nago ta.
Festara noa ta altu diot,
ahotsa pixkat iota:
behe mailan pozik bizi nahi nuke
ta ez goi mailan lurjota.(bis)

Sorozabal Behe mailakoa nahiago dezu
goikoa baino, aukeran.
Orain ez gera hemen hasiko
gauza hoiien gorabeheran,
bizitzen segi beharko dezu
guraso zaharren tankeran,
jaiotzerako bazenekien
ze mailakoa zeran.(bis)

Euzkitze Barkatu baina ez nago, ama,
ni zure borondatean:
zuen haizea, zuen ustea,
guztia geure kaltean.
Goateke hortan politik bada,
hango mutilen artean,
txirri egitera eramango dut
"Dos Caballos" zahar batean.(bis)

Sorozabal Zure bidea gureetatik
dabil nahiko apartean;
hori aldatzen hasten bazera
denontzako da kaltean.
Zure irudia garbi mantendu
gaztea zeran artean,
eta xirriak eingo dituzu
erregina izatean.(bis)

EUZKITZE: 19,5 - 19 - 21 - 21 - 20,5 - 19 - 19 = 139

SOROZABAL: 20 - 21 - 22 - 21,5 - 23,5 - 20,5 - 20,5 = 149

Mendizabal Ez dizut egin behar
gaurkoan jaramon. (bis)
Ezin hau nik badakit
gaurkoz nola konpon:
gasolina ta sua,
horra hor bi gauz on;
oraintxe baserriai
nahi diot su emon.
Zoaz urrutira, ta
isilikan egon.(bis)

Sorozabal Seme, zuk bai dezula
barrua itzela...(bis)
Hemendik joatea da
neretzat kartzela,
beraz ni bertan egon
beti nadiela;
ez naiz urruti joango
eskatu bezela,
erre beharko dezu
barruan naizela.(bis)

Mendizabal Aita, ezin dut erre
noski alafede! (bis)
Egoskor jarri zera
da temaren jabe.
Hortik ateratzea
ez al dezu hobe?
Atoz ta sua doa
oraintxe da ere,
mesede izango da
denontzat halare.(bis)

SOROZABAL: 19,5 - 20,5 - 21 - 21 - 21,5 - 21,5 - 20 = 145

MENDIZABAL: 19 - 19 - 20 - 19 - 22,5 - 19 - 19 = 137,5

Euzkitze - Mendizabal

Elkarrizketa

GAIA: Soldaduska egin duzuen bi mutil gazte zarete zuek.
Gaur, lizentziatu eta kanpotik zuen kuartelari begira
zaudete.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Balentin berriotxoarena

Mendizabal Urte ta erdi eta marinan
ardi gaisoak bezela;
denbora joan da eta pentsatu
lizentziaturik gaudela,
ta aurrez-aurre hor dakusagu
hainbat alditan honela,
hainbat amets ta sufrimendu txar
eman digun kuartela.(bis)

Euzkitze Ez zetorrela pentsatzen nuen,
noizpait heldu da bederen;
baina ez dakit nere bihotzak
hau inoiz ahaztuko duen.
Mando hoietaz dudan duda bat
agertu nahi dizut hemen:
berez diren hain kabroiak edo
barruan kabroitzen diren.(bis)

Mendizabal Berez izanda barruan gehio,
hori da hoiien langintza,
erdi-erdian hautsi baidute
hainbat gazteen bizitza.
Orain bagoaz, nahaiago genun,
ta ematen degu hitza,
insumisoen mugimendua
lehenago heldu balitza.(bis)

Euzkitze Horrelakorik gabe helduak
noizpait indar eta sasoiz,
sumiso asko jarri gaituzte
jerarkiaren arrazoiz.
Noizbait libratu gaituzte, baina
ez behar zuten bezain goiz;
nere barruak duen gorrotoz
ez du barkatuko inoiz.(bis)

Mendizabal Pasa ditugu hainbeste egun
ta pasa hainbeste ordu,
kuarteltzar hau gorrotatzeko
badegu hainbat motibu.
Gaurko gazteak honen aurkako
dabiltz belarri ta buru,
ta gu bezela ez etortzeko
animatuko ditugu. (bis)

Euzkitze Insumisoen borroka ere
bai latza eta grabea,
horri begira ez nago bihotz

ta sentipenik gabea;
guretzat denak berandu xamar
iritsi dira, ordea...
Laguntasunik behar badute
hemen daukate gurea. (bis)

Mendizabal

Gizarte baten militar gabe
zein bizimodu hobea,
horretarako bide luzea
dago oraindik, ordea.
Harek beretik ta guk guretik
jarrai dezagun bidea,
denon artean aldatu arte
zentzurik ez dun legea. (bis)

Euzkitze

Gazte garaiak eman dizkigu
makina bat desengaino:
botak garbitzen eta bizarra
mozten hainbeste enpeino.
Orain oinutsik ibiliko naiz,
ilea ipurdiraino;
makarra pinta nahiago baitut
"reengantxatu" pinta baino.(bis)

EUZKITZE: 29 - 27,5 - 28 - 30 - 29,5 - 28,5 - 27,5 = 200

MENDIZABAL: 25 - 25 - 26 - 27 - 27,5 - 27,5 - 27,5 = 185,5

GARTZELAKO LANA

1. GAIA: Astelehen goizeko 7ak dira. Tabernan zaude, atzo
txanpaina edaten ari zinen leku eta ordu berean
kafesnea hartzen.

2. GAIA: Txirrindularia zara. Etaparen erdia, denei tiraka
ibili behar izan duzu. Etapako azken portua igotzerakoan
azkena geratu zara eta bakarrik zoaz.

S. Lizaso

GAIA: bigarrena

Neurria:10eko nag.

Doinua: Bizia ez da nehoiz egoiten

Gaurko etapa irabazteko
goizetik nitzan afanez,
eta taldean laguntzarekin
aurrez egina dut amets:
tira ta tira, lehen hor jardun naiz
intentziorik onenez;
beste batzuek aprobetxatu
nik lehen egin dedan lanez;
lagunen lagun izan naiz, baina
nere lagunak lagun ez.(bis)

Zuzendariak haseran zion:
"Dauzkazun indarrak bota,
ez ikaratu, gero taldea
hor daukazu eta konta".
Bainan atzera utzi naute eta,
orain, etzaie inporta.
Estu ta larri hemen nijoa
aldapa ezin igo ta.
Ez nuen uste hain gogor zanik
etsipenaren porrota.(bis)

Amets gehiegi egingo nuen
eta neuretzat galera,
hain ezberdinak nola diraden
hasera ta bukaera.
Nik lana egin eta besteak
joan dirade aurrera,
ta helmugara heldutakoan,
(eskobarekin batera),
gaitzerdi inor etortzen bazait
zorionak ematera.(bis)

J. Enbeita

GAIA: bigarrena

Neurria: Berezia

Doinua: Maitasuna da bizi izateko

Irten aurretik gidaria zen
premia hauetan mintza:
"Tiratu gogor mendi denetan",
ta bete dut nire hitza,
peoi garenok egunik egun
beti horrela gabilta.
Txirrindulari bizitza:
orain poza, orain gaitza.(bis)
Baina, hala ere, gaitzerdi leike
egin dudan lan bortitza
taldekideak gero helmugan
irabazteko balitza.(bis)

Oraindik oso gazte naiz, baina
beste bat dugu izarra.
Baten ondoan lan egin behar,
hori dugu lege zaharra.
Egunkarian zabalduko da
nire lanaren izparra.
Badaukat nahiko indarra,
nerbioa ta giharra,(bis)
baina haxe da lanbide honek
daukan alde txar bakarra:
batek gloria iritsi dezan
askok sufritu beharra.(bis)

Burutik behera sorbaldaraino
dator izerdi umela,
sarri askotan destinoa da
hain latza ta hain krudela...
Baina sekula ni ez naiz izan
lan egiteko motela.
Bizitza honen kordela
aurrera doa horrela:(bis)
nahiz ta Indurainek jantziko duen
Parisen bere txapela,
nik mailot horren zati txiki bat
badakit neurea dela.(bis)

25 - 23 - 23,5 - 23 - 25 - 22 - 23 = 164,5

Sorozabal

GAIA: bigarrena

Neurria: Berezia

Doinua: Maitasuna da bizi izateko

Txirrindulari egin ninduen
kirolzaletasun suak,
ta animatu ere gogotik
lagunek eta auzuak.
Egitan zerbait egin beharrez
orain datoz arazuak.
Gaur hemen nere pausuak
ez ziren hain erosuak; (bis)
ez daude berdin banaturikan
mikatzak eta gozuak:
batzui nekeak eta besteei
loreak eta musuak.(bis)

Hala ta guztiz nik lanerako
gorde nahi nuke afana,
egunez egun betetzen segiz
zuzendariak esana,
eta gaur arte bezela zaindu
taldekiden harremana.
Prentsako jendean lana...
jarriko dizuet plana.(bis)
Bada gauza bat garbi uzteko
nik gogoa daukadana:
nork jaso duen txapela eta,
zein den lan egin duana.(bis)

Konpetizio gogor honetan
badaude hainbat kolore;
gaur bezelaxe neri ezinak
sortu dit hainbat nahigabe,
nahiz ta barruan sentitzen dedan
besteek hainbat ohore.
Egidazue mesede,
hau konprenitzeko ere: (bis)
nahiz ta sufritu, sekula ez naiz
besteak bezain dotore,
eta karrera bukatuko zait
txapelikan jaso gabe.(bis)

22,5 - 20,5 - 22,5 - 21,5 - 23 - 20 - 20,5 = 150,5

X. Zeberio

Bukaerako agurra

Neurria: Berezia

Doinua: Esateko ez naiz lotsa

Arratsalde bostetan
kanpian dilinda,
Aritz ta Aitor, jarri
saioari ginda;
gero datoz Murua,
Peña ta Balinda,
beste napar batekin
bizkaiko bi linda.
Jendea utzi pozik
saio on bat eginda

FINAL-AURREAK
Arratsaldeko saioa

EIBAR
1993- XII-5

U. Iturriaga

Hasierako agurra

Doinua: Berezia

Neurria: Nafarroako mendi gainetan

Arratsaldeon, oi entzulego
euskaldun jator moñoño!
Ohartu gabe igo gaituzte
hona, goiko puntaraino.
Hau da tabladu izugarria,
pasatu zarete, koño!
Suizidatzeko hobeto dago
bertsoak kantatzeko baino.(bis)

A. Lopategi

Hasierako agurra

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Anai arrebak ementxe nator

Gaur Eibarrera urreratu naiz
nahiko mantso eta lasai,
oraindik ere sailkatzearen
poztasunez eta alai;
guztiok gatoz finalerako
txartel preziatuen zai;
nor pasatuko dan ez dakit, baina
nor ez dan pasatuko bai.(bis)

Egaña - Murua

GAIA: Iñaki Murua, lanik gabe dauden asko bezela, herriko plazan zaude eta eskean. Andoni Egaña, boxeolari hau etorri zaizu eta esparring bat behar duela esan dizu.

8ko txikian ofiziotan

Doinua: Kantatzera nijoa

Egaña Eskua kazo gisan
 jartzen dezu sarri,
 ta eskean zabilta
 buru ta belarri.
 Sparring baten bila
 nabil larri-larri;
 hartzeko prest bazaude,
 nerekin etorri. (bis)

Murua Eskean nago hemen,
 jardun eta jardun;
 borondatetsua naiz
 hartu behar dan ordun.
 Ni sparring moduan
 har nazazu, lagun;
 laister egingo zera
 munduko txapeldun. (bis)

Egaña Beraz, zu prest bazaude,
 ni ere prest nago.
 Ene!, topatu izan
 bagina lehenago...
 Hain fuertea naizenik
 ez nuke esango,
 hiru karizi baizik
 ez dira izango. (bis)

Murua Lasai hasi zaitea
 nerekin mokoka,
 sparring sendo on bat
 nola zaizun toka.
 Nahiz ni kokotez atzea
 berehala bota,
 nornahi hautsiko dezu
 okotzean jota. (bis)

Egaña Beraz gizon debila
 zaitugu orduan,
 zu zeu pintatu zera
 gixajo moduan.
 Nik tipo baliente bat
 nahi nuke onduan;
 zakua lehendik badet,
 gizon bat nahi nuan. (bis)

Murua Gizon peto askoa
 aurrean daukazu,

zuri erakusteko
aditu ta maisu.
Munduko txapelduna
izan nahi badezu,
"Rossli"-a erretzeari
utzi ezaiozu. (bis)

Egaña Konsejuak ematen
zerorren kaltera;
nik nahi nuke txapela,
gainera kartera,
eta biriketarik
ke piska't atera;
Ezin al dira lortu
bi gauzak batera?

Murua "Utzi erretzeari"
esan dizut garaiz,
osasunaren aurka
ari bai zera maiz.
Txapeldun ein zintezke
ta aurpegi alaiz,
ta ni zure kontura
bapo biziko naiz. (bis)

EGAÑA: 24 - 24,5 - 25 - 25 - 26,5 - 24 - 24,5 = 173,5
MURUA: 25 - 25 - 27 - 25,5 - 25,5 - 26,5 - 26 = 180,5

A. Lopategi - A. Sarasua

GAIA: Zuk, Aritz, oraingo galtza modernoak erosi zenituen
atzo, bere zulo eta guzti. Sarasua, amona, hor ikusten
duzu gaur jostorratza eta hariarekin zure galtzak
konpontzen.

8ko txikian ofiziotan
Doinua: Kantatzera nijoa

A. Lopategi Moderno juen nahi nuen
zelan edo halan,
gero kalean zehar
ibiltzeko hegan.
Jostorratzez hainbeste

puntada ez eman,
zulo hori hainbeste
kosta baizitzaidan. (bis)

A. Sarasua Zuloa konpontzerik
besterik ez dut nahi...
gaurko gazteak dira
edo zertako gai.
Laister bukatuko dut,
egon zaitez lasai;
zu ez zara lotsatzen
baina amona bai. (bis)

A. Lopategi Konponduko zendukez
aurre ta atzeko,
baina zer behar dudan
neuk dakit hobeto:
zulotxo hauek dira
neskak tentatzeko,
ta bero naizenean
haizea sartzeko. (bis)

A. Sarasua Horren gaztea zara
ematen dit izu;
neskekin kontuz izan,
hor nere abisu.
Zuloa arriskutsua da,
zuk ondo dakizu,
txoritxuak zulotik
alde egingo dizu. (bis)

A. Lopategi Orain bota didazu
arrazoi astuna,
nola bukatu behar
dugu guk eguna?
Beti izan naiz zulo
hauetxen laguna,
ta txoritxoak berak
eingo du nahi duna. (bis)

A. Sarasua Txoritxua al dabil
zerbaiten asmotan?
Jaioberria da ta,
utziozu lotan.
Kalean zuloekin
zu ibiltzekotan,
berdin ibil zintezke
zu kantzontzilotan. (bis)

A. Lopategi Amona ez zaite jarri
horrela galdezka,
nire jantzikeraren
hasarrez beteta;
probatzeko txoriai
utziozu arreta,
hegan egiten orain
ikasi du eta. (bis)

A. Sarasua Zuk hegan egiteko
daukazun afana;
lasai ibili zaite,
iloba laztana.
Oraindik egin zazu
amonan esana,
gero egingo duzu
zuk nahi duzun dana. (bis)

LOPATEGI: 27,5 - 27 - 29 - 26,5 - 26 - 26,5 - 27,5 = 190
SARASUA: 33,5 - 29 - 30 - 30,5 - 30 - 28 - 27,5 = 208,5

Peñagarikano

Errima/Hitza: **IRABAZI**

Neurria: 8ko nag.
Doinua: Hara nun diran

Nere barrengo sentimentua
nahi nuke adierazi:
bertso kantatzen neure bizitzan
besterik ez det ikasi.
Nik Donostian izan nahi nuke
beste batzukin nahasi,
lehen aina lagun izan nahi ditut
galdu edo irabazi. (bis)

7,5 - 7,5 - 7,5 - 7,5 - 7 - 6,5 - 7 = 50

A. Lopategi

Errima/Hitza: **IZERDIA**

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Santa Barbara zure bizitza II
Eibarrerako guztiok ondo
kargatu dugu gurdia,
jende aurrera ekarri nahirik
umore ta pikardia;
bateren batek hau ez badaki:
haxe da finalerdia.
Zerbaiterako izango al da
gu guztion izerdia. (bis)

7,5 - 7 - 7,5 - 7 - 6,5 - 6,5 - 7 = 49

Egaña

Doinua: Triste bizi naiz eta

Puntua: Dirua ote dugu
munduko jainkoa?

Egaña: Neri ez zait inporta,
badaukat nahikoa;
ni naiz gizon aberats
kategorikoa,
ta gainera bertsoan
tenple haundikoa.

9 - 7 - 7,5 - 8,5 - 7 - 7,5 - 7 = 53,5

Peñagarikano

Doinua: Triste bizi naiz eta

Puntua Xelebrea ez al da
mundu honen martxa?

Peñagarikano Han eta hemen behintzat
bada nahiko saltsa:
bata degu pobrea,
bestea aberatsa;
noizbait aldatuko da,
badet esperantza.

7,5 - 6,5 - 7,5 - 7,5 - 7 - 7 - 6,5 = 49,5

I. Elortza

Doinua: Triste bizi naiz eta

Puntua Hotza eta gosea
behartsuen etsai.

I. Elortza Zoritxarrez, munduan
horrelaxe da, bai.
Ta gu hemen gabiltza
beti horren alai,
hori horrela dela
ez dugu jakin nahi.

7 - 6,5 - 7 - 6 - 7 - 6,5 - 7 = 47

Egaña

Bakarka neurri librean

GAIA: Itxua zara jaiotzez. Nahiko kostata baina aurkitu duzu zure bihotzeko kuttuna. Une honetan zure maitearen aurpegia ukitzen ari zara.

Neurria: Berezia

Doinua: Nere gorputza dardarka dago

Nere eskuak luzatu ditut
maitearen aurpegira:
hemen ukitu ta han laztandu,
majina bat tira-bira.
Zu ikustea beste gauzarik,
maite, ez nuen desira;
taktuan bidez sentitzen dakit,
beraz ez zaitez kupira.
Esan liteke: "Egina zaude
nik behar nuen neurrira".
Zure begiei begira
bihotza zauka ari da.
Pentsamentu bat datorkit orain
bihotzan erdi erdira:
holako zerbait izango dela
eguzkiaren dizdira.

Belarritatik eskua pasa
baneukan borondatea...
Aho gordina, ezpain zabala,
zorionaren atea;
okotz ederra, aurpegi horrek,
behar zun errematea.
Ez da errexera nere eskua
dotore eramatea.
Hortik aurrera ezin ikusi,
neronentzako kaltea.

Ezpain hezurra betea,
denena hola ote'a?
Ez da errexa sentimentuak
lau hitzetan esatea:
begiaz ezin ikusi arren,
ederra zera maitea.

Taktuak hainbat esaten zunik
ez nuen espero bela:
zure adatsa ez da kaxkarra
baizik indardun kordela,
zure kopeta zabala dezu,
hizketa ez da mottela;
irriparrea al dezu beti
dabalkizun erregela?
Zu ezagutu aurretik nintzen
gizon itsu ta ergela.
Poza ematen ditela,
hau ez da une ustela:
ene maitea, tratatu nauzu
gizon oso bat bezela,
zuri eskerrak sinistu det nik
gizon osoa naizela.

28 - 25,5 - 28 - 26,5 - 26 - 23,5 - 24 = 181,5

I. Elortza

Bakarka neurri librean

GAIA: Herriko parrokoa zara. Herrian, eskale bat hil da.
Momentu honetan hileta elizkizuna egiten hasi zara eta
eliza hutsik dago.

Neurria: 10eko nag.

Doinua: Lurraren pean sar nindaiteke

Herri hontara heldu nintzen behin
Jainkoaren izenean,
gertatzen dena nola edo hala
nabil ulertu nahiean,
nahikoa pena eta tristura
badaukat nere barnean,
behin eta berriz nik pentsatzen dut:
"ez nago herri onean,
herriko gizon zintzoenari

hau gertatzen zaionean". (bis)

Honelakotan gertatzen dena
iruditzen zait itsusi;
behin aberatsa hiltzen denean,
baietz denak honantz hasi;
modu horretan beti berdinak
izango dira nagusi,
ta gixajoak euren atzetik
horrela dituzte hezi.
Beti horrela izango da ta
besterik ez dute merezi. (bis)

Aspaldidanik eskale zahar hau
izan dut nik ezaguna,
ahaztu ezina daukat berakin
izandako maitasuna.
Nahiz ta zuzena hemen ez izan
zure herritarren jarduna,
nere aldetik ahal dudan dena
egin behar dut, laguna,
izan dezazun merezi duzun
hileta elizkizuna. (bis)

21,5 - 21 - 22,5 - 20,5 - 21,5 - 20 - 20,5 = 147,5

A. Lopategi

Bakarka neurri librean

GAIA: Orain dela zenbait urte, etxetik aldegindako gaztea zaitugu. Etxera karta bat idatzi duzu, onartzen bazaituzte etxe aurreko zuhaitzean zapi zuri bat jartzeko esanez. Etxe ingurura iritsi zara, baina ez dago zapi zuririk.

Neurria: Berezia

Doinua: Gai honek badu mamia

Zein dan nere desgrazia
nahi nuke hemen kanta:
inoiz ere ez dut izan
seme onaren planta,
mutil txarra izan bait naiz

buru, bihotz ta hanka;
baina gure ama ere
ez da izan oso santa:
zapi gabe hantxe dago
gure zuhaitz galanta,
lehen ere zerbaitegaitik
alde egin nuan ta. (bis)

Orain nire etorkizuna
ez da izango makala,
betirako galdu baitut
sendiaren itzala,
baina aurrera egin beharko
dut nola edo hala;
begien aurrean daukat
hortxe mundu zabala.
Etxetik bigarren aldiz
bota nauten bezala,
gaurtik beti esango dut
amarik ez dudala. (bis)

Umetan izaten nuen
kristoren inbidia,
bestelakoa izatea
zen nire guraria,
eskolako laguneri
botaz neure begia.
Betirako izkutatu da
nire aurpegi argia,
baina ahaztu egingo dut
daukadan komeria,
neure kontura osatuko
dut neure famelia.
(dut neure familia)

22,5 - 21 - 22,5 - 22 - 21,5 - 20 - 21 = 150,5

M. Arozena - Egaña

Elkarrizketa

GAIA: Zuek aitona-amonak zarete. M. Arozena aitona eta Egaña amona. Amonari medikuak, hondartza agindu dio. Aitona, kostata baina kobentzitu du azkenean amonak. Hondartzara heldu dira, dena jendez beteta dago. Iritxi orduko aldatu zaio aurpegia aitonari.

Neurria: 10eko nag.

Doinua: Aita izena kanta beharrak

M. Arozena

Lehengo astean egin zenion
medikuari bisita,
ta esan zizun hondartzarekin
behar zendun egin zita.
Harriturikan aurkitutzen naiz
jende pila hau ikusita.
Ura nun dagon ere ez dakit,
edo ote dut ahantzita?
Nora demontre ekarri nauzu
etxe-txokoa utzita? (bis)

Egaña

Pleura neukan da hortik sortu zait
ez dakit zenbat histori;
behin behar eta medikuaren
atzaparretan erori.
Gauza bakarra agindu zidan:
" Zoaz hondartza, Bittori".
Nahiz lekuz kanpo gabiltzan hemen
gu bezelako bi txori,
aupa aitona!, alaitu zazu
zure musaje beltz hori. (bis)

M. Arozena Aitonak ez du lan hoietako
behar lukeen hainbat kemen:
erdi-lotsata, erdi bildurrez,
lekuz kanpo naiz nabarmen.
Ni legorretik ohitua nago;
bera gustoko dut, zeren
itsas izkina gazteentzako
leku aproposa omen.
Nere moñoña ito behar dut
ura ikutu baino lehen. (bis)

Egaña Osasunetik nola nenbilen
ni aldrebestu xamarrik,
medikuaren konsultan ez zen
falta neretzat oharrik.
Konturatzen naiz, ene aittona,
ez daukazula indarrik;
nere ondoan eseri zaite,
ez nauzu utzi bakarrik;
nahi ez badezu ez dadukazu
uretan sartu beharrik. (bis)

M.Arozena Eskerrikasko, eseriko naiz,
gustoa dut hurbiltzea;
ez zait komeni jende artean
nahasturikan ibiltzea;
hor, beharbada, sartuko baitut
gorrotoaren hiltzea.
Hain ximur daukat, zertan erakuts
nere aurre edo atzea?
Hemen jarraitu baino nahio dut
etxean goxo hiltzea. (bis)

Egaña Lehendik zenbiltzan heriotzaren
pensakizunez beteta;
behingoan gizon portatu zaite,
eduki ezazu arreta.
Haurtxoen gisan egoskortu zait
hau da hau papeleta!
Erantzi zazu bainujantzia,
alaitu zazu kopeta,
bestela bueltan joango baigara
ni beltz-beltz ta zu erreta. (bis)

AROZENA: 24,5 - 25 - 26,5 - 23,5 - 25,5 - 24,5 - 25,5 -= 175
EGAÑA: 31 - 28M5 - 30 - 28 - 28,5 - 28 - 29,5 =203,5

I. Elortza - A. Lopategi

Elkarrizketa

GAIA: Zuek aitona-amonak zarete. Aritz aitona; eta Igor,
amona. Amonari medikuak, hondartzara agindu dio.
Aitona, kostata baina konbentzitu du azkenean. Hondartzara
heldu dira, dena jendez beteta dago. Iritxi orduko aldatu
zaio aurpegia aitonari.

Neurria:10eko txik.
Doinua: Espanian behera

I. Elortza Gaizki pasatu duzu
 zuk azken bolada,
 medikuak bidali
 zaitu hondartzara.
 Nik burua makurtuz
 hartu dut patxada;
 dena gorputz polita,
 hona eta hara;
 ez nuen uste, baina
 oso polita da. (bis)

A. Lopategi Hasieran hondartzan
 ei zinan arraro,
 baina gero eritzia
 aldatu zeharo,
 ez bait dira neskatil
 urriak igaro.
 Hortxe begira zaude
 begi eta aho:
 zuri egingo dizu
 mesede gehiago. (bis)

I. Elortza Hondartzak ez zeukanez
 nahikoa lilura,
 ez zitzaidan gustatu
 zure berri hura,
 baina aldatua dago
 hemengo itxura;
 honelakoa bada
 beti abentura,
 sarriagotan joan
 zaitez medikura. (bis)

A. Lopategi Lehen, ez zendula nahi ta,
 zenbiltzan jo ta su,
 baina osasunaz badet
 nahikoa arazu.
 Orain osterera ezer
 ez da enbarazu:
 neskatilen artean
 gustora zaude zu,

noizbehinka neri ere
begira zaidazu.
(noizbahinka neuri ere...)

I. Elortza Nahiz eta prest nagoen
zu begiratzeko,
besteak begiratzuz
nago ni ederto.
Medikuai diogu
nahiko errespeto;
esan zizun urtean
bitan etortzeko;
lau aldiz etorrita
ez al da hobeto? (bis)

A. Lopategi Zeharo aldatu da
zure umorea,
zuretzako izan da hau
kriston mesedea,
gustora hartu duzu
honako bidea,
neskatilei begira
ez zaude grabea.
Senarra bihurtu zait
"viejo berdea". (bis)

ELORTZA: 29 - 27 - 30 - 28,5 - 27,5 - 27 - 29 =198
LOPATEGI: 27 - 24,5 - 28,5 - 26,5 - 26 - 26,5 - 28 =187

Egaña

Bukaerako agurra

Neurria: 8ko nag.
Doinua: Txoriak eta txoriburuak

Asteazkenez gerade Bilbon,
bi egun juxtu atsedean;
puntuaketak entzuteko zai
zenbat susto ta hasperen!
Kontuak kontu, egun ederra
igaro degu Eibarren,
Bilbo txikia ezagutuaz
haundira joan baino lehen. (bis)

U. Iturriaga

Bukaerako agurra

Neurria:10eko nag.

Doinua: Amodioa gauza tristea

Bukatu nahi dut nere jertseak
esaten duen bezela,
gu hemen pozik bagaude ere
hortxe baitago kartzela,
eta badakit hamabost urtez
jentea hor dagoela.
Nere partetik beraiantzako
omen ta txalo itzela,
telebistatik beraien berri
ez baita izango bestela. (bis)

FINAL-AUREA
Goizeko saioa

BILBO
1993 - 12 - 8

Peñagarikano

Hasierako agurra

Neurria:10eko nag.

Doinua: Sastarretik hasita

Lehenko igandean bota nituen
"astrapala" ta "intzira".
Epai mahaikoak harritu eta:
-Peña ze esaten ari da?-
Apenas gero jarri zineten
hiztegiari begira...
"idoro" eta "ediren"ekin
emango diot segida;
argi ibili, holako hitzak
gehiago izango dira. (bis)

M. Arozena

Hasierako agurra

Neurria:10eko txik.

Doinua: Ai gure antzinako

-Egunon, bertsozale!-
beste deus baino lehen. (bis)
"Casilla" ez da bete
hori da nabarmen.
Bilbotarrak goitizen
"farolillo" omen.
Ni "farolillo rojo"
baita ere nabarmen...
Hemen ikusiko da,
argiak joan arren. (bis)

Peñagarikano - A. Sarasua

GAIA: Zu, Anjel Mari, udaldian bertsoan gelditu gabe
ibilitako bertsolaria zaitugu. Urrian oporrak hartu
eta telefonorik ez den leku batera, mendira, joan
zara. Han, Aitor, artzaia aurkitu duzu. Ezagutu zaitu
eta "bota bertso bat" esan dizu lehen hitza.

8ko handian ofiziotan
Doinua: Nafarroako mendi gainetan

Peñagarikano Herririk herri, plazarik plaza,
ene zenbat sufrimendu!
Hilabetean, bertsoa, behintzat,
nik burutik nahi det kendu.
Ezagutu nau eta artzaiak:
"benga, hasi!" esaten du.
Hobe zenduen gazta zaharra ta
ardo eskeini bazendu! (bis)

A.Sarasua Gaztarik ez dut eskeini eta
honek hainbeste nahigabe;
beti jarraitu behar ote da
kaletar hauen mirabe?
Entzun dudanez, orain zarete
zuek dirutzaren jabe,
nik ardiekin kantatu ohi dut
batere kobratu gabe. (bis)

Peñagarikano Oporraldia behar dutenak
oraindik bagera batzuk,
eta atsedena hartzeko gogo
nik honera gaur dakarzut.
Dohain kantatzen dezula hemen,
hala bota didazu zuk;
bota ezazu zeuk lehenengoa,
laister erantzungo dizut. (bis)

A. Sarasua Poto bat egin arren bertso bat
botako dut berehala,
ezjakina naiz baina ez pentsa
ni naizenikan makala.
Lanik sekula ez du egin da
hau ez da gauza normala:
orain oporrak hartu nahi ditu
aberats denek bezala. (bis)

Peñagarikano Urtean zehar ehundaka saio,
gainera borondatean;
esaten dute bertsotan hainbat
nola ibil litekean.
Telefonorik ez dan tokian
nahi nuke hilabetean.
Txorakeriak utz itzazu ta

utzi nazazu pakean. (bis)

A. Sarasua Bertsoak botaz oso famoso
ibili da munduz-mundu;
orain bakarrik egon nahi luke,
mundu hortatik urrundu.
Zakar hasi dut agurra, baina
zerbait nahi nuke txukundu:
Gazta puskarik gura baduzu,
ardiak jeisten lagundu. (bis)

PEÑAGARIKANO: 21,5 - 20 - 21,5 - 21 - 20,5 - 20,5 - 21 = 146
SARASUA: 19,5 - 21,5 - 21 - 21 - 21 - 21 - 21,5 = 146,5

I. Elortza - Egaña

GAIA: Zuek, ama-emeak zarete. Igor, ama; eta Andoni, semea.
Ama, bisitan joan zara semearen etxera eta hau plantxa
egiten aurkitu duzu.

8ko handian ofiziotan
Doinua: Txoriak eta txoriburuak

I. Elortza Etxera sartu, begiratu ta
hemen nago adi-adi:
nere semea hor eskatzean
ekin ta ekin plantxari.
Parkatu, baina, Andoni maite,
hain triste zaitut nabari...
-Sorgin horrek zer egiten dio
nire seme politari?- (bis)

Egaña Zure etxetik urrundu nintzan
igual neronen kaltera.
Plantxa hartuta hementxe nabil;
ama, normala ote da?
Nere andrea juzgatu dezu
sorgin zahar baten antzera;
eskobatu're neuk egiten dut,
kontuak hortik atera! (bis)

I. Elortza	Nire semea ume garaitik izan da horren apala, gero sorgin bat hartu zuen ta ez zaio pasa makala! Sekula ez zendun kasurik egin, nahiz ta esaten nizun hala: ez zintuela inork zainduko zure amatxok bezala. (bis)
Egaña	Mira pittin bat badut barruan, gustora egon zaitezke; hala're inoiz ez naiz joango zure laguntzaren eske. Plantxatzeakin lotsa naizenik, amatxo, ez zazu uste; zure erritak ez entzuteak merezi baitu hainbeste. (bis)
I. Elortza	Gaurkoan ere horrela hasi da, garai haietan antzera; hemen ez da hain gaizki bizi hau dioenar arabera. Seme maite, neuk egingo nuke, izango banu aukera; baina pena joan behar dudala erosketak egitera! (bis)
Egaña	Astelehenetan izaten degu labadorarena edo, asteartetan konpra degula badakizu honez gero. Etorri zaite ta nere planak ondo burutu ezkerro, biak batera sentituko naiz: ezkondua ta soltero.

ELORTZA: 20 - 20,5 - 22 - 20 - 21 - 20,5 - 21,5 = 145,5
 EGAÑA: 22,5 - 21,5 - 22 - 21,5 - 21,5 - 21 - 22 = 152

U. Iturriaga - I. Elortza

GAIA: Igande goiza da. Gauean elurra egin du. Zu, Igor, aita, ohean zaude gozo-gozo. Unai, semeak, hirugarren bisita egin diozu dagoeneko aitari, mendira joan nahi duzula eta.

10eko txikian ofiziotan
Doinua: Espanian behera

- U. Iturriaga Elurra beti izan da
zuri ta gozoa,
ta elurretan pasa da
bart gaba osoa.
Goizen kanpokalderantz
nahi nuen pausoa,
baina ohean dago
nere aita zozoa;
ez al duzu beteko
nere kapritxoa? (bis)
- I. Elortza Igande goiza da ta
gorputz aldi nagiz,
kokoteraino nago
elur eta mendiz;
nere semea, berriz,
ilusio handiz:
pelmada ematera
hirugarren aldiz.
-Utzi pakean eta
ez etorri berriz-. (bis)
- U. Iturriaga Aita honekin ez dut
nahi hainbat suerte:
eskatu diot baina,
ametsa ezin bete.
"Koartotik joan zaite!"
esan dit fuerte.
-Zure seme txiki hau
baduzu hainbat maite,
aman kamisoia utzi
ta mugitu zaite-. (bis)
- I. Elortza Nahiz eta joateko
esan diodan nik,
bere kapritxoakin

hemen da oraindik;
nola esplikatatu ere
ez dakit jadanik.
Mendirako ez duzu
aitaren beharrik,
ta gogoia baduzu
joan zaite bakarrik. (bis)

U. Iturriaga Kuartoan egiten dut,
antza, enbarazu;
hauek egongo ziren
seguru jo ta su,
ta "ospa egin zazu"
-diosta- "mukizu".
Aita, gero ez keجاتو
diot orain, aizu,
lehiotik elur bolaik
sartzen bazaizu. (bis)

I. Elortza Mendira joan nahi luke
honek hanka trebez.
Beti bitxo samarra
izan dugu berez,
gaur ere hamen dabil
nahikoa aldrebes.
Kanpoan bazabiltza
broma eta barrez,
bolak sartuko dira
baina zu igual ez. (bis)

ITURRIAGA: 18,5 - 19 - 20 - 19 - 21,5 - 19,5 - 20 = 137,5
ELORTZA: 24,5 - 23 - 23,5 - 24,5 - 22,5 - 22 - 22 = 162

Egaña - M. Arozena

GAIA: Neska eta mutila zaituztegu. Andoni neska; eta Manolo,
 mutila. Neskak gaur Manolo mutilarekin ligatu duzu,
 baina oheratzerakoan, bera profesionala dela eta,
 dirua eskatu dizu.

10eko txikian ofiziotan
Doinua: Antton eta Maria

Egaña

Bizitzan egina det
hainbat estrapozu.
Mutil bat hurbildu zait
ligatzen jo ta su;
oherako garaian
nahiko enbarazu:
beraz, hortan kobratzen
ohitua zaude zu?
Ni konforme nago ta
zenbar behar dezu? (bis)

M. Arozena

Gorputza hortarako
ongi dut nik presta,
orain neska bat dator
lehenengoa ez da.
Horren ondoan nago
ni orain errez ta...
-kartera ate zazu,
bihotzeko neska;
bi ordun bost mila da,
ta gehiegi ez da-. (bis)

Egaña

Tuntun-tuntun hasita
hauxe enreroa;
hau da mutil gaztea!,
hau kaballeroa!
Mila duro nahi ditu,
hau da hau eroa!
Nahiz kartera eduki
bastante beroa,
lehenengo erakutsi
zure jeneroa. (bis)

M. Arozena

Jeneroen galdezka
xuabe-xuabe;
nobata samarra da
hala ere grabe,
gaur egun gehientsunak
holakok dirade.
Eta zu zeradenez
gaur nere mirabe,
proba ein behar dezu
ta ikusi gabe.
(proba egin behar dezu...)

Egaña
Ez naiz inola bide
onean abitu,
eskeintza ez zait bate
ona irudit.
Mutil honek baditu
mila zirrikitu;
baietz titare baten
bestea kabitu,
hortarako nahio det
goseak gelditu. (bis)

M. Arozena
Neska ataken dator
aldian aldian,
ikutu det ezpainen
baita ere titian,
esperientzik ez du
gaur honek agian...
Pentsatuko'zu gero,
ongi jakitian,
plazer neurria ez dala
ez haundi txikian. (bis)

EGAÑA: 22 - 20 - 21,5 - 20,5 - 19 - 19,5 - 20,5 = 143
ARozENA: 15,5 - 16,5 - 17,5 - 15 - 17 - 17 - 17,5 = 116

M. Arozena - I. Elortza

Elkarrizketa

GAIA: Bi uso zarete zuek. Bazoazte zuen ohizko bidetik eta zeru gaineratik hor ikusten dituzue ehiztariak mendian gora.

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Santa Barbara zure bizitza

M. Arozena
Bi uso txuri hortxe gatoz gu
hegotik iparraldera;
zerbait arraro ikusi det ta
egiten dizut galdera:
-zu, uso Igor, begira zazu
piska't horra ezkerre-
"behean daudenak ehiztarik edo

ze kristo ote direla?" (bis)

I. Elortza
Gu lasai-lasai, mendi gainetik,
gaurkoan gentozen, aizu,
nahiz ta ustetan inori ere
ez egin gaur enbarazu.
Ehiztari edo zer kristo diren
hortxe galdezka zaude zu.
Gelditu hemen apur baten ta
laister ikusiko duzu. (bis)

M. Arozena
Pirineoak gurutzatuta
sartu gera Euskadira;
lehenbizi baten nabaria zan
horko eguzkin dizdira.
Agian, hor bi gizon horiek
jan bila datoz mendira;
ez dakit, baina, agian, hemen
goseak biziko dira. (bis)

I. Elortza
Guri gaurkoan ez zaigu pasa
pasatzekotan makala...
Bi usorekin gelditu zen behin
gure kuadrila apala.
Pentsatzen nago hegalaldiak
aurrera garamatzala...
Laister geu ere hilko gaituzte
beste guztiak bezala. (bis)

M. Arozena
Asko badira ihes joaterik
ez dugu lortuko bela,
nahiz eta gure hegakada dan
beste onenan bezela.
Ikusitzen det behetik bi hoiek
apuntatutzen daudela;
hil behar banaute ni geroago,
Euskadin hil nazatela.
(nezatela)

I. Elortza
Neri berdin zait hiltzen banaute
Euskadi ez dan leku baten,
azken batean hiltzea inun
polita ez da izaten.
Tristea eta gogorra dela

ez naiz hasiko esaten
guk hil beharra ehiztari batzuk
ondo pasatu dezaten. (bis)

M. Arozena Ehiztari hoiek gustoko dute
nunahi ematea nota,
lasai ez leike aritz azpira
usorikan sartu lota.
Agian, gaizki egon gindezke
tiro maltzur batek jota;
gosez dagona jateko banaiz,
batere ez zait inporta.

I. Elortza Goseaz edo goserik gabe
ez dut joateko kemenik,
bestela bihar hil behar badut
orain bertan hil nahi dut nik.
Zuk zeuk aukera baduzu eta
joan zaitezke hemendik,
baina ez zazu pentsa bizirik
asko iraungo duzunik. (bis)

ARozENA: 24,5 - 25 - 26,5 - 23,5 - 25,5 - 24,5 - 25,5 = 175
ELORTZA: 29 - 27 - 30 - 28,5 - 27,5 - 27 - 29 = 198

U. Iturriaga - Egaña

Elkarrizketa

GAIA: Igande arratsaldea da. Zuen bion gizonak, futbolera
joan dira ohi bezela. Biok kafetegian berriketan ari
zareten bi emakume zaituztegu.

Neurria:10eko nag.

Doinua: Balentin berriotxoarena

U. Iturriaga Astean zehar izaten dugun
penuria eta drama!
Gure gizonak ez dute izan
inoiz ez zintzoen fama.
Gaur futbolera joan zaizkigu,
ze pozik dauden, ai ama!
Hau ospatzeko edan behar dugu
patxaran kopatxo bana. (bis)

Egaña
 Bejondeiñela!, ospatzen hasi
 ta joan haiz urrutira.
 -Ai zerbitzari, kopatxo hori
 bete ezazu erdira-
 Ederki gaude, txutxu-mutxuka,
 biok elkarri begira;
 nahiago nuke futbol saioak
 astean hiru balira. (bis)

U. Iturriaga
 Nahiz ez dakigun gure senarrak
 noiz izango diren bueltan,
 gure pena ta arazotxoak
 kontatu ditzagun bertan.
 Ene Antonia, nere barruan
 nolako penak daukadan:
 rimel arrasto gorriak zeuzkan
 amerikanan solapan! (bis)

Egaña
 Neureak ere perfume usaiz
 ekarri zinan jertsia,
 lehen txerriana zeraman eta
 ez zan zaila ohartzia.
 Adar beldurrez aurkitzen gera.
 Hauxe degu, hau trantzia!
 Badaezpadare onena degu
 geronek ere jartzia. (bis)

U. Iturriaga
 Adar kontuak nola dituzun
 hemen plazara atara;
 neronek ere nere apurra
 kontatu behar dut, hara:
 perfume usaiz zure senarra
 agertu ei zan atetara;
 koño!, uste nuen garbitu nula
 zurearen alkondara. (bis)

Egaña
 Ene laguna, ze berdekeri,
 ez ote degu nahikoa?
 Senarran kontra ezin hainbeste
 zorroztu nere mokoa...
 Errealari irabazteko
 lagundu, ene Jainkoa!
 Realak hainbat gol sartzen dizkit,
 hortantxe dago kakoa! (bis)

U. Iturriaga

Goleadore famosoa da
ta pitxitxi mundiala;
hemen nagon lez probatuko dut
neronek ere hala dala,
baina pentsatzen jarri ezkerro
pasatu egin haiz, txabala;
pentsatzen nago burura igon
patxarana egin zaidala
(pentsatzen nago patxaran hori
burura igo zaidala).

Egaña

Arrazoi dezu, oraintxe bertan
ez daukazu santa plantik;
lehendikan ere egina zera
zu horrelako galantik.
Beste batera joan gaitezen,
nora ez digu inportik,
eta azkenik milaka esker
"txabala" deitzeagatik. (bis)

ITURRIAGA: 27 - 27 - 29 - 26 - 27 - 26 - 28 = 190

EGAÑA: 31 - 28,5 - 30 - 28 - 28,5 - 28 - 29,5 = 203,5

GARTZELAKO LANA

1. GAIA: Une honetan zuretzako telegrama hauxe jaso dugu. Honelaxe dio: "Eskerrik asko, xarmangarria zara, laister arte. Kattalin".
2. GAIA: Zuk urtebete pasa duzu munduan zehar bazterra ikusten. Itzuli zara berriro zeure ohizko lantokira, fitxatu duzu eta bazoaz betiko zure lanpostura.

Murua

GAIA: lehenengoa

Neurria: Berezia

Doinua: Munduko ilunabarra

Zein egoera zorrotza
txapelketaren morrontza!
Kattalin nere arrosa,
laztana bezain airosa...
Nerbioekin ia gertuan
sentitzen nun heriotza,
jende aurrean guztiz galdua
sentitzen nintza arrotza.
"Zu gabe ezer ez nintzake ni"
esateko ez naiz lotsa.
Esku batean sartua zegon
oin arte nere bihotza,
munduko urrez ez da ordaintzen
zuk eman didazun poza. (bis)

Telegrama horren saria
itxaropenan haria,
behar nuen guraria
ta mesede nabaria.
Behar nuena zan justu-justu,
ez da izan ederregia.
Une honetan salbatu nauzu,
aitortzen dizut egia.
Zure zutonai helduko diot,
bestela nintzan eria.
Zure indarraz une latz honi
emango diot aurpegia.
Zu zera egunez nere eguzki,
gauetz nere ilargia. (bis)

Hizketan ezin hasian,
irten ezinik sasia,
ideia danak pasian
arrazoien eskasian.
Eta albiste dotore hori
ene belarri ertzian.
Bihotza daukat pozez gainezka,
geldi ezinezko jausian.
Etorkizuna iluna neukan
"bai" eta "ez"ko auzian.
Ba al dakizu arrazoi horrek
nei zenbat esaten dian?
Ene Kattalin, maiteko zaitut
nere bizitza guzian! (bis)

Peñagarikano

GAIA: lehengoa

Neurria: Berezia

Doinua: Maitasuna da bizi izateko

Bertso kantari gaur igaro det
oso momentu larria;
zure txaloak gaurkoan ziran
neretzat indar berria;
lehen hestu nengon ta orain lasai,
hau da nere aldarria:
Zu zaitut poz iturria,
egin baidezu irria. (bis)
Ni ziur nago, aseko dezu
maitetasun egarria:
xarmangarria zerorri zera,
Kattalin maitagarria! (bis)

Gaurko saioa emango zuten
hortikan hainbat irratik,
gogor txalotu nauzula zuk gaur
ederki asko badakit;
oain telegrama zu zeuk bidali,
ez daukat ezeren faltik.
Begira zeunden zu hortik,
hementxe berta-bertatik. (bis)
Nere eskerrak zuretzat dira
entzun zaidazu zergatik:
bertso-saioan txalo ta ohiuz
ni animatzeagatik. (bis)

Piztia ere inoiz edo behin
galdu izan da basuan,
ni ere hola jartzen naiz sarri
zerbait botatzerakuan,
bainan guztiak ahaztu zaizkit
zer telegrama eskuan;
oso modu erosuan
horrek idatzi baitzuan. (bis)
Une honetan ni murgildu naiz
zorianan itsasuan;
detailtxo hau ez det ahaztuko
nere bizitza osuan. (bis)

26,5 - 21,5 - 23,5 - 22 - 22,5 - 21 - 21,5 = 158,5

U. Iturriaga

GAIA: lehenengoa

Neurria: Berezia

Doinua: Leiho ertzetik entzun dezaket

Hori entzunda geratua naiz
ni benetan txundituta,
telegramarik nere bizitzan
sekula ez dut hartu ta.
Kattalin horrek esandakoak
neretzat dakarren kulpa...
ta ezin gogoratuta
nago ni amorratuta. (bis)
Zure irudirik ez daukat, baina
naukazu maiteminduta;
lore ramu bat eroango dizut
tablauko hauek bilduta. (bis)

Gure bizitzak izaten ditu
askotan behintzat joko bi;
telegrama hori nundik ote dan
gaurko honetan erori?
Nere gautxori bizimoduak
badauka nahiko istori:
izan ginela bi txori,
zu argala ta ni lodi.
Zure irudirik ez daukat baina
eziozu esan inori,
askoz gehiago maitatzen baita
ikusten ez dugun hori. (bis)

Memori piska't egiten hasi
behar dut orain kolpetik:
neska artean mutil prestua
izan bait naiz txikitatik;
pasatua naiz kotxe-atze ta
ohe bero be askotik,
askotan nere gogotik,
bestetan kontra eiteagatik. (bis)
Ene Kattalin bihotzekoa,
esango dizut bihotzetik:
"eskerrikasko!" esan didazu,
ta nik: "ez da ezergatik". (bis)

Egaña

GAIA: lehenengoa

Neurria: Berezia

Doinua: Maitasuna da bizi izateko

Telegrama bat izan liteke
zorionen iturria.
(Biozbera naiz, holako zerbait
da neretzat azkurria).
Eskutartean dardar batean
dena dut irakurria,
hauxe momentu larria!,
lotzen gaitun uztarria. (bis)
Ene Kattalin, ez da egia,
ni ez naiz xarmangarria;
xarmangarriak dirade zure
arpegia ta irria. (bis)

Era hortako lore sortarik
ez zendun espero bela,
zure barruan sentitu zendun
horrein sorpresa itzela...
Ez zenekien bart arte zure
adiskidea nintzela.
Lotzen gaituen kordela
ez da etengo horrela. (bis)
Atzo gaueko hori ez hartu
erdi mirari bezela;
jakin ezazu, berriro ere
berdin egingo nukeela. (bis)

Hilabetetan sufritu dezu
inork ez daki zenbat min,
alper-alperrik fortuna eta
suerteari hotsegin.
Behar dunari laguntze hori
beti izan dut atsegin.
Ene bihotzeko Kattalin,
nik jokatu nahi nuen fin; (bis)
HIESa duzu eta goxatzen
egin dut hainbat ahalegin,
arantza artean bizi den hori
lore artean hil dedin. (bis)

M. Arozena

Bukaerako agurra

Neurria: 10eko txik.

Doinua: Ai gure antzinako

M. Arozena

Gogorra izandu da
hemengo burruka, (bis)
konparatzeko ere
parekoik ez dauka,
batak bestean gainen
jarri nahi muturka,
bainan gure Manolok
biderik ez dauka,
"farolillo" hasi ta
"farolillo" buka.(bis)

FINAL-AURREAK
Arratsaldeko saioa

BILBO
1993 - 12 - 8

Sorozabal

Hasierako agurra

Neurria: 10eko txik.

Doinua: Mundu hau uzten bazun

Gaiak eta doinuak
ditugu aukeran,
gainontzekoa dago
gure gorabeheran;
ikusi beharko da
nola hasten geran;
horrek esango baitu,
gero bukaeran,
Bilboko ura edo
etxekoa edan. (bis)

J. Arzallus

Hasierako agurra

Neurria: 10eko nag.

Doinua: Mundu honetan holako gauzak

Arratsaldeon, telebistatik
begira dauden deneri;
zer esanik ez zuen sarrera
ordaindu dezuteneri;
suerte ona, nere ondoko
zazpi lagun etsaieri.
Neuri zer esan, ezin baitiot
antzikan hartu ezeri?
Atzera ez nahi, aurrera ezin,
badaukat nahiko komeri. (bis)

S. Lizaso

Hasierako agurra

Neurria: Berezia

Doinua: Arratsaldeon esanaz hasi

"Arratsaldeon!" esanez hasi
(nere ustez komeni zan),
jakin ez arren nagon kasillan,
kapillan edo eleizan.
Sailkapenan peskisan,
normala degun gisan,
nahiz eta denok gabiltzan,
ahaztu gabe hemengotarrek
zer izen duten bizitzan...
bertsoz argitu nahi degu Bilbo,
nahiz ta farol asko izan. (bis)

Euzkitze - Mendizabal

GAIA: Osagilea edo medikua zara zu, Euzkitze,
eta zu Mikel bertsolaria. Lehen kanporaketak
jokatzerakoan pastila batzuk eman zizkizun medikuak
eta aise pasa zenuen. Orain, finalaurrean berriro
zoazkio pastila eske.

8ko txikian ofiziotan
Doinua: Kantatzera nijoa

Mendizabal Xabier berez zera sendagile fina,
lehenago izandu det
zure eragina;
berriz eman zaidazu
lehengo aspirina,
ia egiten didaten
efekto berdina. (bis)

Euzkitze Lehengo efektoa
nahi duzu hain zuzen,
lehen kanporaketa
ongi joan baitzen;
nahiz nik pastilak eman
lasaitu zaitezten,
kontsulta baten zaude
baina ez Lurdesen. (bis)

Mendizabal Ez dut nahi miraririk
hemen eskatzea,

baina ez dut ikusi nahi
zerrenda atzea.
Berriz ere joan nahi dut
zerbait probatzea,
ez baitzait asko ajola
piska't drogatzea. (bis)

Euzkitze

Zuk droga nahi baduzu,
zer erremedio!,
eskean ari zera
serio-serio;
barruak lasaitzeko
dituzu propio;
txarrak meioratzeko
ez dute balio. (bis)

Mendizabal

Txapelketan harturik
aurtengoan parte,
finalerako behar dut
hainbeste bertute,
ta afari haundi bat
egingo genuke
zuk eskeini didazun
laguntzaren truke. (bis)

Euzkitze

Zuk ez ninduzun ba ni
hartuko begitan!
Gaizki mintzatzen zera
hirutatik bitan.
Oraingoa ez zenuen
esango egitan;
dirutan kobratzen dut
ta ez afaritan. (bis)

Mendizabal

Gora igo nahi nuke
hemen eskailera,
eta ahal dala sartu
noski finalera.
Ordainduko dizkizut
guztiak batera;
propina izango da
horren arabera. (bis)

Euzkitze

Pastila hauen kontuan
auzia egonik,
afari txoroekin
nik ez dut nahi bromik;
zutaz gainera badut
txit bezero onik:
Lizasori berauek
saltzen dizkiot nik. (bis)

EUZKITZE: 29 - 26,5 - 29 - 28,5 - 29 - 28 - 28 = 198

MENDIZABAL: 26 - 25,5 - 27,5 - 27 - 28,5 - 26 - 26 = 186,5

X.Zeberio - Sorozabal

GAIA: Zu, Xabier, apaiza zara; eta zu, Jokin, monagiloa.
Autobusean zoazte elizara bidean. Zu, Xabier, apaiza,
Biblia irakurtzen eta monagiloa Interviu aldizkaria
irakurtzen.

8ko txikian ofiziotan
Doinua: Egun batean joan zen

X. Zeberio

Biok eleiza goaz
autoan sartuta;
monagiloa, negok
muturra beztuta,
"Interviu" iradurtzen
biblia ahaztuta,
azkenen neu jarriko nauk
kandela piztuta. (bis)

Sorozabal

Biblia nola degun
moda zaharrekoa,
aldizkari hau, berriz,
nornahi piztekoa.
Lehen ere izango da zuk
erositakoa,
sakristiko kajoian
aurkitutakoa.

X. Zeberio

Ezin hasiko gaituk
tira ta afloja;
bazekit, monagilo,
haizela "alforja".
Neu're aspertu nauk ikusten
horrenbeste monja,
berriz pasazak orain
lehenbiziko hoja.

Sorozabal

Beraz monjak ikusten
aspertu zera zu,
eta biblia hori
etxean uztazu.
Baina rebista hontan
esku sartu dezu:
posterrak falta ditu,
nun gorde dituzu?

X. Zeberio

Oraingo hontan honek
altxa ditu perrak,
eta jakin nahi ditu
apaizan okerrak,
ta nun gorde ditudan
"Interviu"n posterrak;
hoiei esker gozatzen nauk,
Jainkoai eskerrak!

Sorozabal

Erretore hau ez da
alproja ederra,
posterrez bete baitu
sakristi bazterra;
bere bidea ere
deritzat okerra:
bihotzean Jainkoa,
patrikan posterra.

X. Zeberio

Berriz ere bota dit
oraingon epela,
errespeto piska bat
hemen falta dela.
Esan dit nei posterra
tripan "dedautela",
eta tripa azpian
dadukat kandela.

Sorozabal

Nahiz eta erlijio
dexente ikasi,
oraindik ez du hortan
asko irabazi,
eta nahi baldin badu
ona izaten hasi,
berak nahi duenikan
nei ez galerazi.

ZEBERIO: 23,5 - 26 - 25,5 - 27,5 - 25 - 24 - 25 = 176,5

SOROZABAL: 29 - 26,5 - 28,5 - 28,5 - 28,5 - 27,5 - 27,5 = 196

Sorozabal

Rima/Hitza: **MEREZI**

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Balentin berriotxoarena

Txapelketetan sufrimentua
beti izan da nagusi,
ta zuek berriz hemen aurrean
nahi gaituzue ikusi;
ez det esango dena utzita
joango naizenik igesi;
nik ulertzen det zuena, bainan
guk hau ez degu merezi. (bis)

8,5 - 6,5 - 7 - 7,5 - 7 - 7 - 7 = 50,5

J. Enbeita

Rima/Hitza: **EGUNKARIA**

Neurria: Berezia

Doinua: Ez nau izutzen negu hurbillak III

Nahiz eta ez den agintarien
nahia edo guraria
baizik herriak bere izerdiz
eskaini digun saria...
Gure euskeraren egoera da

izan arren grina,
gauzarik txarrena da
nahi eta ezina.

8 - 7 - 7,5 - 7,5 - 7,5 - 7 - 7 = 51,5

J. Arzallus

Doinua: Triste bizi naiz eta

Puntua Istiluak istilu,
 Guggenheim aurrera...

J. Arzallus Izugarria degu
 gaur degun karrera,
 ulertu ezina da
 daukadan barrera,
 Bizkaira etorri naiz
 ni leku txarrera.

6,5 - 6 - 5,5 - 6 - 6 - 6,5 - 6,5 = 43

J. Arzallus

Doinua: Triste bizi naiz eta

Puntua Azkenengo parranda
 noiz egin zenduan?

J. Arzallus Ni oso txintxo nabil
 Hendaia txokuan.
 Hango tabernetan gu
 ez gabiltz jokuan.
 Aspaldi egin nun da
 ez daukat goguan.

7,5 - 7 - 7,5 - 7 - 7 - 7 - 6,5 = 49,5

S. Lizaso

Doinua: Triste bizi naiz eta

Puntua "Zulatuta daukagu

ozono azala"

S. Lizaso

Ez dakit ziur, baina
nik entzun dut hala.
Nahiz eta ez dun beharko
tekniko makala,
inor abilik bada
konpondu dezala.

8,5 - 7,5 - 8 - 8,5 - 7 - 7 - 7 = 53,5

Sorozabal

Bakarka neurri librean

Neurria: 10eko nag

Doinua: Aita izena kanta beharrak

Gaia: Herri txiki bateko alkatea zara zu. Zure herrian azken haurra jaio zela, gaur bete dira 10 urte. Zer dakarkizu burura?

Duela gutxi jarri zidaten
alkatearen papela,
eta geroztik ez zait tokatu
oso lan pila motela.
Egia esan, adiskideok,
ezin da segi honela.
Kontutan izan zerk dakarkien
herritxo honen eskela:
ez zaharrak joaten dirala, baizik
gazterik ez datorrela. (bis)

Neska-mutilok ekin beharra
dadukazute lanari,
beste tokitan jaiotzen dira
ta hemen ez da mirari.
Haurrak komeni zaizkigu eta
ahal baldin bada ugari:
dozenerdi bat ekarri arte
guztiok jo ta ke ari,
neuk ordainduko diot bidaia
aurren ezkontzen danari. (bis)

Nere bizitzan ez det ikusi
honelako pelikula:
kale ertzean haur jolasik ez
eta zahar pila mardula.
Alkate gisan daukadan pena
nik ezin det disimula;
animo!, beraz, lagun maiteok,
eta ez ahaztu sekula
herri txiki bat izanagaitik
jarraitu behar degula. (bis)

24 - 20 - 21,5 - 21 - 21 - 21 - 21 = 150

J. Enbeita

Bakarka neurri librean

Neurria: Berezia

Doinua: Maitasuna da bizi izateko

Gaia: Iratzargailu edo despertadore bat zaitugu. Konta eiguzu, astean zehar, zure txirrina entzutean somatzen dituzun jokaera desberdinak.

Goizero nire lan garratza dut
ahal danik ondoen bete,
nahiz eta sarri kostatzen zaidan
mahaian egotea tente.
Nire tinbrea kontsolagarri
danikan inork ez uste;
baten batzuk naute maite:
ongi esaten didate; (bis)
beste batzuek hor ari dira
beti hasarre jo ta ke:
aste honetan hiru alditan
jada arreglatu naute. (bis)

Nire lana da guztientzako
ernegu ta aldrebasa:
ni naiz goizetan kontzientzia
itxartu dezakeen meza;
baina etsaiak ditut guztiak,
langilea zein apeza.
Inun izan ahal baneza
neronentzako babes... (bis)
Gizonak duen une onena
izanik bere amesa,
ames hortatik ateratzea
ez da lanbide erreza. (bis)

Baina egitan egina nago
gizonekin asper-asper
eta grebaren bat egitera
ausartu behar naiz laster.
Askorentzako, gutxienean,
ni bainau bere Luzifer;
tiraka bazterrik bazter
kuerda daukat erdi oker. (bis)
Nahiz ta ez didaten meriturikan
neri eman gura ezer,
gure mundua itzarrik dago
iratzargailuei esker. (bis)

22,5 - 21,5 - 23 - 21 - 22 - 20 - 22 = 159

Mendizabal - Sorozabal

Elkarrizketa

Gaia: Zuek biok trenean zaudete. Zu, Jokin, interbentorea
zaitugu; eta, zu, Mikel, berriz, komunean orduerdi
daraman bidaiaria.

Neurria: 10eko txik.

Doinua: Antton eta Maria

Sorozabal

Gure lanbidea da
oso arlotea,
ezin emanik nago

ni errematea.
Zu komunean zaude
ta, antza, betea;
ez badezu bukatu
zure banketea,
ate azpitik eman
neri biletea. (bis)

Mendizabal

Nere estomagoa
zegon oso ernai:
beherakoa sartu zait
larria ere bai,
ta interbentorea
hoska daukat hor zai.
Galtzak baino lehen
ez nuke altxa nahi,
lanak bukatu arte
egon zaite lasai. (bis)

Sorozabal

Lehenengo hori da
garbi ta nabarmen,
ateratzea hobe
bukatu ondoren;
baina zeuretzat hori
igual kalte omen,
lehenbailehen bukatzea
hobe dezu hemen,
zeure estaziotik
pasatu baino lehen. (bis)

Mendizabal

Ia pasatu ditut
estazio pila
ta oraindik ez nago
erabat trankila.
Garbitzeko ezer ez,
hau da ixkanbila!
Presentatu nahi nuke
tajuzko mutila
ta zoaz konsignara
paperaren bila. (bis)

Sorozabal

Garbitzeko ezer ez,
hau ez da atsegin
ta paperaren eske
didazu hitz egin.
Biletea eman gabe
ez det nahi aldegin;
nik itzuliko dizut
zulatzean berdin,
ta garbitu ezazu
gero berarekin. (bis)

Mendizabal

Zer pentsatzen ai naizen
eginik aitormen,
lotsarik ez dezula
dakusat nabarmen;
horrekin garbitzeko
esanez bederen,
gizon atrebitua
jarri zera hemen;
garbituko det baina
zuri eman baino lehen. (bis)

MENDIZABAL: 25 - 25 - 26 - 27 - 27,5 - 27,5 - 27,5 = 185,5

SOROZABAL: 27 - 27 - 26 - 28 - 28 - 27,5 - 27,5 = 191

Mendizabal

Bukaerako agurra

Neurria: Gure Bilboko ekinaldia

Doinua: Berezia

Gure Bilboko ekinaldia
honetan dugu utzia;
erabakia falta da orain,
horretan dago auzia.
Gaztearen presentzia
aurten degu ikusia,
izen berrien promozioa
indartzen dago hasia
ta txapelketak bete du bere
eginkizun nagusia. (bis)

J. Enbeita

Bukaerako agurra

Neurria: 8ko txik.

Doinua: Minberatu zaizkigu

Juezak hartu dute
euren atsedena,
entzule hartu duzu
zeure atsedena,
haundia izan bada
zuen atsedena,
nolako izango da, ai ai ai ai!
nire atsedena?

FINALA

Goizeko Saioa

DONOSTIAN

1993 - 12 - 19

S. Lizaso

Hasierako agurra

Neurria:8ko nag.

Doinua: Bizia ez da nehoiz egoiten

Agurrarekin nahi nuke nere
nahi ta ezina haustia,
dardarrez daukat gorputza eta
izerdi hotzez bustia,
ta lasaitzeko ez da nahikoa
harrera hau ikustia;
pena litzake bertsoen mailak
giro honi ez eustia,
belodromora begira baita
gaur Euskalerra guztia. (bis)

Peñagarikano

Hasierako agurra

Neurria:10eko nag.

Doinua: Santa Barbara zure bizitza II

Iragarrita zegon bezela,
bete da bertsoedromoa;
esan beharrik ez dago, berriz,
zein dan dakargun asmoa.
Ez ote gauden uste bezela
nik badaukat, bai, susmoa.
Kezka txiki bat daukat nerekin
eta agertzera noa:
hau euskeraren ispilu degu
edota espejismoa? (bis)

U. Iturriaga

Hasierako agurra

Neurria:8ko nag.

Doinua: Nafarroako mendi gainetan

"Kaixo" esanda saio eskaintzen
beharko dut hemen segi:
aste honetan hartu dituzten
intsumiso guztieri
ta Espainian zeldarik zelda
dabiltzan guzti hoieri,
beraiek gabe gaurkoak asko
ez baidit ajola neri. (bis)

A. Lopategi

Hasierako agurra

Neurria: 10eko nag.

Doinua: Mutil koxkor bat itsuaurreko II

Neure partez be bada lagun bat
agurtu gura nukeena:
Jabi Arriaga "Txiplas" geurea
Valentzian preso dutena,
beste seirehun bat abertzale lez
tinko zutik dagoena.
Denak kanpoan ikusteko nik
badaukat itxaropena;
dudarik gabe, hori litzake
denontzat txapel onena. (bis)

Euzkitze

Hasierako agurra

Neurria: 9 puntukoa

Doinua: Betroiarena

Bidaia egin ondoren
bertsoen munduan,
tren zaharra gaur sartu da
belodromuan.
Ez dakit ezer baden
kaskezur barruan;

denok ezin kabitu
onenen karruan.
Geroko punttuan
jartzeko moduan,
bederatzikuan
hasi naiz kantuan;
doinua badakidan
jakin nahi nuan. (bis)

Egaña

Hasierako agurra

Neurri:10eko nag.

Doinua: Aita izena kanta beharrak

Iritsi gera txapelketaren
inularreko ordura,
bertsozalea izan da beti
guzti honen hezurdura.
Zuen jarrerak, gure kantuk,
denak sortzen dit ardura;
hain da hestua zaletasuna
eta morboaren muga,
guri eskerrak goza zazute
eta ez gure kontura. (bis)

J. Enbeita

Hasierako agurra

Neurria: 8ko txik.

Doinua: Olentzero joan zaigu

Olentzero lez nator
bertsoen lanera,
intentzioarekin
ondo egitera.
Aditu dudanean
zuen txalo hotsa

urduri jarri zaizkit
buru ta bihotza.
Horra, horra,
entzulea bero,
irriparra hortzean
eserita dago.
Aurpegia eman behar
arrautzatxoekin,
gero meriendatzeko
txapel beltzarekin.

Sorozabal

Hasierako agurra

Neurria: Berezia

Doinua: Begira nago jarria

Belodromoa estrenatzen det
zuei zerbait eskatuta:
Egin esfuertzo txiki-txiki bat
bertsoak liluratuta;
pronostikoak, faboritoak,
ta kinielak ahaztuta,
ez morboak txoratuta.
Itxi begiak, egin barruan
bakoitzak bere burruka;
bertsoak bere balio dena
mamian izaten du ta. (bis)

S. Lizaso- Peñagarikano

GAIA: Urtegi bat egiteko langileak behar zirela eta izenak eman dituzue zuek biok. Haruntz joan eta bertako liskarrak ikusi ondoren, Sebastian Lizasok, zuk, etxera itzultzea erabaki duzu. Peñagarikanok bertan gelditzea.

8ko nagusian ofiziotan

Doinua: Txoriak eta txoriburuak

S. Lizaso

Lanpostu baten bila nebilen
langabezian nago ta.
Etorri aurrez zer gertatzen dan
neri ez zidaten konta.
Zer dan ikusi, dena utzi ta
joatea ez zait inporta;
lanik ez dut nik hemen egin nahi
herrian gogoan kontra.
(lanikan ez dut hemen egin nahi...)

Peñagarikano

Gure bizitzak berekin ditu
hainbat lauso eta laino:
liskarra ikusi ta hartu dezu
hemen zenbait desengaino.
Aizu laguna, geratu zaitez,
ez zaite izan horren ñaño;
lana eginda bizi hobe da
paroan segitu baino. (bis)

S. Lizaso

Dirudienez ene laguna,
bihotzik gabea zera,
liskar da guzti zergatik eman
lan berriari hasera?
Herrian kontra saiatze horrek
arantza bat bihotzera;
honutz lanera etorri gera
ta ez liskarra sortzera. (bis)

Peñagarikano

Inolaz ere ezin bilatu
nahi genukeen hainbat pake:
urtegin kontra gaur herritarrak
hemen dabilta jo ta ke;
izugarriak entzunda ere
ajolikan ez dit bate,
hemen protestan dabiltzan hoiek
bere lana badaukate. (bis)

S. Lizaso

Zer pentsamentu klase ditudan
aitortu dizut lehenago,
kontzientziai jarraitzen diot

eta bestela akabo;
lantegi hortara deituagatik
presaka ez naiz joango,
gizon bat ez da inoiz izaten
herri bat baino gehiago. (bis)

Peñagarikano

Urtegi honek ipini ditu
hainbeste hesi eta traba,
ta protestatzen hemen ai dira
joan daneko bolada.
Bainan nik lana hola ta hola
gaur ezin dezaket laga,
bestela nola biziko dira
emaztea ta alaba? (bis)

S. Lizaso

Zurekikoa egin ezkerro
beraz ez zaizu kupida,
ta herritarrak sartuak zaizkit
neri bihotzan erdira.
Bultza ta tira, borrokan dabiltz,
beren etxeei begira;
egiten bada penaren penaz
malkotan itoko dira. (bis)

Peñagarikano

Hola uste arren ez pentsa gero
nabilenik hain aldrebes;
lagun ez zazu bueltarik hartu,
zatoz nerekin, mesedez.
Hemen protestan ari direnak
(nik egingo nuke trabes),
gero urtegia egindakoan
bainatzera etorri baietz. (bis)

LIZASO: 28,5 - 28,5 - 28 - 28 - 29 - 29 - 28,5 = 199,5

PEÑAGARIKANO: 26 - 27,5 - 26,5 - 27,5 - 27,5 - 28,5 - 28 =
191,5

U. Iturriaga - A. Lopategi

GAIA: Urte batzuk dituzuen bi lagun zarete zuek. Zuk Aritz,
urteen eragina disimulatzen ahalegina egiten duzu.
Zuk, Unai, ez duzu ezer ezkutatu nahi.

8ko nagusian ofiziotan
Doinua: Nafarroako mendi gainetan

U. Iturriaga Nahiz eta denok dugun gogoia
beti gazte izateko,
dagoeneko okertu dira
gure belaun eta lepo,
eta alperrik jantziko zera
sekula baino hobeto.
Nere partetik ez dut lotsarik
naizena erakusteko. (bis)

A. Lopategi Urteak gora dijoaz eta
hauek bai une tristeak!
Baina laguna zurelakoak
ez dira nire usteak,
disimulatu nahi bait nituzke
pasatutako urteak,
ia engainatzen ditugun hola
oraingo neska gazteak. (bis)

U. Iturriaga Neska gaztea dagon tokian
gazteekin egon dadila;
zahartzen gabiltz baina hainbesteko
trauma ere ez da, mutila.
Zure sasoi hori da eta
altxa ezazu makila,
alperrik zabiltz biaje horretan
denpora galduen bila. (bis)

A. Lopategi Bihotza gazte daukat nik eta
ez zaidazu jo adarra,
oraindik ere etorkizuna
daukagu nahiko edarra;
nahiz ta igual gu biok garen
nahikoa bikote zaharra,

planta txukuna eramatea
inoiz ere ez da txarra. (bis)

U. Iturriaga Ez dut esaten itxura txarrik
behar dugunik atara,
ez dut esaten gure arropak
behar ditugunik laga,
baina gazteak ahaztu itzazu
ta ez zaite joan Palmara,
gure sasoiak tokatzen dana
Zestuko bainuetxea da. (bis)

A. Lopategi Zu agureen gisan zabilta
ta ni berriz hemen galai;
urteak pasa eiten direla
konturatu nintzan garaiz.
Neska gazteak hemen dabilta
tabernetan modu alaiz;
juan zaitez zeu bainuetara,
ni hemen geldituko naiz. (bis)

U. Iturriaga Guardia zibilen painelu horrekin
uste du dagola guapo...
"Grecian dos mil"-a eman ezazu
kana zuri hoientzako.
Nere herritik urbil badaude
disco, pub eta halako...
"Azken aukera" deitzen diote,
baina ez dago horren txarto. (bis)

A. Lopategi Nire itxura kritikatzeko
hor ari zara lanean,
eta ni, berriz, ondo janzteko
gogo eta afanean.
Gero ez zaite haserre jarri,
ene lagun, azkenean,
hemen kanpoan neska batekin
etxerantza noanean. (bis)

ITURRIAGA: 27,5 - 29,5 - 28 - 26,5 - 28 - 30,5 - 30,5 = 200
LOPATEGI: 24,5 - 29 - 27,5 - 25,5 - 27,5 - 27,5 - 28 = 189,5

Euzkitze - Egafia

GAIA: Loa ere ez dugu guztiok berdin behar, ezta zuek ere.
 Andoni Egañak egunero 12 ordu lo egiten ditu.
 Xabierrek aldiz, sei ordurekin aski du.

8ko nagusian ofiziotan
Doinua: Balentin berriotxoarena

Euzkitze Badakit loa premizko dala,
 aitortzen dizut egia;
 baina, laguna, zure premia
 ez ote da gehiegia?
 Lanean nere arima uzten dut
 ta mendian izerdia,
 alper-alperrik ez dut galdu nahi
 nere bizitza erdia. (bis)

Egaña Hau zutik oso gustora dabil,
 ni postura etzanean;
 nere joera askoz hobe da,
 nere uste otsanean.
 Sekretutxoa zertan dagoen
 esango det azkenean:
 zu lanean lo egoten zera
 eta ni lotan lanean. (bis)

Euzkitze Lo kontu hori zein hizjokoa!
 Horrek utzia nau mutu,
 baina nik ez dut horren alperrik
 orain arte ezagutu.
 Ez zaitezela hamabi orduko
 premiarekin itsutu,
 nik amets egin baino nahio dut
 ametsak egi bihurtu. (bis)

Egaña Halare pozik murgiltzen naiz ni
 maindire tarte eztira;
 ametsak badu egiak ez dun
 indarra eta deztira.
 Egia garbi jakingo dezu
 haurtxo txikiei begira:

hamabi orduz daukate loa,
ta haurrak tontoak ez dira! (bis)

Euzkitze

Saiatu arren ez dut ulertzen
zure bizitzaren martxa,
ez al dakizu zahartzaroa
ez dela izaten txantxa?
Haurrek dituzu gaur konsuelo,
hoiek zure esperantza;
haien neurrian geratu zera,
hori da zure akatsa. (bis)

Egaña

Denon eskura daukagu loa
ta gainera merke-merke;
loaren bidez uxatzen degu
mila pena eta neke:
lokartu aurretik nere burua
trenai botako nioke
ta esnatzean, sarri askotan,
trena erosiko nuke. (bis)

Euzkitze

Trenaren loak eskeintzen dizu
zuri makina bat amu,
neretzat, berriz, hor usteltzea
etsipenezko inpernu.
Zuk ba al dakizu zer pasako den
etzi edo etzidamu?
Gero alperrik esango duzu:
"lehen aprobetxatu banu..." (bis)

Egaña

Gaur egunean lotia naiz ni,
lotia nintzen txikitan;
ta Euzkitze hemen daukagu
bere ernegatu pintan.
Atzo're zegon Egañak daukan
patxadaren inbiritan...
telefonotik ez deitu neri
goizeko zazpi t'erditan. (bis)

EUZKITZE: 27,5 - 28,5 - 27 - 29,5 - 28,5 - 30,5 - 28,5 = 199,5
EGAÑA: 31 - 30 - 29 - 32 - 29,5 - 30,5 - 30,5 = 212,5

J. Enbeita - Sorozabal

GAIA: Enbeita eta Jokin Sorozabal, biok lankide eta adiskide zarete. Nagusiak Enbeitari kargu berria eman dio. Gaurtik aurrera Sorozabalen enkargatu izango da.

8ko nagusian ofiziotan
Doinua: Arratsaldeon lendabizitik

J.Enbeita Era honetan hautatzeari
ezin diot egin uko,
baina argitu nahi ditut gauzak
berandu izan orduko:
inguruan den lankidegoa
ipini nahi dut lekuko,
orain arteko hartu emanak
ez dirala aldatuko. (bis)

Sorozabal Enkargatua jarri dute ta
nik kopetik ezin beztu;
izan ere gu lagunak ginan,
hori ezin leike ahaztu;
baina gaur gauzak aldatu dira
eta ez ditzagun nahastu;
-berorrek zerbait nahi duenean
eskatu besterik ez du-. (bis)

J. Enbeita Gu elgarrekin ibili gara
lan berdinean luzaro,
orain zu behean eta gainetik
gidari bezala nago;
nahiz eta sarri beste batengan
agintzea izan nahiago,
zuk zeure lana bete ezker
problemarikan ez dago. (bis)

Sorozabal Diplomaziaz ikusten degu
osatzen dala konpleto,
pazientzia ere badauka
gauzak txukun esateko:
nik nere lana bete ezker
izango dala hobeto...
Orain ni nago lanerako ta

hau itxurak egiteko. (bis)

J. Enbeita
Beraz gaurdanik egin behar dut
besteen lana ikusi;
itxura horri erantzunikan
nahi dizut adierazi:
disimulu ta hautumaututan
zirika ez zaite hasi,
edo bestela esan beharko dut
nor dugun hemen nagusi. (bis)

Sororozabal
"Ni naiz nagusi" esaten badu
honek intentzio pranko,
zuzendariak hautatu baitu
hau enkargatutzarako,
ta horregatik bere esana
nik zintzo bete beharko;
ez bizkorrena zalako, baizik
merkeena bera zalako. (bis)

J. Enbeita
Nik uste bezain garbi ez duzu
laguna zeure barrena,
ta zirikadaz mingaina ere
ez duzu bate herrena.
Esaten dizut, ez zaite hasi
neri jo nahirik "arrena".
Onean oso gizon ona naiz,
baina txarrean txarrena. (bis)

Sorozabal
Estimatzen det gauzak hain garbi
dizkidazulako esan,
komeni zen da gaur hemen gauzak
garbi ulertu genitzan.
Aukera egin beharrekoa
une hau dezu bizitzan:
nere laguna jarraitu edo
haren monagilo izan. (bis)

ENBEITA: 26 - 27,5 - 26 - 23,5 - 28 - 28 - 28,5 = 187,5

SOROZABAL: 26,5 - 29 - 26 - 30,5 - 28 - 28 - 28,5 = 196,5

S. Lizaso

Neurria: 8ko txik.
Doinua: Ene Lukkas maitea

Lau oinak: **liderra, posterra, ederra, eskerra.**

Eginda jasotzen da
munduan eskerra
ta txapela lortzea
litzake ederra,
hartara ni nintzake
taldeko liderra
ta rebista denetan
Lizason posterra.

8,5 - 8,5 - 7 - 7,5 - 7,5 - 8 - 8 = 55

S. Lizaso

Doinua: Xarmangarria zera

Puntua Batzuen lanarekin
bestek luzitu,

S. Lizaso nahiz ta horrek ez duen
hainbeste meritu;
kontra egiten zertan
gu ez atrebitu,
beti ezin gindezke
gu morroi gelditu.

6,5 - 7,5 - 7 - 8 - 7 - 8 - 7,5 = 51,5

Hitza/Gaia: **SEASKA**

Neurria:9 puntuko txik.
Doinua: Gaztalondo handian

Aita kantuan eta
ama errezuan,

seaskaren ondoan
ohi dan kasuan;
ni hantxe egon nintzan
hautzaro osuan,
garbi eta txukuna
nere lo goxuan.
Geroko pausuan,
hala behar zuan,
jakin det auzuan
zer pasa omen zuan:
etxeakin batera
suak erre zuan. (bis)

5,5 - 5 - 5 - 5,5 - 5 - 4 - 3 = 33

Peñagarikano

Neurria:8ko txik.
Doinua: Nere senarrarekin

Lau oinak: **begia, egia, ia, haragia.**

Baserriei begira
daukat nik begia:
pentsua zein garesti,
merke haragia.
Baserria lur jota
egun dago ia;
jaunak, esan dedana
bai dela egia! (bis)

7 - 7,5 - 6,5 - 7 - 7 - 7 - 7 = 49

Peñagarikano

Doinua: Xarmangarria zera

Puntua Ahal bada eutsi zaiozu
bihotzari gazte...

Peñagarikano Batzuetan alai ta
besteetan triste;
hain gazte nagoenik
ez zazula uste,

izan ere badaukat
mila buruhauste.

6 - 6,5 - 7 - 6 - 7 - 7 - 7 = 46,5

Peñagarikano

Hitza/Gaia: **DANBOLINA**

Neurria:9 puntuko txik.

Doinua: Gaztalondo handia

Zakua hartu eta
biltzen dut gaztaina,
nahiz ta beti ez bildu
nahi nukeen aina.
Gaztainak jateko're
bagenun premina;
amona izate genun
lagun atsegina.
Beltza ta zikina,
aitonak egina.
Gaztain ta sardina
zein afari fina!
Zeinen gauz polita den
gaur tanbolina! (bis)

6 - 6,5 - 7,5 - 6,5 - 6 - 8 - 7,5 = 48

U. Iturriaga

Neurria:8ko txik.

Doinua: Errota zar maitea

Lau oinak: **igorri, gorri, etorri, horri.**

Jentetzaren erdian
norbait dago gorri;
berak nahi luke baina
ezin zan etorri,
eta nik gaur zer esan

ikusten dugun! (bis)

8,5 - 8,5 - 8 - 8 - 7,5 - 9 - 9,5 = 59

A. Lopategi

Neurria: 8ko txik.

Doinua: Nigarrez sortu nintzen

Lau oinak: **ito, ejerzito, mito, kito.**

Euskalerrian bada
hainbat ejerzito
eta intsumisoak
egin dira mito.
Militar botarekin
nahi gaituzte ito;
denak kanpora bota
ta horrela, kito!

6,5 - 7,5 - 7 - 7,5 - 7 - 8 - 7,5 = 51

A. Lopategi

Doinua: Xarmangarria zera

Puntua Izerdiak beti du
zapora mikatza.

A. Lopategi Denok pasatzen dugu
hain une garratza;
nik hemen be galdua
daukat esperantza,
ezin baidut gaur egin
nahikoa arrantza.

5,5 - 6,5 - 5,5 - 6 - 6 - 6 - 6,5 = 42

A. Lopategi

Hitza/Gaia: **BIHAR**

Neurria: 9 puntuko txik.
Doinua: Betroiarena

Txapelketak jarri zun
martxan bere trena;
batzuk hautsi ditugu
zenbait eskema,
baina final haxe da
unerik txarrena,
noiz nahi egin daiteke
fallo edo herrena,
ta horren hurrena
a zer zoramena!
Biharko ordena,
nago ziurrena,
gaur baino lasaiago
egongo naizena. (bis)

7,5 - 7,5 - 7,5 - 6,5 - 7 - 7 - 8 = 51

Euzkitze

Neurria: 8ko txik.
Doinua: Realzaleok maite

Lau oinak: **Atoxa, hotsa, hotza, bihotza.**

Realzaleok maite
genuen Atotxa,
baina gaur Anoeta
ez da egongo hotza.
Golik sartuko balitz
hura txalo hotsa!,
nik ere txuri-urdin
baidaukat bihotza. (bis)

8 - 7,5 - 7,5 - 7 - 8 - 7,5 - 7,5 = 53

Euzkitze

Doinua: Xarmangarria zera

Puntua Inoiz gezurak ere
 baluke tokia...

Euzkitze Neuk gaur bat esatea
 dut erabakia:
 "Bate zimurrik gabe
 daukat bekokia".
 Burura etortzen bada
 bota ta pakia.

7,5 - 7 - 6 - 6,5 - 6 - 6,5 - 6,5 = 46

Euzkitze

Hitza/Gaia: **ZENTSURA**

Neurria: 9 puntuko txik.
Doinua: Gaztalondo handian

Euzkitze Nik Iurretan igaro
 ohi dut maiz eguna,
 informatzea baita
 nere jarduna;
 hori da nere lana
 ta eginkizuna,
 askotan ikaratu
 ta bildurtzen nauna,
 batzutan iluna,
 bestetan astuna.
 Entzuidazu, Jauna,
 nere ohiartzuna:
 "Gora adierazpen
 askatasuna!" (bis)

7 - 8 - 7,5 - 7,5 - 8 - 9 - 8,5 = 55,5

Egaña

Neurria: 8ko txik.
Doinua: Kantatzera nijoa

Lau oinak: **azkena, dena, pena, omena.**

Rusiak jaso beza
guztion omena,
egungo egoerak
sortzen baitu pena.
Zirinoski-ren hori
izan da azkena
eta, igual, zirinez
beteko du dena.(bis)

8 - 8 - 7,5 - 7,5 - 8 - 8 - 8 = 55

Egaña

Doinua: Xarmangarria zera

Puntua: Goseak dagonari
sermoirik ez egin.

Egaña Jan nahi duen hari guk
zertako hitz egin?
Halako rollorikan
ez zaie atsegin,
lagundu egin behar zaie
piska't zuti dedin.

5,5 - 6 - 6 - 5,5 - 6 - 7 - 7 = 43

Egaña

Hitza/Gaia: **IRRIFARRA**

Neurria:9 puntuko txik.
Doinua: Gaztalondo handian

Gaur goizean pasa det
ikararen marra;
andrea han zebilen
tirri ta tarra:
gosaria prestatu,

ez zegoen txarra;
azkenean esan dit:
"Ario senarra",
muxu bat suharra,
haretzek zun garra!
Barreneko harra
zure irriparra;
horixe da inporta
zaidan bakarra. (bis)

10 - 9 - 9 - 9,5 - 8,5 - 9 - 9,5 = 64,5

J. Enbeita

Neurria: 8ko txik.
Doinua: Gaurko egoera hau

Lau oinak: **kabala, zabala, bala, dudala.**

Gaurko egoera hau
ez da hain kabala:
izerdi ta odolez
Euskadi zabala.
Gogorkeria, jakin,
gorroto dudala;
hala ere norbaitek
merezki du bala.

7,5 - 7 - 7 - 7,5 - 7 - 7,5 - 8 = 51,5

J. Enbeita

Doinua: Xarmangarria zera

Puntua "Jokoa ez da errenta"
galtzaileak dio.
J. Enbeita Nik ere esan behar
serio serio,
nahiz da emaitzik ez den
jakin oraindio,
gaizki egin da harrotzeak

ez baidu balio.

7 - 6,5 - 6 - 6 - 6 - 7 - 7 = 45,5

J. Enbeita

Hitza/Gaia: **LAZKAO-TXIKI**

Neurria: 9 puntuko txik.

Doinua: Gaztalondo handian

Beti izaten nintzen
zure bertsoen zai,
entzun soilak jarri nau
izerditan blai.
Gorputzez txiki baina
tinko eta ernai,
bihotza zabalduaz
entzuleai nunahi,
hainbat amesen kai,
hainbat irrien gai,
tristuraren etsai,
euskotarren anai...
Beste bizitzan ere
zeugaz nuke nahi. (bis)

8,5 - 9 - 8,5 - 8 - 8,5 - 7,5 - 8,5 = 58,5

Sorozabal

Neurria: 8ko txik.

Doinua: Bautista Basterretxe

Lau oinak: **desio, adio, medio, balio.**

Txapelketako azken
hau dela medio,

lan on bat besterikan (bis)
ez nuke desio;
txapelik gabe egin
beharko adio,
gaur intentzio hutsak (bis)
ez baitu balio. (bis)

8 - 8 - 7,5 - 8 - 7 - 7,5 - 7,5

Sorozabal

Doinua: Xarmangarria zera

Puntua "Gerrikoa hestutu"
entzuten da sarri.

Sorozabal Erantzun behar zaio
jende klase horri:
"gerrikoa hestutzeko
mezua ekarri,
eta berak nahi duten
neurrikoa jarri!"

9 - 8 - 7 - 9 - 7 - 8 - 8 = 56

Sorozabal

Hitza /Gaia: **GOSEA**

Neurria: 9 puntuko txik.
Doinua: Betroiarena

Nahiz ta ez dagon modan
asko gizentzea
eta jan edanetik abusatzea...
Ez da osasungarri
hortik pasatzea,
bainan nork probatu du
hurrengo klasea:
jana faltatzea
eta flakatzea,
indarrak ahultzea?

Hori bai trantzea!
Gauzarik ederrena
ez probatzea. (bis)

7 - 7 - 7 - 7,5 - 6,5 - 6,5 - 7 = 48,5

Peñagarikano - U. Iturriaga

GAIA: Unai Iturriaga eta Peñagarikano biok ikasleak zarete. Uda garaia dugu eta Iturriaga taberna batean ari da lanean. Peñagarikano berriz, parrandaz-parranda etengabe zabilta. Une honetan mostradorean aurrez-aurre zaudete.

"Haizak hi mutil mainontzi" neurrian ofiziotan
Doinua: Dozena bat bertso berri

Peñagarikano Gure ikasle papera
 orain noa betetzera,
 guk alkarrekin egiten degu,
 bai, gaurko karrera.
 Batera eta bestera,
 parrandan ibiltzen gera:
 kaixo kolega!, aspaldikoa,
 "Gin kas"-a atera.

U. Iturriaga Klasean batera geunden,
 norbaitek hala nahi zuen...
 ginebra "Atxa"kin "Gin-Kas" bat hemen
 arren eta arren;
 zutik balego bederen!...
 Eta ni lanean hemen.
 Mozkor zaudela zuk ez dakizu
 zein astuna zaren! (bis)

Peñagarikano Nik "Gin kas"ak barrenean,

ez nago okerreanean,
bastante pelma jartze omen naiz
hola nagonean,
eta bere esanean
hasarretu azkenean;
mozkorkerian segituko det,
zuk segi lanean. (bis)

U. Iturriaga

"Pasa kolega, aupa tu!",
mingaina zaio trabatu,
barra guztiko baso zikinak
behar dizkit batu.
"Gin kas"a dik gaur eskatu
ta nik dirua jokatu:
Anis "El mono" botako diot
ta ezetz enteratu. (bis)

Peñagarikano

Honen amorrazioa,
agian badu zioa;
ta edatea beti izan da
nere obsesioa.
Ta zu ez zera iaioa.
Suspenditzeko jaioa...
Espabilatu zaite "patillas",
tonto arraioa! (bis)

U. Iturriaga

Ze hitza duen atara,
hola juango zaio gaba,
ingurukoak berai begira
farre ta algara.
Esandakoa hala da:
"-patillasa- zu omen zara".
Lejia piska't botako diot
orain beharbada. (bis)

PEÑAGARIKANO: 22,5 - 23 - 22,5 - 22 - 22 - 23 - 22 = 157

ITURRIAGA: 22,5 - 23 - 22 - 21 - 23 - 23 - 23 = 157,5

A. Lopategi - S. Lizaso

"Haizak hi mutil mainontzi" neurrian ofiziotan

GAIA: Sebastian, kale bazterrean musika jotzen ari zarela,
Aritz Lopategi, orkesta sinfonikoko zuzendaria,
inguratu zaizu eta adi-adi egon zaizu.

Doinua: Aizak hi mutil

A. Lopategi Kale bazter honetara
eman dut neure bolada
ta gitarrakin jo ta ke hortxe
zu aurkeztu zara.
Hori da hori patxada,
ritmoa eta algara;
nahi al zenduke jotzera etorri
neure orkestara? (bis)

S. Lizaso Ni beti ohi nabil festan,
ez beste zerbaiten kezkan;
zuzendaria, ez zaitez hasi
nerekin protestan;
ni ez naiz saltzen bi peztan,
gauz normala nola ez dan;
ni bezelako artistarikan
ez dezu orkestan. (bis)

A. Lopategi Badut nahiko errespeto
zuri haxe azaltzeko:
argi ta garbi eskaini dizut
orkestan sartzeko;
berriz nago esateko
niregana etortzeko,
zu baino hoberik ez da egongo
bonboa jotzeko. (bis)

S. Lizaso Ez negon bisitaren zai,
negon bakarti ta lasai.
Soinean ere edukiko det
hainbat zikin usai;
bainan gu konpontzeko gai
gera ta, zu egon lasai;
instrumentua berria nahi dut,
trajea ere bai. (bis)

A. Lopategi Fuerte egiten du algara,

fuerteegi beharbada.
Laguna, pentsa egizu eta
har zazu patxada;
ez zaite izan ikara,
etorri nirekin hara,
eta "cuarenta principales"en
agertuko zara. (bis)

S. Lizaso

Joango banintza zelebren,
hura zer dan jakin gabe...
Beraz, neretzat ez da izango
hainbeste mesede.
Jantzita dotore-dotore.
Ez joanda askozaz hobe,
neu izango naiz musiko eta
ni neu direttore. (bis)

LOPATEGI: 18 - 19 - 17,5 - 17,5 - 18,5 - 19,5 - 19,5 =129,5
LIZASO: 19 - 19 - 17 - 18 - 20 - 19,5 - 19,5 =132

Egaña - J. Enbeita

"Haizak hi mutil mainontzi" neurrian ofiziotan

GAIA: Andoni, senarra; eta Jon Enbeita emaztea. Biok zarete fededunak. Zuen semetxo bakarra, gaisotasun baten ondoren hil da. Amari, ezbehar honi aurre egiteko, fedeak ematen dio indarra. Aitak, orain bere zalantzak ditu.

Doinua: Aizak hi mutil

Egaña

Bizitzaren merkatua...
Nago neka-nekatua.
Ez zen haundia, inola ere,
haurran pekatua.
Zein puta degun patua:
gure ume sagratua...
Lotan al zeunden, ene Jaungoiko
madarikatua? (bis)

J.Enbeita

Ez zaite izan ergela,
trantzea da hain goibela:
portutik irten orduko ito
haurraren batela!
Badakit bizirik dela,
fedea dion bezela,
buruarekin egingo nuke
senarra bestela.
(nere buruaz egingo nuke
senarra bestela.)

Egaña

Egutera da laiotza,
bizkarrean dut aihotza,
horrexegatik mila zatitan
hausi zait bihotza.
Umea dugu hilotza;
laister Jesusen Jaiotza,
halare horrek ez du estaltzen
haurran heriotza. (bis)

J.Enbeita

Bihotza dut irakiten
ta erraiak eragiten,
gertatu arte, zein beltza dugun
ez baita jakiten.
Bizirik dago nonbaiten,
guri laguntza ematen;
zeren lurrean usteltzeak ez du
grazirik egiten. (bis)

Egaña

Sinimentsu dago ama,
haurra lurpean etzana;
nola arraio kendu digute
hain haurtxo otsana?
Hossana eta hossana,
hainbat alditan esana!
Damu bat daukat: garai batean
fededun izana. (bis)

J. Enbeita

Hau da daukagun gudua:
fedearen helburua.
Ezberdina da, ene senarra

dugun aburua.
Ez zazu nahastu burua,
hain da zikina mundua.
Haurtxo polit bat lehen bagenuen,
orain aingerua. (bis)

EGAÑA: 24,5 - 24,5 - 23,5 - 22,5 - 24,5 - 24 - 24 = 167,5
ENBEITA: 20 - 20,5 - 21,5 - 19 - 21 - 20 - 20,5 = 142,5

Sorozabal - Euzkitze

GAIA: Zuek aita-alabak zarete. Xabier, aita; eta Sorozabal, alaba. Elkarrekin bizi zarete. Aita apartatua da eta berriro beste batekin ezkondu bizi da. Egongelan orain arte egon izan den argazki zaharra, aurreko emaztearekin egina, kentzen ari dela alaba azaldu da.

"Haizak hi mutil mainontzi" neurrian
Doinua: Aizak bi mutil

Sorozabal Oso pozik eta tinko
 nik ama nuen begiko;
 behin joan zan eta berriro ez da
 hona itzuliko.
 Ez zera kentzen hasiko,
 hor egongo da betiko,
 nere amari burlik egiten
 ez dizut utziko. (bis)

Euzkitze Zure amaren pozean
 bizia urte luzean,
 argazki hori kentzeko asmoa
 dut gaur arratsean
 nahiz eta orma hutsean,
 argazkirikan ezean,
 ez al duzu ba ondo gordea
 zure bihotzean? (bis)

Sorozabal Hartu duzu hainbat usai
 andrea da zure etsai,

kanpora joan zan eta geroztik
bizi zera lasai,
baina kuadroak hor jarrai,
ni ez naiz baztertzeke gai;
barruan gorde nahi nuan bainan
kanpoan ere bai. (bis)

Euzkitze

Benetan ari natzaizu,
nola zaude hain berritsu?
Aitari kontuz hitz egiozu,
arrote mukizu!
Haserretua naiz, aizu;
zer arraio behar dezu?
Abandonatu egin zintula
ahaztu egin al zaizu? (bis)

Sorozabal

Horixe da zoritxarra:
orain hau entzun beharra;
esan nahi dezu izan nuela
oso ama txarra.
Nik egindako negarra,
ahaztu ezin den deiadarra.
Zuk bi emazte dituzu, bainan
nik ama bakarra. (bis)

Euzkitze

Argazkirik ez dut hausi,
baina hemen ez da bizi.
Orain beste bat inguratu da
maleta ta guzi.
"Nere amatxo ez haiz hi"
entzunda joan da ihesi.
Ni maite naunak zure bihotzik
ez al du merezi? (bis)

SOROZABAL: 21 - 24 - 23 - 23 - 24 - 23 - 23 = 161

EUZKITZE: 23 - 23 - 22 - 21,5 - 23 - 22 - 22,5 = 157

S. Lizaso

Bakarkako lana

GAIA: Haur txiki bat duzue etxean. Gauero negar eta zalaparta ez dizue lorik egiten uzten. Lanera joateko jaikitzen zarenean, ordea, lo gozoan ikusten duzu.

Neurria: Berezia

Doinua: Maitasuna da bizi izateko

Betidanikan nik nere loa
izanagatik arina,
ohe zurian hartu ohi nuen
neke guztien ordaina.
Garai batetik gauzak ederki
aldatuak alajaina:
lorikan egin ezina,
horrek ematen dit mina. (bis)
Haurtxo txikiak gau guztian du
negar egiteko grina.
Ustez umea ekarri, eta
adar jotzeko makina. (bis)

Hilabete bat daramat hola;
noski, neuretzat galera:
lo egin gabe maldizioka
goizean goizik kalera.
Martxa honetan etekinikan
ezin nezake atera,
eta egin dut aukera,
nahiz ta gutxigorabehera. (bis)
Haurtxo txikia, aitortzen dizut,
nere kuttuna zu zera;
bainan joan zaite beste gelara
amatxorekin batera. (bis)

Zure negarrak molestatzen nau,
ez dago esan beharrik;
egun guztian gero nork kendu
"malaletxea"ren harrik,
ta zu ondoan zaudela ez dut
lo egiteko indarrik;
ez zaidazu jo adarrik!
Esatea ere alperrik! (bis)
Gelaz aldatu aste egunez,
horrek ez dakar okerrik;
zure ondoan lo egingo dut
asteburutan bakarrik. (bis)

23 - 23,5 - 22 - 21,5 - 22,5 - 22,5 - 23 = 158

Peñagarikano

Bakarkako lana

GAIA Betidanik ongi-bizi bat (bibidore bat) izan zaitugu. Azkenaldi honetan gaizkitu eta medikuarengana jo duzu. Bizitzekotan, bizimodua zeharo aldatu beharra duzula esan dizu gainera.

Neurria: Berezia

Doinua: Nere gorputza dardarka dago

Iruditzen zait esan zuenak
bene-benetan ziola
munduan bizi behar dala ta
besteak ez du ajola.
Bibidorea haundia izan naiz
ezin ukatu inola:
beti parrandan ibiltzen nintzen
nunahi kea dariola;
orain ez dakit nola ote dedan
nere zainetan odola...
Medikuaren eskola,
gaur harek esan dit hola:
"Oso goian dezu azido uriko,
txit goian kolesterola";
eta bizitzen segitzez gero
aldatu beharra dagola.

Ederki asko bizi izan naiz,
hori ez det ukatuko;
nork bere gustoa egiten'e
ez dute debekatuko.
Bertsoak bota, sardoa edaten
inoiz ez naiz aspertuko;
lagunak ere nere ondoan
ta ez ziren aldenduko.
Orain, agian, bizimodua
nik asko det zuzenduko,
ta hori entzun orduko
nola ez naiz, ba, bildurtuko?

Mediku jaunak esan dit eta
orain nola egin uko?
Bainan igaro dedan guztia
inortxok ez dit kenduko.

Zeinen ederki ibiltzen nintzen
nunahi bertsoak kantatzen,
ta egindako parranda danak
ez da erreza kontatzen!
Ama gaisoak esanagatik:
"Ez dakit zertan zabilitzen";
kasoik ez nion bate egiten,
ni ez nintzen apuratzen;
bainan behin baten behar zuen da
medikuak bixitatzen,
ta esan dit: "Ez zabilitz zuzen,
ez dakit nora zoazen
bizimodua alda ezazu".
Ohiukatzen zidan ozen.
Honta ezkerro saiatuko naiz
ni orain zintzo bizitzen.

20 - 21,5 - 20 - 21 - 20,5 - 21 - 21,5 = 145,5

U. Iturriaga

Bakarkako lana

GAIA: Entzuleen artean badago bat, zure iritzi
politikoengatik txalorik jotzen ez dizuna.

Neurria: Berezia

Doinua: Leiho ertzetik entzun dezaket

Erretolikan ez naiz izango
politiko ezta maisu;
urtean zehar nola beraiek
egiten duten abusu,
hau neurea da ta landuko dut
ziriz ondo, pausuz pausu.
Zuk ondo ederto dakizu,
begira baldin bazauz zu; (bis)
aldean daukan niki eder hau
ikusten al da hortik, aizu?

Betaurrekoak jarri itzazu
mina egiten badizu.(bis)

Hasieratik jente guztia
ikusia dut barreka.
Belodromo hau egongo ote da
jente berdinez beteta?
Sarri askotan pasatzen da ta
bertsoak horrela presta;
norbait dagola erreta
txalo jo gabe uneka. (bis)
Nere bertsoak entzun itzazu,
nahiz ta belarriak neka;
zuen diskurtso beti berdina
guk aguantatzen dugu eta. (bis)

Nik ez nekien hau nola hartu,
beharbada adarra jotzen;
baina pentsatuz, gaur bromarako
gogo gehiegi ere ez zen;
ta uste dudana esan nahi nuen;
ondo altu eta ozen
kantatu dut dena, ezen
ez baitzan ezer ulertzen. (bis)
Puntu gehiegi ez dut lortuko,
ez dira joan hain zuzen;
baina ez dakizu nere barruan
zein trankil geratu naizen. (bis)

23,5 - 23 - 23 - 22,5 - 22 - 22,5 - 23 = 159,5

A. Lopategi

Bakarkako lana

GAIA: Betiko zure lagun mina izan duzuna galdu eta hilabete
pasa duzu etxetik irten gabe. Gaur, ate ondoan zaude
zalantzan irten ala ez erabaki ezinez.

Neurria: Berezia

Doinua: Leiho ertzetik entzun dezaket

Nire betiko lagun-min hortan
jarria daukat arreta.
Hontarako edo bestetarako
beti hartzen gendun beta;
haserraldiak ere izaten
genitun noski uneka,
baina pozetan beteta,
ia inoiz ez erreta. (bis)
Etxetik irten ala ez irten
nago zalantzaz beteta,
nire betiko laguna ezin
dut burutik kendu eta. (bis)

Biok genuen etorkizunaz
egoten nintzan amesti;
zenbat gauetan alkartzen ginan
goxo-goxo, ezti-ezti;
baina sarritan gure bizitzak
kolpe hauexek dakazki.
Orain ez nabil errezki:
neure zalantza ta guzti. (bis)
Bakartasuna daukat gainean
ta aurkitzen naiz oso gaizki,
baina bizitza berri bat ere
hasi beharko dugu noski. (bis)

Biok batera mila ekintzatan
hartzen baigenduen parte,
baina oraintxe berak utzi nau
bazter batean aparte,
ta pena eta samin guztiak
oso-osoan hartu naute:
zenbat negar eta neke!
Inondik ezin naiz bete. (bis)
Baina kalera urten behar dut
eta saiatu jo ta ke,
nire bihotz hau piztuko duen
laguna aurkitu arte. (bis)

17,5 - 18,5 - 18,5 - 19,5 - 17,5 - 19 - 19,5 = 130

Euzkitze

Bakarkako lana

GAIA: Drogazalea zaitugu. Drogaren atzetik beste zenbaiten diruak xahutu dituzu. Gaur, azkenik, zeure amaren pitxien kutxara heldu zara.

Neurria: Berezia

Doinua: Gregario edo laguntzaile naiz

Droga maltzurak orain jarri nau
gaizkile maltzurren pare,
hontara heldu nintekeenik
ez nuen uste halare;
nere amaren pitxien bila,
ez al da nahikoa grabe?
Aizu droga dohakabe,
indartsuegia zaude: (bis)
zu egin zara nere amets eta
ekintza guztien jabe,
bizimodua desertu huts bat
iruditzen zait zu gabe. (bis)

Nola izan naiz hain kaxkarina?
Nola izan naiz hain txepela?
Guztiari "bai!" esaten nion,
zeturrena zeturrela;
baina gehiegi da gaurkoa ta,
ezin dut segi horrela;
ez nun pentsatuko bela
hontara helduko nintzela. (bis)
Ama maitea, barka zaidazu
zuk badakizun bezela;
baina hau saldu beharra daukat,
hil egingo naiz bestela. (bis)

Droga zikinak gogortu dizkit
mamia eta azala;
baina amari..., amari ezpa,
ez da pekatu makala!
Neure burua gorrotatzen dut
hau pentsatzen jarri ahala.
Hemen dut droga zitala
(betiko utzi nazala), (bis)
baina nik ama gaur zin dagizut
noipait utziko dudala;
sinets ezazu nigan, nik zukan
sinesten dudana bezala. (bis)

23 - 22 - 22,5 - 22,5 - 22,5 - 23 - 22,5 = 158

Egafia

Bakarkako lana

GAIA: Zure seme-alabentzat ahal duzun ondasun gehien biltzeko eman duzu bizia. Gaisoaldi luze eta latz batean sarturik zaude. Zure ondoko gelan seme-alabak eztabaidan oso gogor ari dira.

Neurria: Berezia

Doinua: Zuek horrela ikusi eta

Lepo gainean sentitua det
heriotzan atzaparra;
neretzat, orain, ailegatu da
bizitzan ilunabarra;
seme-alaben hotsak entzunaz
barruan dedan dardarra;
ze eztabaida lakarra!
Testamentuan oharra
zegoen egin beharra:
batentzat ona duguna, nonbait,
bestearentzat kaskarra;
inola ere ez nun espero
horrelako esker txarra. (bis)

Ume zirala hazi nituen,
hazi zirenean hezi;
ta beren builak barruan sartu
dizkit majina bat gezi.
Semea dago letxe txarrean,
alaba ospa ihesi
bere malko eta guzi;
iruditzen zait itsusi.
Eztabaida da nagusi.
Nere diruak ta ondasunak
behar nituen berezi:
ondo pentsatzen jarri ezker
ezer ez zuten merezi! (bis)

Ohean nago baina heltzen zait
semeen ahots urruna;
erritak, nonbait, sortu arazi
ditu kea ta lurruna.
Diruagatik haserretzea
ez da detaile txukuna;
nik den-dena det entzuna,
iritsi zait oihartzuna,
barruan azer hutsuna!
Ospital hontan utzi nahi nuke
nere diru ondasuna,
eta nereek izango dute
aita zaharran maitasuna. (bis)

26 - 22,5 - 24 - 24 - 22 - 22,5 - 23,5 = 164,5

J. Enbeita

Bakarkako lana

GAIA: Putre bat zara. Orainartean urtero-urtero Leitzarango mendietan egin izan duzu zure habia. Gaur zeru gainetik autopista berriaren inagurazioa ikusten ari zara.

Neurria: Berezia

Doinua: Munduko ilunabarra

Hegotan haize epela,
barnea daukat goibela,
hau ikuskizun krudela,
nola aipatu bestela?
Ikusi nuen makina zaharrak
korrika bazetozela,
baina ez nuen inoiz pentsatu
hau ikusterik honela;
apurka-apurka ludi zabal hau
bihurtzen doaz gartzela;
gure kabia, zemento gogor;
ez al da, jaunak, itzela?
Leizaran ere puskatu dute
beste tokiak bezela. (bis)

Hormigoia ta burdina

eta asfalto zikina;
al zen hortako premina?
Hauxe da daukadan mina.
Alde denetan gizona dugu
guretzat berdin-berdina:
eurak jainkotu eta besteok
soilik gara hondakina.
Hobe azaldu ahal banezake
nire garratzaren grina;
ez baita, jaunak, pentsatu ondo,
txorientzat atsegina
libertadean bizi nahi eta
inun be bizi ezina. (bis)

Ta omen dira gizaki,
sinesten zaila izaki,
egin gaituzte bi zati,
portatu dira basati.
Zoritxarrean izan dituzte
makina bat erabaki;
azken batean gerta direnak
soil-soil denen adabaki;
nire barruan justizi eske
odol beroak diraki;
zer dela eta gure bizitza
behar digute ebaki?
Eta, bakarrik, aurrerapena
dutela euren aitzaki? (bis)

24,5 - 22 - 22,5 - 23,5 - 21,5 - 22,5 - 23,5 = 159,5

Sorozabal

Bakarkako lana

GAIA: Beti izan dituzu apopiloak zure etxean. Orain arte ez duzu zure etxepean arazorik izan. Azken apopiloak afrikarrak dira, ordea, eta etxepekoak, bizilagunak, agurra ukatzen hasi zaizkizu.

Neurria: Berezia

Doinua: Maitasuna da bizi izateko

Etxe bat daukat lau-bost geleskin,

horixe da nere lana;
heltzen denari:"Zainduko zaitut"
beti izan naiz hitzemana.
Oraingo hontan jendeak zerbait
desberdina antzemana;
afrikarrak neregana;
hauxe bai jende otsana! (bis)
Nik horregatik ez det galdu nahi
zuekiko harremana,
nik ez baidaukat kulparik zuek
bihotz gabeak izana. (bis)

"Hoiek zergatik onartzen dituk?"
esaten hor zaizkit ari;
nahiago nuke garbi baneki
zer esan holakoari.
Mundu honetan injustizian
gaudela garbi nabari,
bada ta oihu ugari
bata eta besteari. (bis)
Pakea eta tolerantzia
eske gabiltza kantari,
eta laguntza ukatzen zaio
gehien behar duenari. (bis)

Nik horregatik baztertu nahi det
auzotar hauen morrontza
eta aurrera egin behar det:
bizitza edo heriotza.
Oraindik ez det neure etxean
sentitu behar arrotza,
eta zuen eztul hotsa...
nahiz ez dun ematen poza. (bis)
Horrekin ez naiz kokiltzen, zuek
behar zenduteke lotsa.
Zein da beltzago hauen azala
edota gure bihotza? (bis)

25 - 25 - 22 - 24 - 23,5 - 24 - 24 = 167,5

BUKAERAKO AGURRAK

U. Iturriaga

Neurria: Berezia
Doinua: Maitatzen zaitudalako

Gazteena ta zaharrena
hartu ditugu lagun,
nola ia ordu luzez
hemen garen gaur jardun;
jentea tente dabil ta
sabela dauka bigun;
gose daude denak eta,
azkar buka dezagun.

J. Enbeita

Neurria: Berezia
Doinua: Maitazen zaitudalako

Zentzu piska bat jarriko
ote du gaur zaharrenak?
Nahiko nekatu al gaitu
saioan iraupenak?
Bazkaltzera joateko
eman behar ordenak,
baina lau ta erdietan
berriz etorri denak.

FINALA
Arratsaldeko Saioa

DONOSTIA
1993 - 12 - 19

U. Iturriaga

Hasierako agurra

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Nafarroako mendi gainetan

Badakizue Reala eta
Madrila daude jokoan;
"Ultra sur"eko "hintxa" batzukin
elkartu gara kanpoan,
ta ez dakizue, aze sorpresa
ekarri dudan kolkoan!
Esan didate: "Aupa Iturriaga,
hi haiz txapeldun gaurkoan". (bis)

Euzkitze

Hasierako agurra

Neurria: 10eko nag.

Doinua: Bizia ez da nehoiz egoiten

Estadioa hurbil da eta
horrek badu abantaila;
guk gutxienez eman nahi degu
atzoko Atletik-en maila;
gerrero asko bagatoz ere,
ez ote degu lan zaila...
Azken tiroan bota dezagun
geratzen zaigun metraila,
ta ea zutik bukatzen degun
gerraren azken bataila. (bis)

Egaña

Hasierako agurra

Neurria: Berezia

Doinua: Haizak hi mutil mainontzi

Goiz parteko eginahala
joan zaigu nola-hala;

badakizute neure bizio
purua dedala;
nahiz kaja ez zen makala,
hustu degu berehala;
norbaitek arto-bixarrik badu,
ekarri dezala. (bis)

Peñagarikano

Hasierako agurra

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Nafarroako mendi gainetan

Pelotari bat bada Anoetan
Arregi izenekoa;
ni bezelaxe, igar-igarra;
ni bezelako kakoa.
Nik gaur txapelik ez det jantziko,
galduta daukat jokoa;
baina atzo harek jantzi zuen da
batekin bada nahikoa. (bis)

A. Lopategi

Hasierako agurra

Neurria: 10eko nag.

Doinua: Mutil koxkor bat II

Agur honekin Leioa aldean
jarri nahi nuke arreta;
kontratu bako irakasleak
dira, hain zuzen, nere meta.
Egunik egun atean daude
hotzetik ezin gordeta;
besarkada bat bialtzen diet
elkartasunez beteta,
beste guztiek batera baino
gehio balio dute ta. (bis)

Sorozabal

Hasierako agurra

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Arratsaldeon lendabizi

Goiz partetikan sei zenbakia
izan da Egaña laguna,
bertsotan ondo eginagatik
ez da hain tipo txukuna:
hori da hori kolila pila
lurrean utzi diguna!
Orain, kamarak apuntatzean,
ni izango naiz erruduna. (bis)

J. Enbeita

Hasierako agurra

Neurria: Berezia

Doinua: Anttoni-Hormatxoriak

Andoni, Lizaso,
Jokin, Peña ta Euzkitze;
nahiko oilar heldu da
gaur gure talde giputze.
Olentzero ez da gaurkoz etorri
denentzat sari berdinez,
hala ta ere saiatu gara
ahal zen ondoen eginez.
Arratsaldean joango al da
goizeko bide berdinez?
Azken bertsoa bukatu arte
zer gertako den jakin ez.
Jon, Unai, Jon, Unai,
eta Aritz ondolik zai;
Bizkaitik hiru bat,
baina beste bostak hainbat.

S. Lizaso

Hasierako agurra

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Orain bertsoan hasi nahi nuke

Azken eskutik agurtuz, nator
hain gorputzaldi alaian,
ondoko danak txorabiatuz
puruan kean usaian.
Eguardiartea lotan pasa det
nolabait esnatu nahian,
ta esnatzea zail egingo zait
siestarako garaian. (bis)

U. Iturriaga - Euzkitze

Elkarrizketa

GAIA: Bi guraso zarete zuek. Oso kezkatuik zaudete zuen
seme-alabak festara noiz doazen eta noiz itzultzen
diren ikusita.

Neurria: 10eko txik.

Doinua: Espanian behera

U. Iturriaga

Jaiak noiz hasten diren
ta jaiak noiz buka;
aizu, aspaldi nago
ni arduratuta,
ta guraso bezala
piska't pentsatuta:
nere alaba daukat
ia erdi galduta,
zure alaba horrek
endregatzen du ta. (bis)

Euzkitze

Zu egina errezelo
txar askoren jabe,
egia argitu nahi
nizuke halare.
Zure alaba dabil
golfenteenen pare
ta nereai begira
jarrita al zaude?
Zurea endredatzen da
laguntzarik gabe. (bis)

U. Iturriaga

Nerearena errua,
diozu jo ta su;
baina zure esanari
egin gabe kasu.
Pasatu egin zara
esandakoan, aizu;
holakorik nundik, ba,
gaur asmatu duzu?
Neuri begiratzea baino
ez daukazu. (bis)

Euzkitze

Ez da askoz hobia
zure ikusmira;
alabek sortu dute
gure tira-bira.
Gaurko gazte jendea
erotzen ari da:
gauerdia jotzean
kalera begira,
ta oilarren kantuaz
etxeratzen dira. (bis)

U. Iturriaga

Gure garaian ez zan
holakoik pasatzen;
nik jadanik ez dakit
noiz dan ateratzen,
baina entzundakoaz
hasi naiz pentsatzen;
oilarren dei horrekin
bazaizkigu sartzen,

ia arraultzik behintzat
ez duten ekartzen. (bis)

Euzkitze

Nerea ere ez dabil
arrautzaren premiz;
ni ere horrek asko
kezkutzen nau egiz;
gauetz atera ohi da
ilusio haundiz;
nahiz errieta egin
diodan mila aldiz,
neuk hori egingo nuke
gazteago banintz. (bis)

ITURRIAGA: 23,5 - 21,5 - 21,5 - 20 - 21 - 22 - 22,5 = 152
EUZKITZE: 22 - 21 - 21,5 - 21,5 - 21,5 - 22 - 21,5 = 151

Egaña - Peñagarikano

Elkarrizketa

GAIA: Bi elbarri zaituztegu. Etxe atarian elkartu zarete
biok. Egunean zehar batera eta bestera ibiltzeko
dituzuen oztopoak elkarri kontatzen ari zarete.

Neurria: 10eko nag.

Doinua: Santa Barbara zure bizitza III

Egaña

Burutapenak etortzen zaizkit
egoeraren harira:
futbol zelaitan lehenengo ranpla
orain ikusten ari da;
zineman, berriz, justu-justuan
izaten degu kabira;
mezetan ere ezin iritsi
behar genuken tokira;
leku guztiak eginak daude
gizon osoen neurrira. (bis)

Peñagarikano

Guri laguntzen ari den harek
badauka nahiko meritu;
nik istripu bat behin izan nuen
ta hanka biak txikitu.
Orain gorpildun aulkian nago,
inora ezin mugitu;
orinala ere azpian daukat
eta ezin det garbitu,
nere iloba maitagarriak
goizero garbitzen ditu. (bis)

Egaña

Orain artean laua genua
bihurtu zaigu golgota;
zati bat falta ta iristen da
gizakumeen porrota;
gure ezina nola laburtu
dozen'erdi bat lerrota...
Zure iloban eszelentzirik,
arren, ez zaidazu konta;
persona batzuk alde dauzkagu,
baina gizartea kontra. (bis)

Peñagarikano

Zenbat oinaze ekar dezakeen
egun bateko okerrak;
hori delako orain bizitzan
pasa beharra senperrak:
ezin mugitu ene besoak,
ezin mugitu izterrak;
baina hala ere ikusten ditut
Euzkal Herriko bazterrak;
nork lagundua badet oraindik,
Jaungoikoari eskerrak! (bis)

Egaña

Neri ordea, falta egin zait
babesa eta magala;
jendeak errez berezi ohi du
normala ta anormala.
Normaltasunan neurria beti
berbera balitz bezala!
Kanpaina batek halaxe dio:

denok berdina gerala,
baina nik diot kanpaina hori
zurikeri hutsa dala. (bis)

Peñagarikano

Behin da berriro "eskerrik asko!",
nere iloba kuttuna;
zu zeralako arindu baita
etxeko zama astuna.
Zuri eskerrak nik ez det ahaztu
zer dan zoriontasuna;
une hauetan gauz bakarra da
biok desio deguna:
ez dakiola inori gerta
guri gertatu zaiguna. (bis)

EGAÑA: 22,5 - 22 - 21 - 21,5 - 23 - 22,5 - 22,5 = 155
PEÑAGARIKANO 20 - 21 - 21 - 17 - 21 - 20,5 , 21 = 141,5

A. Lopategi - Sorozabal

Elkarrizketa

GAIA: Bi emakume zarete zuek. Zuen lantokian gizonazkoen lan
bera eginagatik, soldata gutxiago jasotzen duzue.

Neurria: 10eko txik.
Doinua: Antton eta Maria

A. Lopategi

Biok hartu genuen
laneko bidea,
baina ez da sana
hemengo aidea;
berdina izan arren
abilidatea,
gizonak hartzen dute
soldata doblea;
hau da gaur egun dugun
iguldatea! (bis)

Sorozabal

Gizarte hau behin hola
egin zan eratu;
ez zuten oso bide
ona aukeratu;
gu behintzat oso pozik
ez gera geratu;
hau lehenbailen beharko da
ederki aldatu.
Nahiz berdin irabazi
desberdin kobratu. (bis)

A. Lopategi

Biok eduki arren
langile tankera
eta berdin lan egin
besteekin batera,
soldatan be nahiko
alde ba ote da?
Baina hau aldatzeko
goitik eta behera,
guazen patroiarekin
berba egitera. (bis)

Sorozabal

Emango dizu oso
erantzun gordina
ta damutuko zaizu
hari hitzegina,
gauza hoietan hura
baita ezjakina.
Guk gutxio kobratzen
nahiz ta lan berdina,
nunbait triunfoa ez da
guretzat egina! (bis)

A. Lopategi

Nagusi horrek dauka
dana bizioa;
nola amaituko da
gure sesioa?
Andrek ere badugu
nahiko anbizioa;
gauzak aldatzeko hau
da okasioa,
ta egin daigun andren

Sorozabal

reboluzioa. (bis)
Orain asmatu dezu
zuk bete-betean,
lagunduko dizut nik
zu hara joatean,
eta kolpe bat eman
haiei bibotean,
bestela hola segi
behar hainbat urtean,
agintean gizonak
dauzkagun artean. (bis)

LOPATEGI: 20,5 - 19 - 19,5 - 18,5 - 19 - 20 - 20 = 136,5
SOROZABAL= 19 - 19,5 - 19 - 18,5 - 19,5 - 20 - 20 = 135,5

J. Enbeita - S. Lizaso

Elkarrizketa

GAIA: Bi abertzale zarete zuek. Euskal Herriaren egoera ikusita, zer etorkizun dugu abertzaleok?

Neurria: 10eko nag.

Doinua: Bizia ez da nehoiz egoiten

J. Enbeita

Hara, laguna, zer den bihotzak
barrenean daukan kezka:
sarri izan naiz neure buruai
egoerataz galdezka,
geure artean ikusi ezin
elkarri mila protesta,
hizketarako gogo gutxi ta
borroka nahiak gainezka;
bide hontatik herriarentzat
etorkizun onik ez da. (bis)

S. Lizaso

Ez dadukagu zer itxirikan
itxaropenan atea,
denen gainetik jarriko balitz
nor bere borondatea;
gure ametsa egi bihurtuz
litzake errematea.
Nahiz herri dena egonagatik

abertzaleaz betea;
ez da berdina, ordea, inoiz,
esan eta izatea. (bis)

J. Enbeita

Ez dakit nungo belarra dugun
gure artean erneta,
algarrentzako hola jartzeko
denok amorruez beteta;
nik ez dakit non pentsatzen dauden
hemen hamaika kasketa;
egia esan, odola daukat
zalantza hontaz erreta:
ez ote garen prestatzen ari
geure herriaren hileta. (bis)

S. Lizaso

Ez dut pentsatzen egia denik
lagunak adierazia;
azken boladan nahiz egoera
daukagun hain nahasia,
bidea nundik izan liteken
ikusten nago hasi:
horretarako galdu behar da
españolisten hazia,
kaltegarria baidegu beti
lore arteko sasia. (bis)

J. Enbeita

Motibo gabe sufritzen gaude
anaiok hainbeste samin;
eskua eman ta jokatzeari
zein den eder ta atsegin!
Oraindik ez da dana galdua,
beraz badago zer egin:
benetakoa ta egizkoa,
batasun sana Euskadin,
erori diren odolena sona
alperriko izan ez dadin. (bis)

S. Lizaso

Azken boladan sortu da hemen
bakina bat tira-bira:
hemen paktoa ta han tratua,
horrenbeste ikusmira;
nere ustetan, sasi-enplasto

batzuk besterik ez dira;
batu gaitezen eta sozio
faltso denak erretira,
bide hontatik ez baigerade
gu joango urrutira,
ta etxeakoak saia gaitezen
geure etxera begira. (bis)

ENBEITA: 23 - 22,5 - 22 - 20 - 22 - 22 - 22 - 22 = 153,5

LIZASO: 21,5 - 22,5 - 22,5 - 20,5 - 22 - 23,5 - 22,5 = 155

Egaña - Euzkitze

GAIA: Bikote gazte bat zarete, Xabier, neska; eta Andoni mutila. Lehen erlazioa duzue gaurkoa. Mutila masokista da eta latigoarekin zigortzeko erreguka ari zaio neskari.

8ko txikian ofiziotan
Doinua: Kantatzera nijoa

Euzkitze

Kolpetik egin behar
al dugu irrista?
Zu larruzko gauzekin
zaitugu artista;
ez dakit zer ote den
ziur masokista...
mesedez, goxo-goxo
egidazu "txista". (bis)

Egaña

Nolako inkultura
neskatxa honena!
Zer den ez daki eta
ematen dit pena.
Eman latigazo bat,
ahalik haundiena;
horrela lortuko det
nere gozamina. (bis)

Euzkitze

Hori da ausardia,
hori da kemena!
Hola narrastu behar
al degu aurrena?
Bestela lortu zazu
zure gozamina;
larrua nahi det, baina
ez latigoena. (bis)

Egaña

Latigoa dantzatzen
duten bakoitzeko,
barruan sentitzen det
hainbat bihotzeko.
Zu ere porta zaite
sadika antzeko,
bideak mila dira
plazerra lortzeko. (bis)

Euzkitze

Holakorik ez det nahi
arrote txepela,
bromak utzi ta jantzi
ezazu txapela;
pentsatu ezazu Kim
Bassinger naizela,
ta muxu emaidazu
Tom Cruise-k bezela. (bis)

Egaña

Maite det latigoa,
maite det haizkora,
masokismoarekin;
nago txora-txora.
Orain Tom Cruise hori
dakarki gogora;
aizu, neskaxa, hola
ez goaz inora. (bis)

Euzkitze

Gaxte-gaxtea nauzu,
hamazazpi urte;
horrela izorratu nahi

ote ninduzuke?
Hartu "Barrio Txinoa"
ohe honen truke,
bost mila peztarekin
dena egiten dute. (bis)

Egaña Nik ezin dut onartu
nexkaren tratua,
klasika izatea
bere pekatua.
Gaurko aukera ere
degu pasatua;
masokista naiz eta,
hau da gozatua! (bis)

EUZKITZE: 27 - 29 - 27 - 27,5 - 28,5 - 28,5 - 28,5 = 196
EGAÑA: 30 - 29,5 - 28 - 29 - 29,5 - 29 - 29,5 = 204,5

Peñagarikano - U. Iturriaga

GAIA: Anjel Mari, biloba; eta Unai, bere aitona. Bilobak mendiko bizikleta moderno bat ekarri du. Goizean jeiki zEranean, zer ikusiko, eta aitona bizikletan aprobak egiten atarian.

8ko txikian ofiziotan
Doinua: Santa Barbara zure bizitza II

Peñagariakano Aitona ikusi det
nola edo hala,
lehen'e petralla zan da
oraindik petralla.
"Mountain bike" gainean,
hau ez da normala!
Aitona, uste al dezu
Indurain zerala?

U. Iturriaga Ez dut hori pentsatzen,
ez, iloba tonto!
Motor itxurako hau
nik ez dut gogoko;

zetako hainbeste pinoi
ta hainbeste plato?
Bakoitzetik batekin
ez al dezu nahiko? (bis)

Peñagarikano

A zer farregarritza
bizikletarekin!
Aitona hortxe dabil
ekin eta ekin.
Aitona, nola zauden
nahi al dezu jakin?
Beti anis edaten da
"falta de riego"kin. (bis)

U. Iturriaga

Nire ilobarekin
ez nago hain trankil,
trasto arraro hauek
beti dauzka hurbil;
preziosa ere oraindik:
"cientocincuentamil";
hainbeste ordaintzeko,
bakarrik al dabil? (bis)

Peñagarikano

Aitona, ez zera, ez,
traste hoiien laguna;
ederra ez da izango
gaur zure jarduna.
Pintxazoa daukala
da esan didazuna;
pintxazoa bai dala
zuk dadukazuna. (bis)

U. Iturriaga

Aitonai begirune
eta errespeto,
kontuan har ezazu
zerbait esateko.
Hain tontoa ez zarela
daukat onartzeko;
kubiarta onak dauzka
sorora joateko. (bis)

Peñagarikano

Bizkleta hartuta
etxetik kanpora;
zuretzat ere joan da
munduko denbora;
zelaian ezin dezu
ta gutxigo, gora;
benga aitona, joan zaite
amonan ondora! (bis)

U. Iturriaga

Zuk amona aipatu
eta berehala,
haze oroitzapenak
pentsatu ahala!
Benga!, utzi bizikleta
ta izan formala,
amonak ikus nazan
gaztetan bezala. (bis)

PEÑAGARIKANO: 24,5 - 27 - 26,5 - 24,5 - 26 - 28,5 - 28,5 =
185,5

ITURRIAGA: 27,5 - 29,5 - 28 - 27 - 28 - 28,5 - 29 = 197,5

Sorozabal - J. Enbeita

GAIA: Jokin, kamioilaria; eta Jon, estopista zaituztegu.
Bide ertzean estopean zegoen Jon; hartu du eta bide
sail bat egin duzue. Kamioiak pintxazoa izan du eta
gelditu eta konpontzen hasi da txoferra. Estopista,
aurreraxeago joan eta estopean hasi da berriro.

8ko txikian ofiziotan
Doinua: Kantatzera nijoa

Sorozabal

Jende ona hartzea
beti da atsegin,
ondoan eserita
patxadan hitz egin,
baina une honetan
ez zazu aldegin,
konpontzen lagundu ta
estop gero egin. (bis)

J. Enbeita
Ikusten zaitudanez,
ez zaude trankila;
baina ez nauzu gero
holako jentaila.
Gaizki pentsatzen zaude,
lasaitu mutila;
zeuretzat ari naiz ta
laguntzaren bila. (bis)

Sorozabal
Adar joka ari zera
zu aldamenean,
lagundu nahi badezu
saiatu lanean;
zertan zabilta zu hor
aurrera planean?
Zer egin behar dezu
gelditzen denean? (bis)

J. Enbeita
Baldin gelditzen bada
aurrean kotxea,
nire lana izango da
horra ekartzea,
baina zuk nahi zeunkena
adarra jotzea,
zeuk begiratu eta
nik arreglatzea. (bis)

Sorozabal
Jetxi ta abiatu
laguntza aitzakin,
zer intentzio zuen
ezin leike jakin.
Behin hau esan zuenak
ondo asko zekin
ezin dela fiatu
ezezagunekin. (bis)

J. Enbeita
Nahiko harroa zara
begi ta bekoki;
kamioi haundi baten
zabilta egoki.
Holakoak badute
hamaika aitzaki;
kamioia ta oraindik

lanean ez daki. (bis)

Sorozabal

Lan egin beharrak badu
hamaika desgrazi,
halare jornal onik
ezin irabazi,
ta besteren kontura
hauek bapo bizi;
kamioia salduta
hortan behar det hasi. (bis)

J. Enbeita

Hasera baten ona
zen nire asmoa,
baina ez dit eskertzen,
badaukat susmoa.
Burutik ez zaudenez
batere sanoa,
inor gelditzen bazait
berakin banoa. (bis)

SOROZABAL: 25,5 - 25,5 - 25 - 25 - 26,5 - 26 - 26 = 179,5

ENBEITA: 25 - 25,5 - 25,5 - 24,5 - 25 - 26,5 - 26,5 = 178,5

S. Lizaso - A. Lopategi

GAIA: Sebastian, biajante bat zaitugu; eta zu Aritz, zahar-
etxe bateko Madre Superiora. Biajante honek, denetik
saltzen du eta gaur etxe honetara produkto
afrodisiakoak ekarri ditu. Tinbrea jo du eta Madre
Superiora irten zaio atera.

8ko txikian ofiziotan
Doinua: Kantatzera nijoa

S. Lizaso

Nere lana izaten da
denetik saltzea,
ta gaur bisitatu dut
zaharren etxea;
nahi nuke nik zaharrak
sasoiria biltzea,

eta ez da prezixo
zuk erabiltzea. (bis)

A. Lopategi Produktuak saltzea
duzu zeure kargu,
igo gora zenduke
gora graduz-gradu;
afrodisiakoez
zatozkit ondradu,
guk errezatzeakin
nahikoa daukagu. (bis)

S. Lizaso Une baten hortikan
har zazu deskansu;
produkto hauek dira
jauna bezain ahaltzu;
aukera daukazu ta
probatu itzazu;
hortan seguru nago,
gustatuko zaizu. (bis)

A. Lopategi Saldu nahi zenidake
produktu itzela,
plazer haundia lortzen
omen da horrela,
baina ez dugu behar
dion bezela;
ez al dakizu beti
glorian gaudela? (bis)

S. Lizaso Jaunak lagundu behar
hori sinisteko,
ez dezu motiborik
ateak ixteko;
hemen aitonak daude
umore tristeko,
hauek balio dute
"kandelak pizteko". (bis)

A. Lopategi Kontu hoietan beraz,
zu zaitugu maisu,
ta kandeletaz ere

jo duzu abisu,
saldu gabe ez zazu
alde egin aizu;
monagiloak, igual,
erosiko dizu. (bis)

S. Lizaso Hari ez dio egingo
hainbeste mesede,
zaharrak jartzen ditu
sasoian dotore;
zu're jarri zindezke
lore baten pare,
ta probatzeko eman
kapilauai ere. (bis)

A. Lopategi Ikusi al duzue
honen jenioa?
Inola ere ez da
tipo serioa,
ta oraintxe eman behar
diot adioa,
errezatu behar baidut
errosarioa. (bis)

LIZASO: 31 - 30 - 28,5 - 30 - 29,5 - 30 - 29 = 208

LOPATEGI: 30 - 28 - 28 - 28 - 27,5 - 28,5 - 29,5 = 199,5

U. Iturriaga - Egaña

GAIA: Bi neska-lagun zarete. Unai, zuk, etxe oneko mutil
batekin zita bat egin duzu gaurko. Zita horretarako
jantzi egokirik ez eta Andoni, zure neska-lagunari,
eskatu dizkiozu jantziak.

Iparragirrereren doinuan ofiziotan

U. Iturriaga Benetan ez da mutil makala,
neska, aurkitutakoa;
etxe honeko semea eta

benetan guapo guapoa.
Trajerik badaukazu,
egin zaidazu kasu,
nahi nuke bat diskretoa:
eskote zabal, zabal, zabala,
ta luzera motxekoa. (bis)

Egaña

Eskoteakin hasi ezker
zerorrentzako kaltia;
nahi eta ezin, ezin eta nahi,
izaten da eskotia.
Sartu nahi du patrikan,
ez du diru faltikan;
ai!, adiskide maitia,
horretarako onena dezu
bate gabe joatia. (bis)

U. Iturriaga

Berriro diot mutila dala
aberatsa ta galanta:
bost milakoak eukitzen ditu
hark pasiloan botata.
Ta horrela ez jarri,
eta zerbait ekarri;
gehiegizko bada, parka.
Kremailerakin posible bada,
kotxe txikia dauka ta. (bis)

Egaña

Lehenengo zita gaur daukazute
ta, igual, gaur despedida;
harekin ondo geratu nahia,
honen kakoa hori da.
Esango det kantuan,
soinekuen kontuan:
politak eskasak dira,
igual gau dena pasako baitu
soinekoari begira. (bis)

U. Iturriaga

Nik soineko bat eskatzen dizut
txukun-txukun, trebe-trebe;
ez dedila izan oso bistoso,
ahal bada lehun ta suabe.
Hemen eskatu arren,
ezer falta da hemen,

eta ez luzatu, jode!
Eman zeozer, zure amaren
kamisoia bada ere! (bis)

Egaña

Barruan dezu ezinegona
ta mingainean pozoina;
orain artean neskatxa zinen
orain bihurtu nahi doña;
polita zera, baina
ni ere, alajaina,
oso neskatxa moñoña;
igual, neronek jarriko ditut
soinekoa eta soina. (bis)

ITURRIAGA: 23 - 21 - 20,5 - 20,5 - 21 - 22 - 22 = 150
EGAÑA: 24,5 - 24 - 22 - 24 - 23 - 23 - 22,5 = 163

Euzkitze - Peñagarikano

GAIA: Xabier, ama izango zaitugu; eta Anjel Mari, semea.
Anjel Mari, 30 urtetan zure gurasoen bizkarretik bizi
izan zara. Gaur amak, aita eta biak 6 hilabeterako
oporretara doazela esaten dizu.

Iparragirrereren doinuan ofiziotan

Euzkitze

Guk lan gehiegi egiten degu
gorputzarentzat kaltean;
oporretara goaz, semetxo,
ta pozez bete-bete.
Ez dit inporta bate
eta moldatu zaite
gu hona etorri artean,
bizia ezin pasako dezu
amatxoren gonapean. (bis)

Peñagarikano

Aitortuko det zuen kontura
ederki bizi naizela,

hamaika aldiz esan izan dit:
"Gure Anjelito txepela".
Orain oporretara
hor doaz Holandara,
esan didaten bezela;
pake ederra emango dute,
azkar joan daitezela! (bis)

Euzkitze

Alde egiteko esan diguzu
lotsagabe baten eran;
arrazoi dezu, zu utzi eta
gu urruti goaz hegan.
Oi!, semetxo maitea,
nik ez alde egitea
pensatzen nuen haseran...
Porru-patatatak egiten ia
zer moduz moldatzen zeran. (bis)

Peñagarikano

Sei hilabetez bizi behar det
nere gurasoak gabe,
baina uste det ni banaizela
neure buruaren jabe;
utzi naute lagata
eta porru-patata
prestatuko det dotore.
Zuk bezain goxo prestauko ditut
gaizkiena eginda're. (bis)

Euzkitze

Porru-patatak ta haragia,
ez pensatu denik broma,
baina tarteka nik telefonoz
hotsegingo dizut hona.
Ezkontza garairako
zu prestatu beharko;
hau da heziketa ona;
hartzen zaitunak ez du hartuko
edonolako gizona. (bis)

Peñagarikano

Oporretara joan behar duela
hori da esaten duena;
joan zaitezte, badaukazue
semetxoaren baimena.
Pepi edo Begoña
ekarriko det hona,

oheratu behar detena;
sei hilabetez lasai eingo det
uzten ez didazutena. (bis)

EUZKITZE: 21 - 21 - 21 - 21,5 - 21,5 - 21,5 - 21,5 = 149

PEÑAGARIKANO: 19 - 19,5 - 19,5 - 20,5 - 21 - 21 - 20,5 = 141

A. Lopategi - J. Enbeita

GAIA: Jubilatuen tabernan lan egiten duen gaztea zaitugu
Aritz; eta Jon, bertan zauden emakume zaharra.
Egunero, bazkalondoko kafesnea ordaintzerakoan, amonak
propinatxo bat uzten dio mutil gazteari.

Iparragirrereren doinuan ofiziotan

A. Lopategi

Kafe tragua hartzen zu beti
zara kristoren tximista,
hargaitik zuri gaizki esaten
ezin naiteke arriska.
Sekulako propina
gozo ta atsegina,
emate'idazu artista;
edadez zaharra izanagatik
ez zara hain egoista. (bis)

J. Enbeita

Lehen bakarrikan etorten ziren
hiru moja ta bi apaiz;
zorionean, ene mutila,
zu azaldu zinan garaiz.
Eskupeko ugari,
zure lanaren sari
eskaini izan dizut maiz;
zure irria ikusi eta
neu ere gaztetuten naiz. (bis)

A. Lopategi

Zuk eman eta nik berehala
estimatzen dizut ozen,
eta honela urte askotan
biok konpondu gaitezen.
Propina ematera
zu beti goitik behera
etortzen bait zara zuzen;
eta luzaro bizi zaitela

bestarik ez dut eskatzen. (bis)

J. Enbeita

Oso gustoko eta atsegin
niretzat zure patxara;
gorputza iger baina oraindik
gazte baidaukat ganbara;
eskupeko gozua
ta ahal bada musua
edo berdin besarkada;
beste zahar hoiei pakean utzi,
biok konponduko gara. (bis)

A. Lopategi

Zu tabernara ailegatzean,
beti jartzen dut arreta;
propinatxoa daukazulako,
hortxe, neretzat gordeta.
Eskuakin hartuta,
ezin dezaket uka;
naukazu pozez beteta,
neure amonak baino gehiago
ematen didazu eta. (bis)

J. Enbeita

Zeinen samurki belarrietan
sartzen dan zure esana;
zerbitziala, dotorea ta
gainera oso otzana.
Hola saiatuz gero
gu biok egunero,
ene gaztetxo laztana,
gazte eginda aterako naiz
zahar einda sartu nintzana. (bis)

LOPATEGI: 20 - 19,5 - 20,5 - 19,5 - 19,5 - 20 - 20,5 = 139,5

ENBEITA: 22 - 21,5 - 21 - 21 - 22 - 21,5 - 21,5 = 150,5

Sorozabal - S. Lizaso

GAIA: Jokin, eskultorea; eta Sebastian berriz zabor
biltzailea, zarete. Jokin eskultoreak egin du bere
eskultura; herriko plazan jarri du denek goza
dezaten. Sebastianek zaborren kamioira bota du.

Iparragirrereren doinuan ofiziotan

Sorozabal
Nere lanaren berri nahi nion
herriari erakutsi;
oraindainoko marka guztiak
zabor biltzaileak hautsi.
Haundia zera, baina
lanean, alajaina,
bastante ardura gutxi;
nere eskultura ontzira eta
zakarrak lurrean utzi. (bis)

S. Lizaso
Zuk diozunez, apurtu ditut
zeneduzkan esperantzak;
nere lanean ari nintzaden
eta sortu dira saltzak.
Nik egin dut neuria,
eta hau komeria!
Kulturak ditu akatsak,
zenbaitentzako artea dena
zaborra baita neretzat. (bis)

Sorozabal
Honek kultura ez du estimatzen,
behintzat hala ematen du;
hori beretzat zaborra dala
lotsik gabe esaten du.
Nere lagun Lizaso,
ezetz lurretik jaso
edo etetz lurretik kendu,
"coca-cola" lata balitz gisan
makurtu behar bazendu. (bis)

S. Lizaso
Makurtzeari utzi genion,
tresna batek egiten du;
nik deskuido bat izango nuen
eta bera nabarmendu.
Bidearen erdian
ta erdi pikardian
traban zegon eta kendu;
errespetatu egingo nuen
firmatu izan bazendu. (bis)

Sorozabal

Hori bezela, beste hainbeste
harri baditut guztira,
herrian zehar jarritakoak
jendearen ikusmira.
Harek nere izena
ta lehen abizena
hantxe jarri omen dira,
baina begiratu're egin gabe
bota zenuen ontzira. (bis)

S. Lizaso

Ez ikaratu, harriz beteta
dago herriko kantera;
eta nahi dezun harri klasetik
han badaukazu aukera.
Puskatu dut lehengoa,
emanikan gogoa,
ezin konpondu atzera,
eta beste bat berdina egin
artista baldin bazera. (bis)

SOROZABAL: 20 - 22 - 20,5 - 21 - 21,5 - 21,5 - 21,5 = 148

LIZASO: 20,5 - 22 - 21 - 21,5 - 21,5 - 22,5 - 22,5 = 151,5

GARTZELAKO LANA

1 GAIA: Herriko parkean zauden banko bat zara. Asteburuetan zure inguruan gertatzen denaren berri konta iezaguzu.

2. GAIA: Zezen-plaza inguruko belaze batean ari zaren zezena zara. Zauden lekutik ole! eta txalo zaparrada latzak entzuten dituzu.

U. Iturriaga

GAIA: Lehenengoa

Neurria: Berezia

Doinua: Lehio ertzetik entzun dezaket

Arratsaldetan hasten da lana,
jana eta berehala;
jente ugari hurbildu ohi zait
berekak bukatu ahala.
Umezaintzaile ugari daude
kokoteraino dirala:
papila erori dala,
zikindu zaio magala. (bis)
Baina txarrenak umeak dira,
ez da kuadrila kabala,
eta gainera esertzen dira
behar ez duten bezala. (bis)

Alde batetik negarrez daude
ta bestetik tormentuak,
parke honetan guztiz ezberdin
joaten dira momentuak:
arratsaldea pasatu ahala,
oihuak eta kantuak
eta besteen kantuak,
norbaitek hor kontatuak. (bis)
Iluntzerantza etortzen dira
gaztetxo lotsabakuak
eta orduan gustoz entzuten
ditut nik hoien kontuak. (bis)

Espresatzea kostatutzen zait
erraza da ulertzeko,
sentimentuak ez dira errez
horrela adierazteko.
Denporada da April aldera,
aste santuan hasteko;
Ekainean ikasteko,
Uztailean jolasteko;
oraindik ere makinatxo bat
zirri daukat ikusteko,
gero negua heltzen denean
berriz bakarrik uzteko. (bis)

20,5 - 20,5 - 20,5 - 18 - 20 - 19,5 - 20,5 = 139,5

Euzkitze

Gaia: Bigarrena

Neurria: Berezia

Doinua: Ligoiz bizitza ez da izaten

Ekologistak ariko dira
hau eta hori esaten,
baina Espainian hau bezelako
festarik ez da izaten.
Ederki bizi izan naiz, baina
nereak egin du aurten;
oraingoan ezetz irten! (bis)
Nere bizitzak ez du izango
behar den aina iraupen;
marka ez al da ni hil beharra
besteek goza dezaten?

Nere adarrak zorrotz ditut gaur,
kopeta gora igota;
hauxe da gizon eta zezenon
etengabeko borroka.
Nola arraio ez hau gaitzetsi?
Nola arraio ez gorrota,
azken unean nago ta? (bis)
"Buelta al ruedo" ta holakorik
ez dezaidatela konta,
hil ondorengo ohore denak
ez zaizkit bate inporta. (bis)

Pakirri eta El Yiyo hil ziren,
beste hainbat daude grabe;
familietan sortu izan dugu
makina bat atsekabe,
burla egiten digute, baina
gu adarkadetan trebe.
Naiz bi adar onen jabe; (bis)
ni toreatu behar nautenak
guztiz lasai ote daude?
Nereak ia egin du baina
ez nereak egin gabe! (bis)

24 - 24,5 - 24 - 22 - 24 - 22,5 - 24 = 165

Egaña

Gaia: Bigarrena

Neurria: Berezia

Doinua: Maitasuna da bizi izateko

Sobrero batek kontatu zidan
zer den ezpata zorrotza;
orain artean ederki jan det
inguruko larre motza;
pentsatzen jarri ta sentitzen det
amorrua eta lotsa:
zezen ororen morrontza:
indarkeria ta bortxa.(bis)
Ederki asko entzun dezaket
hor barruko "ole!" hotsa,
elkarrengandik zein hurbil dauden
bizia eta heriotza!

Gizasemeak, batek fraka du,
besteak bi puru lodi;
emakumeek ere peineta
eta hainbeste histori;
nere kide bat hortxe barruan
egon liteke hil zori;
badaukat malko ugari
ez al da bistan nabari? (bis)
Gauza bat garbi esan nahi diot
persona degun orori:
Bizitza denok merezi degu,
gauza jakina da hori. (bis)

Bi banderila bizkarrean da
hiru ezpata buruko;
barruan dedan beste zezenez
ez al naiz akordatuko?
Pertsonak pizti bihurtzen dira
aukera izan orduko
ta guri bizia uko,

ez zaizkigu aldatuko. (bis)
Askatasuna maitatzen det nik,
denok zerate lekuko;
hemendik ospa banoa eta
ez naute harrapatuko. (bis)

25,5 - 24 - 25 - 24,5 - 24 - 23 - 23,5 = 169,5

Peñagarikano

Gaia: Bigarrena

Neurria: Berezia

Doinua: Maitasuna da bizi izateko

Egun batean jaio nintzen ni
askatasunaren jabe,
baina geroztik somatu izan det
makina bat atsekabe.
Zezen plaza hortan nere lagunak
hor torturatzen dirade;
isats, belarri ta lore,
toreroentzat dotore. (bis)
Beste gauzarik ez det entzuten:
Ole!, Ole! eta Olé!
Mundura zezen sortu ez banintz,
neronentzat askoz hobe! (bis)

Zezen plazatan izaten dira
korrida kuriosoak,
bainan guretzat ez dira izaten
bate gauza erosoak.
Entzuten ditut beren txaloak,
entzuten ditut mezuak;
gaur torero inozoak
txaloak ditu jasoak. (bis)
Ondo ez dakit torero diren
edo eta pailazoak,
errugabeak hola hiltzeko,
zer kulpa dute gaisoak? (bis)

Txoroarena ez al da izaten
torero baten figura

ta ikustekoa gero izaten da
nere lagunen itxura;
halabeharrez, gu sufritzeko
sortuko ginen mundura;
zezenaren arrangura
bota nahi det hor barrura; (bis)
gaur torturaren oihu ozena
gizonengana heldu da.
Guri egiten diguten hori,
hori ez al da tortura? (bis)

23,5 - 21 - 21,5 - 21,5 - 20,5 - 21 - 21 = 150

A.Lopategi

Gaia: Bigarrena

Neurria: Berezia

Doinua: Leiho ertzetik entzun

Larrean nago eta badaukat
sobra gogo ta indarra,
lau hankak sendo eta buruan
ere kristoren adarra;
baina gero zer izango dudan
pentsatuz, hau zoritxarra,
samina eta negarra,
hain sentitzen naiz bakarra!
Ondo pentsatzen jarri ezkerro,
ez da ez gauza edarra,
jendean "Ole! , Ole!" entzunez,
horrelxe hil beharra. (bis)

Plaza hortan zer jasoko dudan,
ez al da izango demasa?
Zertako nire indarra eta
zertako nire arraza?
Toreruaren aurrean jarriz,
ez da izango jolasa;
bete-bete egin da plaza,
zein etorkizun eskasa. (bis)
Nahiz eta jakin ez dala izango

lan gozo edo erraza,
burrukatuaz eman behar dut
neure azkenengo arnasa. (bis)

Hemen larrean ibili arren
buelbaka oso brabo,
nerbio batzuk sentitzen ditut
gero eta hurbilago;
orain daukadan bizitasuna
aldatuko da zeharo;
hain sentitzen naiz arraro,
laister nireak akabo. (bis)
Nahiz eta ez dan erreza izango,
saiatu beharra dago:
toreru hori neuk hil behar dut,
berak ni hil baino lehenago. (bis)

23 - 21,5 - 22 - 20,5 - 20 - 21,5 - 21,5 = 150

Sorozabal

Gaia: Bigarrena

Neurria: Berezia

Doinua: Maitasuna da bizi izateko

Ez dakit nundik ekarri zuten
hain ohitura berezia,
baina zezenek pasatzen dute
barru aldera hesia;
torturatu eta hiltzen dituzte
nahiz ez izan merezia.
Garbi dago ikusia
nola dan gure auzia: (bis)
gaur gizarteak galdua dauka
bere duintasun guzia,
batzuen jolas bihurtu baitu
beste batzuen bizia. (bis)

Zezen aurrean jartzeko ere
behar da hainbat balore;
jartzen denari egiten zaio
hainbat agur ta ohore,
baina kanpoan nik ez dadukat
jendeak hainbat umore;
a ze festa latzen jabe
egiten diren halare! (bis)
Disfrutatzea ona da, baina
gu're orain hemen gaude;
ezin al leike festarik egin
inor torturatu gabe? (bis)

Ni're kanpoan hementxe nago,
agian, hemen betiko;
oso haundia ez naizelako
hala ninduten utziko,
baina nork esan egun batean
ni ez nautela hor hilko?
Joango banitz barrurako,
bengantza egin beharko. (bis)
Torero hoiek jakinagatik
nik ez dakit zenbat truko,
tripa guztiak atera arte
ez det atsedeen hartuko. (bis)

21,5 - 22,5 - 22,5 - 22,5 - 22 - 22,5 - 21,5 = 155

J. Enbeita

Gaia: Bigarrena

Neurria: Berezia

Doinua: Munduko ilunabarra

Jauna, hau da eromena
hemendik ikusten dena:
"ole"ak eta aihena,
zutik jenderik gehiena.
Ez ote zaigu inoiz hustuko
gizonaren almazena,
kirola bide, kapritxo bide,

txarrera duen ahalmena?
Bihotz barruan izan behar da,
jaunak, grina ta kemenak;
nik egin dudak bakarra baida
mundura sortu zezena,
eta horrela gero hiltzeko
hau ote dugu krimena? (bis)

Zutik nago ozta ozta,
alperrik hainbat erosta,
irtenbiderikan ez da,
horixe da gure koska.
Euren hizketan hasi behar naiz,
erdi mekauendioska;
belarretatik alde egiteko
oinak behar ditut presta.
Baina "ohorea zaindu ezazu"
-nire bihotzak diosta-
"barrura sartu eta adarrez
denei hasi zisti zasta;
aurretik batzuk behintzat eraman,
nahiz eta bizitza kosta". (bis)

Badut hainbat buruhauste,
amorruekin nahaste,
zeinek behar zuen uste,
oraindik bai nago gazte.
Ni eta beste dozena erdi
biharko jarri gaituzte;
heriotz honek ba ote dauka
horrenbeste irabazte?
Geuk ere berdin behar ditugu
geure haur eta emazte;
horrexegatik, ez bestegatik,
kantuz ari naiz hain triste;
eskubide bat badugulako
gizonezkoak hainbeste. (bis)

20,5 - 21,5 - 21,5 - 20 - 20 - 21 - 21,5 = 146

S. Lizaso

Gaia: Lehenengoa

Neurria: Berezia

Doinua: Maitasuna da bizi izateko

Eserleku bat estatikoa,
ezin naiz joan inora,
bainan hala ere nekatuentzat
atsedana da mejora.
Asteburuan zer ikusten dan
orain behar dut gogora,
ni egoten naiz gustora
eta zergatik aztora? (bis)
Igande goizez, bakar bakarrik
pasata hainbat denbora,
hiru amona etortzen zaizkit
meza entzun da gerora. (bis)

Bazkalondoan zer gertatzen dan
orain konta nahi nuke,
nahiz ta pisutan ez dadukaten
goizetik hainbeste neke.
Senar-emazte haur batzurekin
nere inguruan jo ta ke,
amatxo patxada eske
hiru goxokiren truke. (bis)
Baina haurrentzat bankuak ez du
behar hainbeste bertute:
igo ta jeitsi bere oinekin
guztia zikintzen naute. (bis)

Arratsaldean eguzkia da
piska't itzaltzen hasia,
eta orduan nabaritzen dut
ikuskitun nahasia:
neska ta mutil nigana etorri,
horretxek dauka grazia;
saltoa edo jauzia,
ez da gauza itsusia; (bis)
nere gainean egiten dute
maite duten kutizia.
Pena bat daukat: gertatzen dana
ondo ezin ikusia. (bis)

28 - 24,5 - 24,5 - 24,5 - 24,5 - 23,5 - 24,5 = 174

BUKAERAKO AGURRAK

Lazkano

Bukaerako agurra

Neurria: 10eko nag.

Doinua: Aita izena kanta beharrak

Barrupe hontan bildu gerana
ez da jendetza makala;
esan digute telebistatik
berrehun mila badirala.
Iruditzen zait gaur euskaldunak
kolore baten gerala;
bersolaritzak aurrera ere,
orain artean bezala,
zatitutako gure herri hau
batutzen jarrai dezala. (bis)

A. Lopategi

Bukaerako agurra

Neurria: 10eko nag.

Doinua: Santa Barbara zure bizitza

Lehenengo ta behin mila zorion
Andoniri bihotzetik,
eta zueri eskerrik asko
horrenbeste txalogatik.
Ni finalera ailegatzerik
ez nuen uste inundik;
ta, beraz, oso gustora nago,
baina esango dut zergatik:
neronen poza baino gehiago
aita "Baltza"renagatik. (bis)

Peñagarikano

Bukaerako agurra

Neurria: 8ko txik.

Doinua: Haur eder baten bila

Zutik egoten ere
ene zenbat traba!
Kendu izango degu
generaman karga.
Bi gauz jaso behar dituk,
Andoni, ahal bada:
eure txapela eta
nere besarkada. (bis)

J. Enbeita

Bukaerako agurra

Neurria: Berezia

Doinua: Olentzero joan

Olentzero badoa
lanetik etxera,
intentzioarekin
deskantsu hartzera.
Aditu dudanean
epaileen lana,
argi dago ikasi
ein behar dudana.
Horra, horra,
hutsune galanta:
arrautzak soinean bai,
ta txapela falta;
meriendatu behar
buru soilarekin.
Zorionak, Andoni,
jarrai eta ekin!

Sorozabal

Bukaerako agurra

Neurria: 10eko nag.

Doinua: Lurraren pean

Hilabete ta erdi igaro
ondorean tripak jaten;
hau bezelako esker on hauek
ez dira txarrak izaten.
Ni txapelketan bastante suelto
sentitu izan naiz aurten;
nahiz eta gauzak egiten baino
errezago den esaten,
aurrera ere segi nahi nuke
beste hainbeste ematen. (bis)

U. Iturriaga

Bukaerako agurra

Neurria: 8ko nag.

Doinua: Ilun ikarak azken argia

"Parke isileko banku txuriak"
dio Imanolen kantuak,
eta nik letra repetitu ordez
repetitu dut, "kantuak".
Eta, halere, nere bertsoak
izan dira txalotuak;
zueri esker lortu ditut gaur,
lortu ditudan puntuak.

S. Lizaso

Bukaerako agurra

Neurria: Berezia

Doinua: Arratsaldeon esanaz hasi

Azken bertsoan denak eskertzen
egin behar ahaleginak;
bukatu dira izerdi hotzak,
bukatu tripako minak.
Brontzezko den dominak,

poz eta atseginak,
hoiek dirade jakinak,
gustagarriak dira neretzat
txapelketaren ordainak,
eta txapela irabazi du
nere lagunik haundinak. (bis)

Euzkitze

Bukaerako agurra

Neurria: Berezia

Doinua: Maitasuna da bizi izateko

Ametsa al da ala egia?
Lo banago, iratzarri;
txapel usaidun bandeja neure
eskutan baitute jarri.
Ni Pulidor naiz, Egaña Merckx da,
ta ez da hain lotsagarri.
Badakit nori igorri,
hain maite zaitudan horri, (bis)
telebistatik eskeintzen dizut
gaur ez bazera etorri;
zutaz ahazterik ez neukan eta
hau zuretzat da Baxarri. (bis)

J. Lopategi

Bukaerako agurra

Neurria: 10eko nag.

Doinua: Lurraren pean

Zoramenezko egun haundia
larritasun ta atsegin,
Euskara zaharra sustraian eta
bertso lorea maitemin.
Mila zorion, Andoni haundi,
Unai, Aritz... denoi berdin.
Txapel zaharrari agur eginez,

aurrera berriarekin
segi ta kanta, kanta, mutilak,
giro hau galdu ez dedin! (bis)

Egaña

Bukaerako agurra

Neurria: Berezia

Doinua: Zuek horrela ikusi eta

Zuek horrela ikusi eta
neroni jartzen naiz alai;
batasun honek beharko luke
euskaldungoaren dohai.
Ni lehengoa naiz buru gaineko
uztai edota, ez uztai.
Inor ez zegoen lasai,
urduritasuna etsai,
denak irristadaren zai.
Goizean goizik Lazkao txiki
aipatu dute, nolana...
Zuen txaloak beretzat dira,
nere txapela ere bai. (bis)

DOINUAK

Bertsozalea ohitua da jadanik bertso txapelketen emaitzez jantzirik azken aldi honetan datozen liburuon atzekaldean doinuei buruzko ataltxoak ikusten, non ageri zaizkigun bertsolariak erabilitako doinu guzietan zerrenda, beste txapelketakoekin alderatuz egindako azterketa eta doinu berriak solfeoz transkribaturik. Hauxe duzu bada, irakurle, lau urtean behingo ospakizun historiko honek bere hamaika ekitalditan zehar ekarri digun doinu saileko uzta preziatua jasotzen duen kutxa apala. Doinu bakoitza bere deiturarekin eta zenbat ariketa desberdinetan erabili duten adierazpenekin ikus ahal izango duzu neurriaren arabera sailkaturik. Halaber, zenbaki, pentagrama eta letra legorrez osaturik baldin badator ere, hementxe duzu bertsolariak gaur egun nondik nora dabilen isladatzen duen ispilu garbia.

Azkeneko sei txapelketa nazionalak doinu kopuruak ipini ditut lau urte honetan bata bestearen ondoan, 1967. urteko txapelketetan doinu zehaztapen gutxi jaso baitzen, eta tartean Gipuzkoako (1991. urtekoa) ere sartzea erabaki dut, argigarri zaigulakoan.

	1967	1980	1982	1986	1989	1991	1993
Saioak	2	2	6	14	14	12	11
8.txikia	5	8	23	48	41	35	24
8.nagusi	13	12	22	48	60	43	38
10.txiki	--	2	7	12	17	10	8
10.nagus	1	5	4	10	10	10	11
Bereziak	1	9	17	18	28	25	28
GUZTIRA	20	36	73	136	156	123	109

Erreparatzekoa da zenbat bertso saiotako datuak dauden jasota txapelketa bakoitzean, ez baita berdin bi bertso saio edo hamalau egin; alde ederra. Zenbaki hotzak dira noski, baina irakurle erneak aterako ditu bere ondorioak begira hutsarekin, Amurizak hasitako bidea jarraiki, berezien sail honetan sartzen direlarik gehienbat ekarpen berriak ere. Aldegarriak iruditzen zaizkit neurri motzeko eta luzekoen datuak ere; zortziko handiko bertsogintza eta doinuak dira nagusi goiko zenbaki horietan.

Doinu erabilienak

Doinu bakoitza zenbat aldiz erabili duten jakiteak gaurko bertsolarien gustuen berri zehatza damaigu. MUTIL KOXKOR BAT, BALENTIN BERRIOTXOARENA eta beste zenbait doinu klasikoen gaintetik nabarmen, duela urte gutxi sortu edota ezagututako doinuez baliatu dira zalantzarik gabe bertsolariak. "Imuntzo-Beloki" trikitilariak argitaratutako NAFARROAKO MENDI GAINETAN izeneko doinua izan dugu txapelketa honetako izarra, 36 ariketetan erabilia, eta honen ondoren aipatzekoak dira, Kaxianoren KANTATZERA NIJOA eta ARRATSALDEON LENDABIZITIK izenekoak edo Esnaola-Peñaren MAITASUNA DA BIZI IZATEKO delakoa. Aldian aldiko joera eta modak agintzen du gai honetan noski. Doinu klasikoetatik zein erabili duten zein ez begira jarrita mila aipamen egin daitezke baina ez noa luzatzera.

Berrikuntzak

Jakina da bertsozaleok zai egoten garela horrelakoetan doinu berri berriak noiz entzundo, batipat gartzelako ariketa garrantzitsua heltzen denean eta baita gainontzeko bakarkako ihardunetan ere. Horrela gertatu da aurtengoan era. 20 doinu berri plazaratu dizkigute; horietako sei propio asmatuak, beste azapi doinu zaharretatik jasoak baina bertsolariek erabili gabeak eta beste zazpi berriz kantariak argitaratutako diskoetatik jasoak, kasu batzuetan zenbait aldakuntza eginaz. Euzkitze, Mendizabal, X. Zeberio, J.M. Omagojesakoa, S. Lizaso, Areitio, Maia, U. Iturriaga, A. Sarasua eta Egaña izan dira ekarleak, eta doinu sortzaileen zerrendari begira, trikitilariak ageri zaizkigu alde batetik, Joseba Tapia, Xabier Jauregi (Zabale), Imuntzo-Epelarre eta

Iparragirre anai-arrebak eta bestetik, Imanol Urbieta, Kaxiano, Joxe Leon Kazabon, Jon Kepa Gerrikagoitia, eta Jose Luis Ansorena musikariak. Doinu berri hauetako batzuk bertsogintzarako oso egokiak direla iruditzen zait baina ikusteko dago zeintzu bereganatzen dituen bertsolarigoak. Dena dela hortxe dituzu doinu berri guztiak, neuk solfeoz transkribaturik.

Batzuei asko irudituko zaie eta beste batzuei agian ez hainbeste, baina musika aldetik ere emankorra izan dugu euskal ekitaldi garrantzitsu hau eta bertsolarioi zuen ahaleginagatik eskerrak eman besterik ez zait gelditzen.

Joanito Dorronsoro

BERRIKUNTZAK

1

TXAPELKETA HONETARAKO PROPIO ASMATUTAKO DOINUAK

- 1.- Arratsaldeon esanaz hasi - S. Lizaso
- 2.- Euskalerrian nintzen - Mendizabal
- 3.- Gure Bilboko ekinaldia - Mendizabal
- 4.- Gregario edo laguntzaile naiz - Euzkitze
- 5.- Ligoiz bizitza ez da izaten - Euzkitze
- 6.- Mendizabal Dokusa - J.M. Omagok;jesakoa

2

DOINU ZAHAR ERABILI GABEAK

- 7.- Anderea gorarik - A. Sarasua
- 8.- Ene Lukas maitea - S. Lizaso
- 9.- Gaurko egoera hau - J. Enbeita
- 10.- Ilun ikarak azken argia - U. Iturriaga
- 11.- Oi amodio berri kartsuak - Euzkitze
- 12.- Urruti nere menditik - Areitio
- 13.- Haize hegoa gau epela - Maia

HANDIK ETA HEMENDIK JASO ETA BERTSO MUNDURA EKARRIAK

- 14.- Arratsldekoentzat - Mendizabal
- 15.- Esateko ez naiz lotsa - X. Zeberio
- 16.- Ez nau izutzen negu hurbilak III - J. Enbeita
- 17.- Nafarroako mendi gainetan - Bertsolariagoak
- 18.- Orain gitarrea jota - X. Zeberio
- 19.- Realzaleok maite - Euzkitze
- 20.- Zuek horrela ikusi eta - Egaña

DOINUEN ZERRENDA OSOA

1. ZORTZIKO TXIKIKOAK

- 1.- *Anderea gorarik* (5)
- 2.- Bautista basterretxe
- 3.- Bihotz baten ordean
- 4.- Egun batean joan zen
- 5.- *Ene Lukas maitea*
- 6.- Errota zar maitea
- 7.- *Gaurko egoera hau*
- 8.- Hamar urteko nintzan
- 9.- Haur eder baten bila
- 10.- Kantatzera nijoa (17)
- 11.- Lurralde dena dabil
- 12.- Mando baten gaineran
- 13.- Maritxu nora zoaz
- 14.- *Mendizabal Dokusa*
- 15.- Minberatu zaizkigu (3)
- 16.- Nere senarrarekin (15)
- 17.- Neskazar bat tentatzen
- 18.- Nigarrez sortu nintzen
- 19.- Olentzero joan zaigu
- 20.- *Realzaleoak maite*
- 21.- Sastarretik hasita (5)
- 22.- Triste bizi naiz eta (*behartua*)
- 23.- Xarmangarria zera (*behartua*)
- 24.- Zeruak eta lurrak

2. ZORTZIKO HANDIKOAK

- 25.- Adixkidia Andoaindikan (6)
- 26.- Ama Birjina Erkudengoa
- 27.- Anai arrebak hementxe nator (6)
- 28.- Andre Madalen andre Madalen
- 29.- Andereño bat ikusi nuen
- 30.- Ari naizela ari naizela
- 31.- Arratsaldeon lendabizitik (15)
- 32.- Balentin Berriotxoarena (11)
- 33.- Bertso polit bat kantatuko det
- 34.- Beste bateko inularretan (4)
- 35.- Dama askoren engainagarri
- 36.- Egun lanerat abiatu zait (2)
- 37.- Eguna pasa nekean eta (3)
- 38.- Erreguetan ari nintzela
- 39.- *Ez nau izutzen negu hurbilak III* (3)
- 40.- Gaiso nengoen joan dan aspaldin

- 41.- Gazte denboran sasoia eta
- 42.- Goizean goizik jeiki ninduzun
- 43.- Gure aurreko guraso zarrak
- 44.- Hara nun diran mendi maiteak (13)
- 45.- Haurtxo txikia negarrez dago
- 46.- Hirurogei ta beatzi urte
- 47.- Hormatxoriak negu gorrian
- 48.- *Ilun ikarak azken argia*
- 49.- Itxaspe aldian egin bazan hau
- 50.- Kantore berri xarmant batzuek (2)
- 51.- *Nafarroako mendi gainetan* (36)
- 52.- Naizta hiltzea derrigorra den
- 53.- Nere gogoa hegan dijoa
- 54.- *Oi amodio berri kartsua*
- 55.- Ohian beltzean zeinen eder den
- 56.- Orain bertsoan hasi nahi nuke
- 57.- Pello Josepe tabernan dago
- 58.- Santa Barbara zure bizitza II (12)
- 59.- Txoriak eta txoriburuak (19)
- 60.- Umildadea urruti eta
- 61.- Zeru altuan zegoen jaunak
- 62.- Zuk badakizu gure txikia

3. HAMARREKO TXIKIKOAK

- 63.- Ai gure antzinako (13)
- 64.- Aita asmo hartu det (5)
- 65.- Anton eta Maria (22)
- 66.- Espanian behera (12)
- 67.- Lagundurikan denoi (2)
- 68.- Motibo bat nigana
- 69.- Mundu hau uzten bazun
- 70.- Zer da gaur Donostian

4. HAMARREKO HANDIKOAK

- 71.- Aita izena kanta beharrak (17)
- 72.- Amodioa gauza tristea
- 73.- Bizia ez da nehoiz egoiten (12)
- 74.- Gazte denboran sasoia eta (3)
- 75.- Lurraren pean sar nindaiteke (4)
- 76.- Mundu honetako holako gauzak (6)
- 77.- Mutil koxkor bat itsuaurreko II (19)
- 78.- Mutil koxkor bat itsuaurreko III (3)
- 79.- Santa Barbara zure bizitza II (4)
- 80.- Semaforoak gorri ta berde (4)
- 81.- Sentimentua sarti zitzaidan (5)

5. BEREZIAK

- 82.- Ai zak hi mutil mainontzi (*Behartua*)
- 83.- Albizturtikan Bidaniraino
- 84.- *Arratsaldeon esanaz hasi* (2)
- 85.- *Arratsaldekoentzat*
- 86.- Begira nago jarria bera (2)
- 87.- Dozena bat bertso berri (2)
- 88.- *Esateko ez naiz lotsa* (5)
- 89.- *Euskalerrian nintzen* (2)
- 90.- Euskalerritik aparte (2)
- 91.- Gai honek badu mamia (2)
- 92.- *Gregario edo laguntzaile naiz* (3)
- 93.- *Gure Bilboko ekinaldia*
- 94.- *Haize hegoa gau epela*
- 95.- Iparragirre abila dela (*Behartua*)
- 96.- Kanta batzuek jartzeko
- 97.- Leiho ertzetik entzun dezaket (7)
- 98.- *Ligoi bizitza ez da izaten* (2)
- 99.- maitasuna da bizi izateko (15)
- 100.- Maitatzen zaitudalako (5)
- 101.- Munduan libre bizi izateko (2)
- 102.- Munduko ilunabarra (3)
- 103.- Nere gorputza dardarka dago (2)
- 104.- Ondarru ta Lekeitio (3)
- 105.- *Orain gitarrea jota*
- 106.- *Urruti nere menditik*
- 107.- *Zuek horrela ikusi eta* (2)

6. 9 PUNTUKOAK

- 108.- Betroiarena (4)
- 109.- Gaztalondo handian (5)

Parentesitan datozen zenbakiek zera adierazten digute: doinu hori zenbat ariketa desberdinetan erabili duten.